EDORTA JIMENEZ

Kilkerren hotsak

narratiba Susa

Liburu honen salneurria: 3 € + BEZ.
Ordainketa egiteko, edo liburu gehiago eskuratzeko:
http://susa-literatura.com/ebook

© 2003 Edorta Jimenez
© edizio honena: Susa
cc-by-sa Creative Commons Aitortu Partekatu
http://creativecommons.org/licenses/by-sa/3.0/deed.eu

Lehen edizioa paperean: 2003ko iraila
Edizio hau: 2011ko ekaina

Susa: 317 posta kutxa / 20800 Zarautz
Adoain Aita 92 / 31015 Iruñea
Zubitalde 21 / 48195 Larrabetzu
Telefonoa: 943 83 26 55
Elektroposta: susalit@armiarma.com
Webgunea: http://susa-literatura.com

In Memoriam

Alex Garro Mallona
Joselu Garro Mallona

une voix venant de très loin
une voix désolante
une voix d'os
une voix morte
la voix d'un vieux ventriloque crevé depuis de milliers d'années
et qui dans le fond de sa tombe continue à ventriloquer
Allô allô Radio-Séville
Allô allô Radio-charnier
c'est le général Queipo micro de Llano qui postillonne à la radio
Pour un nationaliste tué je tuerai dix marxistes... et s'il ne s'en trouve pas assez je déterrerai les morts pour les fusiller...
et cette atroce voix cariée
cette voix pouacre... cette voix nécrologique religieuse soldatesque vermineuse néo-mauresque
cette voix capitaliste
cette voix obscène
cette voix hidéaliste
cette voix parle pour la vermine du monde entier
et la vermine du monde entier l'écoute

JACQUES PREVERT
«La Crosse en l'air»
poemaren zatia
Paroles liburutik

–1–

Herriaren izena aipatu zidanean gerrako akorduak etorri zitzaizkidan gogora. Zelan alde egin nuen *Nabarra* boutik, eta haiek beste kontu denak. Eta negarrak begietara egin zidan kasik. Gero bisitariak hango eliza aipatu zidan, eta beste kontu bat etorri zitzaidan gogora, barregarria bera. Hain zuzen ere, 1861eko dokumentu batean esaten dena. Ia-ia buruz dakit hori. Zahartzeak ez dit oroimena erabat kendu.

«Mundakako errioak –errioari itsasadarra esaten diote orain– fama txarra du, zeren eta haizea hirugarren eta laugarren koadranteetakoa izanez gero gaitz egiten baita belak maniobratzea –dio dokumentuak–; beraz, nabigatzaileentzat mesede galanta litzateke tenplu hori orain dagoen lekutik kentzea».

Ez zioen makala dokumentu hark. Herriko eliza bere talaiatik kentzea! Ez zuten kendu 1861ean, eta ez dute kentzeko esperantzarik. Agian beste gerraren bat etorriko balitz. Eta hala ere, nekez. Ezagutu baititu tenplu horrek bonben

hotsak eta txinpartak. Baina hori beste baterako utzi beharko dugu. Orain gaia da tenpluan, elizan, lanak egiten ari izanak zirela, eta halaxe azaldu zidala bisitariak.

–Lanak? –moztu egin nion–. Ez ote dira tenplua lekuz aldatzeko?

Barre egin nuen. Bisitariak ez zuen nire barrearen zergatia ulertu. Muturra okertu zuen.

Azaldu egin nion.

–*Derrotero de la Costa septentrional de España* liburuan eliza orduan zegoen lekutik aldatzea proposatu zen. Horregatik barreak –eta keinu egin nion, apalategirantz, dokumentuaren kopia hantxe nuela adierazteko moduan.

Ez zuen amua irentsi.

–Proposatu zelako ala aldatu ez zutelako dira barreok? –nire erantzunaren zain geratu gabe berak jarraitu zuen–. Ez dut jakin historian hain jantzia zinenik.

Ekartzen zidan errekadua hainbat arinen azaldu nahi zuen, argi zegoen. Haatik, zaharrek ez dugun gauza bakarra presa dela esango nuke. Beste ziri batek ez zion kalterik egingo.

–Inteligentzia, barkatu, informazio zerbitzuak ez dira nire maitasun bakarra. Historiaren zalea naiz, eta emakumeen zalea –duda egin nuen– izana naiz. Itsasoko kontuekin dudan harremana besterik da.

–Badakit, Uriarte jauna –esan zuen bisitariak; nik lekuz kanpoko jauna hartan ironia nabaritu nion–. Eta hain zuzen ere horiek denak nahasten direneko ipuintxo batekin natorkizu.

–Emakumeak ere tarteko diren ipuintxo batekin? –maltzur galdetu nion, aldez aurretik bainekien ezetz, emakumerik ez zidala proposatuko azeri hark.

–Emakumeak izan ezik beste osagarri denak ditu ipuinak. Esaten ari nintzen moduan, lanetan ibili dira elizan...

–Elizan lanetan? Apaizek lan egiten dute orain? –ziria sartu nahi izan nion.

–Antiklerikala zarela esan didate –bota zuen, erneguz, mandatariak.

–Ibili izan naizen jendeekin ibili izateko ez nahikoa, esango nuke nik. Baina, tira, ekin zeureari.

–Ba, esaten ari nintzen moduan, herri horretako elizaren barruan lanetan ibili izan dira eta, hara non, aldare nagusia mugitzean dokumentu batzuk azaldu dira.

Dokumentu hitza entzuteak jesarlekutik altxarazi ninduen. Leihora hurreratu nintzen. Kanpoan eguraldi zoragarria zegoen. Esan nahi dut, euria bota ahala eta haize zakarra. Isileko lanak egiteko eguraldi ezin hobea. Ikusteko nago halako eguraldiarekin muga marra zaintzera bere borondatez joango den txapelokerra. Eta txapelokerrak, asko ezagutu ditut nik.

–Noizkoa? –galde egin nion.

Bisitariak eskuan karta ona zuela jabetu zen eta, agur lehenago izandako presa.

–Eman dezagun zure lehenengo misioetan ari zinenekoa dela.

–Hogeita hamaseikoa?

–Bo, zera, ba –ez zekien zer esan–. Hain goiz ekin zenion Zerbitzuari?

–Hain goiz diozu? Beharbada hori baino goizago hasi nintzen, beharbada beranduago. Ez diot sekretu hori zeure lako ume gorri bati kontatuko, ezta? Arranoa!

Orduan berak fardeltxo bat utzi zuen mahai gainean.

–Zein partidutakoa zara? –galdetu nion, fardeltxoari eusteko nuen gogoa ezkutatuz.

–Partidua ala alderdia esaten da? –berak, nire apustuari eutsiz.

–Nahi duzun moduan. Edozein gauzak ditu bere alderdiak. Harri batek, esate baterako, alderdiak ditu, eta zein alderditik begiratzen zaion, ba horixe, diferentea da.

–Eta partidua? –fardeltxoari begira zegoen, nire moduan.

–Partiduak *zatitua* esan nahi du. Eta horixe dira partiduak, zatiak. Eta bakoitzak bere zatia hartzen du. Horretan arrantzaleekin nago ni; zenbat arrain harrapatu duten, diruak zatika egiten dituzte, eta bakoitzaren zatiari *partila* esaten diote. Bakoitzak bere partila poltsikora eta denak bakoitza bere etxera.

–Ez dut partidurik –esan zidan, begi keinu oker batez.

–Hala da ze, ez duzu partilarik –bota nion–. Kontu honetan ez duzu irabazirik atera behar. Hala da?

–Halaxe da, bai.

–Ez dizut sinesten –esan nion, nik ere nire azken hori sinetsi gabe–. Ea zer dugun paperotan.

Fardeltxoaren haria askatzen saiatu nintzen. Neke handia izaten da nire adinean korapiloak askatzen ibiltzea. Eta fardelaren inguruko sokatxoak korapilo gaitza zeukan. Orduan bisitariak txiskeroa atera zuen.

–Honekin errazago –esan zuen, eta sokatxoaren korapiloa erre zuen.

–Erre nahi baduzu, erre egizu –esan nion.

Zigarro paketea atera zuen.

–Nahi? –ahora bat eramateko keinu berean galdetu zidan.

–Ez. Aspaldi utzi nion. Lehen mundu guztiak erretzen zuen.

–Agirrek berak ere bai –bota zidan.

–Lehendakariak? –nik.

Fardeltxoa askatzen ari nintzen. Hartua nion mandeuliaren antza.

–Zein Agirrek, bestela? – esan zuen, ergel hallakoak.

Papalotearen itxura hartu nion. Eta ez nion erantzun. Lehendakaria ez ziren hainbeste Agirre ezagutu ditut ze!

Fardeltxoaren barruan begiratu nuen. Paperak zeuden han. Paper hutsak. Baina zaharrak. Beraz –zuzendu behar izan nion nire buruari–, ez hain hutsak.

–Ertzaina? –zuzenean galdetu nion.

–Ez –erantzun zidan–. Zergatik susmo hori?

Ez nion zergatia azaldu, ez eta berak emandako ezezkoa sinetsi ere. Berdin zidan hura zer zen; ertzaina zein artzaina. Edo pastorea. Begien aurrean neukana gerra denborako dokumentua zen. Altxor hutsa.

–Honelako denak galdutzat ematen izan ditut nik.

–Ba hor duzu bat.

Gudarien militar trebakuntzan erabiltzen zen kartilatxoa zen. Euskaraz eta espainolez.

–Orain ere honelako hitzak erabiltzen dituzue Akademian. Zelan da? Arkautin.

Ez entzunarena egin zuen. Beraz, ba ote zen ez ote zen geratu nintzen.

–Agertu! –aldarri egin nuen, edozein sarjentu txapelandiren modura.

Ez zuen zirkinik ere egin. Zigarrotxoari jo zion tenkada ezik.

–Iskiluak! –bigarren aldarri bat jo nuen, gudari ikasketetan izan genuen sarjentuaren itxurak egin nahirik.

Egia da nire adinean gaitz dela ganoraz aldarri egitea, eta are gaitzagoa aldarriak gudari ikasketaren denborakoak izanda.

–Euskaraz ala erdaraz egin dituzu ikasketak? –nire gudari ikasketen denborak etorri zitzaizkidan. Mozolo hura niri begira eta fardeltxoko paperak ere begira–. Kendu karga!

«Hala da ze, ernai mutilak!», pentsatu nuen nire artean. Euzko Gudarostearen Gudari Ikasketa kartilatxoa zegoen han. Eta besterik? Gudariaren otoitza, beharbada.

Beharbada ez, ziur baino. Hantxe zegoen. Erdaraz. *La vida y la muerte del militar.* «Señor mío Jesucristo, Dios y hombre verdadero...». Ederra. Harrezkero ez nion jaramonik egin mandatariari. Harik eta fardeltxoko den-denak begiratu arte.

–Iriondo! –oihu egin nuen hiru argazki berdin haiek ikustean.

Saseta batailoiko Iriondo jaupariaren –*jaupari* esaten zitzaien orduan gudarien abadeei– hiru argazki ziren hantxe. Eta Arturo Campionen *Los hermanos Gamio* liburutxoa. Denak Santa Teresa eta Begoñako Amaren estanpen artean. Eta hantxe zeuden batailoiaren barruko ordenaren arauak. Eta fakturak. Juan Manuel Iriondo Aranburu jaupariak zehatz eramaten zituen kontuak.

«Baita arimaren kontuak ere!», esaten zidan, baina gaitz egiten zitzaidan halakoetan sinestea.

–Eta hau dena zertara dator –paperak fardeltxoan atzera utzi ostean nik.

–Gertatuak argitu nahi nituzke. Zer izan zen urrearen kontu hura dena, zer geratu zen elizako ontziekin, nor zen hilik agertu zen Ezezagun hura eta...

–Eta zergatik fusilatu zuten Mallona?

–2–

Gerra girora jauzi egin nuen. *Nabarra* boutik zelan alde egin nuen etorri zitzaidan gogora. Martxoak 4 zituen, oker ez banago. Nahiago dut hura gogora ez ekartzea, ostera.

Haren ostean egundoko misioa eman zidaten. Bisitariak aipatu zidan herrira joan behar nuen. Barkatuko didazue herriaren izena ez aipatzea. Sasian bizi izan denaren maniak, bai.

Misioa erraza zen. Itxuraz behintzat. Baina ene bizi guztian ezerk ez dit haren lehenengo pausoak eman zidan besteko mina eman. Hasteko, falangista baten afiliazio orria eman zidaten.

–Erakutsi beharrekoetan eta erakutsi beharrekoei erakusteko –agindu zidan Zerbitzuburuak, misioari buruzko beste argitasun gutxi batzuk eman ostean.

–Soingainekoa eta haren barruko forruaren artean sartu nuenean bihotza lehertu egingo zitzaidala pentsatu nuen –esan nion bisitariari, eta nire azalpenetan etenaldia egin nuen.

–Ez zen samurra izango falangista zerrikume baten agiria bihotzaren parean eramatea –ulertuarena egin zuen.

–Hori ere egia da –esan nion–. Baina horregatik bakarrik izan balitz! Pentsa ezazu harrapatu egiten baninduten. Geureek. Eta dokumentua topatu. Zelan azaldu nor nintzen? Tiro bat jo eta bertan seko utziko ninduten. Beno, hori anarkistekin edo komunistekin gertatuz gero. Abertzale negarti haiekin beste kontu bat izan zitekeen, ziur. Baina harira!

Falangista hura hil berria zen, itxuraz. Nork, non eta nola eman zion heriotza, hori ez nuen galdetu. Baina dudaren harra barruan geratu zitzaidan. Faxistek ez omen zeukaten haren heriotzaren berri, horra argi neukan bakarra.

–Hau dena Ibaiganen izan zen. Han ikusi nuen gure aristokrata itxurako agintari hura –hau esateko bisitariari begietara begiratuz hitz egin nion.

–Telesforo Monzon? –galde egin zidan, nortaz ari nintzen ziur zegoen arren.

–Berbera. Ertzaintzaren buruaren burua zen. Ez nuen harekin hitz egin, zerarekin baino...

–izena esateko hauxe falta zitzaidala moztu egin nuen. Ezin dut izenik eman, ez eta hildakoren batena ere.

Bisitariak adi entzuten ziharduen. Ertzaintza aipatzean zerbait nabarituko niolakoan, baina kia! Ez zuen zirkinik ere egin. Ez nion esan falangistaren orria hantxe ezkutuan baneraman ere nire beste afiliazio orria, berau ere faltsua, aldean neramanik. Zertarako?

Herriraino bidea autoz egin nuen. Zerbitzuetakoa izatearen abantailak. Dena dela, ez nuen autoz joatearen arrazoia ulertu. Hain presazkoa ote zen ni herrira agertzea? Galdera hori ere barruan geratu zitzaidan. Bilbo atzean utzi orduko desagertua zen edozein duda. Aire erasoaldietan jotzen zuten deiadarra aditu genuen, eta hantxe ahaztu zitzaidan presaren zergatiaz galdetzea.

«Zorioneko presa!», bota nuen nire artean.

Enekuri gainean ginen. Txoferrak bekain ertzaz begiratu ninduen. Gogorrago zapaldu zion. Han aurrean Abra osoa geneukan. Hantxe ikus zitezkeen Bilbo blokeaturik zeukaten gudontziak. Eta ezin ezer egin guk blokeoa hausteko. Aire erasoaldiaren deiadarra aditu zen berriro. He-

gazkintxo bakarra zen. Enekurin behera gindoazela hasi zen haren bonbardaketa.

–Paperak –esan zidan txoferrak.

–Papertxo hegalariak, bai –esan nion, eta hortxe amaitu zen gure hizketalditxoa.

Eta halaxe izan zen ordukoan. Orri hegalarietan Mola jeneralak, Bizkaian harria harri gainean ez zela geratuko, mehatxu egiten zuen. Eta matxinatuekin zerikusirik ez zeukanak ez zuela ezeren beldur izateko motiborik, eta hau hori eta bestea. Geu omen ginen matxinatuak! Halakorik!

Hegazkinak bihotza kolkotik atera zigun. Hurrengoak paperak barik balak jaurti zitzakeen. Billano muturreraino isil-isilik joan ginen, autoko argiak amataturik, gauari aurrea hartu guran. Bidean ikusi genuena hobe ez aipatzea. Gerra galtzen gindoazen. Horretaz konturatzeko txoferrari begiratzea baino ez zegoen. Hamazazpi urteko umekondoa.

Behin Billanon, hango faro-dorre zaharra saihestuz haren ondoko bunkerretara egin genuen. Hantxe zegoen transmisioen zerbitzua. Eta kostako bateriak ere. Txoferrak autoa leun-

leun gelditu zuen. Eskerrak eman nizkion. Txiza egiteko aprobetxatuko zuela esan zidan, erantzun gisa.

–Kontuz txilibitua lar erakutsi gabe! –ziria sartu nion–. Hangoek begipean gaitiztek eta.

Bizkor iluntzen ari zuen. Baina faroko argiak biztu gabe segitzen zuen.

«Alarmaren bat», pentsatu nuen, alarmarik noiz ez zen egoten nire artean esanez.

Transmisioen zentroko bunkerraren ateetan itsasoko ertzain bi zeuden. Guardian. Bat ezagun egin zitzaidan, baina berak ez ninduen ezagutu. Biboteagatik, beharbada. Gerra hasi aurretik bizarra ondo eginda ibiltzen bainintzen, orain, ba, batzuetan bibotea eta besteetan bizarra. Ez ninduen ezagutu, eta hobeto horrela. Ez zen kontua gizagaixo hari azalpenak ematen hastea. Ohiko orria erakutsi nien. Barrura sartzen utzi nindu-ten. Esan gabe doa orrian ageri zen izena ez zela nire benetako izena baina, nire lako batek zein du benetako izena? Transmisio-buruaren bulego atea –tuneletako batean egindako zuloa– zabalik zegoen.

–Arranoa! –ahots sendo batek oihu egin zidan.

–Sinbad! –beste oihu batez erantzun nion.

Ez neukan garbi zergatik bota zuen Arrano! hura. Harritu egiten zelako ni han ikusteaz ala ezizenez niri –batzuek behintzat– *Arrano* esaten zidatelako? Ez nion galdetu.

Hantxe zegoen Sinbad kapitaina, bere betiko aldarte onean. Aspaldiko lagunak ginen.

–Bo, lagunak –duda egin nuen, bisitariari begiratuz–. Irakasle izan nuen Nautika Eskolan.

–Deustuko Itsasketa Eskolan?

–Ze itsasketa eta ze metraileta! Ez gara horretan hasiko –bota nion–. Sinbadek harrera ona egin zidan. Lepoan jo zidan agurrezko kolpea alde batera utzita.

–Tragotxo bat? –eskaintza egin zidan.

Mahai-gaina paperez beterik zeukan, hura anabasa. Eta bera zen Merkatal Marinako Pertsonen eta Transmisioen Arduraduna!

–Nola esaten zioten orduan hari? Erri-Itsaskintza-Oro Azterkaritza? –azken hau ozenago esan nuen, galdetuz.

Galdera airean geratu zen. Bisitariak ez zuen tutik esan. Eta nire azalpenetan aurrera egin nuen.

Sinbaden bulegoan zegoen anabasaz gainera, eta dena askoz nahasiago egiteko, irratien hotsak eta telegrafoaren txistuak aditzen ziren. Anabasa, bai, baina botila non gordetzen zuen ondo zekien Sinbadek. Basotxo bi bete zituen.

–Arranoa! Gerra hau kaka hutsa duk, Uriarte! Topa! –esan zuen.

–Hau duk berotzekoa! Nondik atera duk pattar hau?

–Sekretua –erantzun zidan–. Hire misioa bezain sekretua.

Ordua zen norbaitek nire misioa zehatzago azal ziezadan. Zerbitzuburuak, barruko poltsikoan erretzen neukan orria emateaz gainera, ezer gutxi argitu baitzidan. Herriaren izena, hara joateko autoa –beribila esan zuen berak– jarriko zidatela, txoferrarekin –txoferra, halaxe esan zuen– larregizko konfiantzarik ez ibiltzeko eta Billanon geratzeko agindu zehatzagoak hartzera, horra hark esan zidana.

Baina Sinbad gibelandiak ez zuen presarik. Misioa, beraz, hain presazkoa ere ez zen. Eta bera irakasle eta ni haren ikasle ibili gineneko denborak ekarri zituen gogora. Ikasle ona izan omen nintzen.

–Ikasle hain jatorra izanik, gero ez hintzen inoiz enbarkatu.

Ez nion erabaki haren zergatia azaldu behar. Bera ere, noiz enbarkatu zen ganorazko ontzi batean, ba? Sota jauntxoaren *Goizeko Izarra* yatean sartu zen, eta han beti jai.

–Zergatik Sinbad ezizena? –bisitaria jakingurak erreta zegoela igarri nuen.

–Deportiboko Zirku amateurrean ibiltzen zen, marinel jantzita egundoko jauzi luzeak egiten. Hortik ezizena.

–Gizon txirenea, Bilbon esaten den moduan esanda –esan zuen bisitariak.

–Izan ere Sinbad, jaiotza izenez Juan Duñabeitia, Bilbokoa zen eta. Egia da jauziak egiteaz gainera itsaso beteko gizona zela. *Goizeko Izarra*ko mastetan gora zelan igotzen zen ikusi beharko zenuen; katua baino malguago. Eta han zegoen, ia berrogei urterekin, mutilzahar kasik,

gerrako jaka harekin. Baina goazen harira. Misioaren nondik norakoa azaldu zidan. Ez zehatzegi, egia esan.

–Lantzean behin alemanen gerrako barku bat Ogoño eta Matxitxako arteko badian sartzen duk, gauez –esan zidan–. Horren zeregina? Hemendik alde egin nahi duten faxistak bertan enbarkatzea.

–Gure oniritziarekin –eten nion Sinbadi.

–Gerra hau ez diagu ez hik ez nik gidatzen. Gobernuaren aginduak dituk –Sinbadek ez zuen sekula santan Jaurlaritza hitza erabiliko; nirekin behintzat–. Zenbat eta faxista gutxiago gure artean, ba enbarazu gutxiago. Paperak ematen zaizkiek eta hor konpon. Hanka hemendik! Enbarka bitez!

–Eta zein da problema?

–Ba bide batez paperik gabeko beste arrain batzuk ere enbarkatzen direla, eta ez edonolakoak, arranoa!

–Legatz ederrak –esan nion.

–Saltsan jartzeko modukoak. Hementxe dituk faxistak gauez pasatzen dituen gizonaren datuak; eta haren enbarkazioaren izena.

Papertxo bat luzatu zidan. Hartu, begiratu eta zatitu egin nuen. Ez nuen haren beharrik.

Ur-Txori zen ontziaren izena, eta Benjamin gizonarena. Izen politak biak. *Ur-Txori* behar zuelako izan ontziak, gauez eta faxisten kargamentu haiekin nabigatu ahal izateko. Eta hura ontziaren meritua ez bazen, jabearena izango zen. Benjamin! Bibliako ipuintxo hartan Jakoben hamabigarren semea, eta azkena.

–Eta zein zen badian sartzen zen aleman ontziaren izena? –eten zidan bisitariak.

Adina tamalgarria da. Dena nahasten da. Edo lagun hark esaten zuen moduan, azkenean norberak ez daki Txinan zein diren jeneralen izenak eta zein ibaienak. Bada, niri berdin jazotzen zait, baina Alemaniako hiriekin eta barkuekin. Ontzi hark hiri baten izena zuen, horretan ez daukat dudarik.

–*Königsberg* gurutzontzia zelakoan nago –esan nion–. Edo *Leipzig*, beharbada.

Izenok esaten Billanoren ostekoak etorri zitzaizkidan, eta halaxe azaldu nizkion bisitariari.

Sinbadekin basoa hustu, elkarri lepoan laztan egin eta autora joan aurretik beste baten izena eta xehetasunak esan zizkidan belarrira.

–Gogoratuko zaik, Uriarte? –galdetu zidan, begiak elkarren begietan.

Galderak ez zuen erantzunaren premiarik. Kanpora egin nuen. Hantxe zegoen txoferra, apur bat aztoraturik.

–Gauez hegazkinik ez– esan nion, lasaitzearren.

Matxitxakoraino egin genuen bidean izan genituen kontrolak ez ditut gogoan. Uste izatekoa omen zen faxistak itsasoz alde egiten saia zitezkeela.

–Frantziara –esan zigun kontroletako batean gudari batek.

–Ez zegoen orain dagoen kontzientziarik –bota zidan bisitariak.

Ez nion jaramonik egin. Nire aldetik Frantziara barik Iparraldera esatea itxaroten bazuen, lekutan zegoen. Oraindino ere, eta Donibane Lohizunen urteetan bizi naizela, kostalde hau Lapurdi da niretzat. Baina harira.

Aleman ontziak eragin zidan zirrara gogoratzearekin nahikoa nuen. Matxitxakora iritsi ginenean izan zen. Handixetik begiztatu genuen *Königsberg* edo *Leipzig* hura. Argiak amataturik zituen, haren posizioa eta egoera adierazten zutenak izan ezik. Makinak martxan zituela zegoen. Geldi. Bermeora segitu genuen.

Behin Bermeon Bilbora itzultzeko agindua eman nion txoferrari. Eta edozer ikusita ere autoan inor ez hartzeko. Bere gaztean ez ulertuaren keinua egin zidan.

–Tira –esan nion, pentsatzen ari zenaz jabeturik–. Larrialdi batean inor hartzen baduk ere ez egiok esan norekin etorri haizen, ez zertara ere.

Txoferrak ukabila bekokira igoz agurtu ninduen.

–Euzko Abertzale Ekintzako gazteok! –pentsatu nuen nire artean, mutila EAEkoa zela ziurtzat emanda–. Abertzale finak, baina gudari bulartsuegiak. Sardako arrainak sarean legez jausten ari dituk.

Gero gaztetxo hark esker oneko beste keinu bat egin zidan. Gaitz egingo zitzaion bidean inor ez hartzea 1935eko Citroën 11CV zoragarri

haren barruan. Bihotza apurtuko zitzaion bestela. Eta niri ere apurtu zitzaidan, ia-ia, Bermeoko kaleetan hara eta hona ibiliz. Eta halaxe ulertu nuen autoa jarri bazidaten ez zela presagatik izan. Bide hura autobusean, edo militarren konboi arrunt batean egin ahal izango nukeen. Baina ez zuten nahi. Gure egoera ikustean gogoak behera egingo zidalakoan. Gaua portuan ematea erabaki nuen.

Loak nekez hartuko ninduen eta, beraz, nahigo izan nuen gaua *Nabarra* boutik zelan alde egin nuen gogoratuz eman.

–3–

Gaua portu zaharrean eman nuen, tabakoa pipatzen eta gogoetan. Gogoetan, bai, guda madarikatua zelan gure aldera ekarri.

«Uretan ziren ontziekin, nekez», nioen nire artean.

Euzkadiko Gudontzidia osatzeko bakailaotako bouak hartu ziren. PYSBEkoak gehienak. Legendako barkuak arrantzaleen giroetan. Baina eskasak gerrarako. Kanoi ziztrin pare bana jarri eta su egiteko prest! Zerbait egiten ari ziren, hala ere. Gerra itsasoa ez zen beste leku batean jokatzen zela begitandu zitzaidan. Armak behar genituen, eta hegazkinak. Eta horiek ekartzea ez ekartzea erabaki politikoa zen.

Armak! *Yorkbrook* harekin gertatua etorri zitzaidan gogora.

–Kasua ezagutzen duzulakoan nago –esan nion bisitariari, hark agian halako ipuin zaharrik entzun nahi izango ez zuelakoan; begi keinu bat egin zidan, baietz. Hala ere azaldu beharra izan nuen.

Bouek *Canarias*ekin su eta ke ekin ziotenean izan zen hortxe aurretxoan, Matxitxako eta Billano lurmuturren artean. Armaz kargaturiko itsasontzi bat agertu zen hor. Bouetako batek –*Bizkaia* izenekoak– hura harrapatu eta Bermeon sarrarazi zuen. Armaz kargaturik zetorren. Armak! Halako pozik. Eta halako zaputzik gero. Arma haiek ez ziren baliagarriak.

–*Yorkbrook*eko armak! –esan zuen bisitariak, nire gogoetak etenaraziz; buruz aipatzen jarraitu zuen–. Han ziren milioi batzuk metrailadore kartutxo zintetan, hantxe 500 hegazkin bonba, 20tik 300 kilorakoak, hantxe 200 subfusil moderno –jotailurik eta betegailurik gabeak–, hantxe 30 milioi metrailadore kartutxo zintetan, hantxe 5.000 hegazkin bonba, 20tik 300 kilorakoak, eta hantxe beste 12 kaxa, hantxe 18na subfusilekin, ez jotailurik eta ez betegailurik ez zuten subfusilekin.

–Hantxe geratu ziren gehienak, erabili gabe, Bilboko biltegi eta bolborategietan gorderik –esan nuen, nik ere buruz bainekizkien haien kontuak–. Erabilgarriak ziren bakarrak metrailadoretarako kartutxoak izan ziren. Eta bonbak!

Han ziren bonbak, bai, baina hegazkinik ez. Eta subfusilek, jotailu eta betegailu barik, ez zuten ezertarako balio.

Eta neure hariari eutsi nion berriro.

Goizaldean minaontzi bat irten zen eta arrantzan izandako ontzi batzuk sartu ziren. Egunak laster argitu behar zuela baliaturik, nire misioaren helburua zegoen herrira jo nuen. Oinez.

Lamiaren muturrera iritsi nintzenean eguneko lehen argiak kukurruku egin zidan. Matxitxakora begiratu nuen. Han ez zegoen aleman ontzirik. Gauez alde egina zen. Eta nik makinaren zarata aditu ez? Loak hartu ninduen bost minutuetan egin zuen alde, ziur. Herriko portura zihoazen baporeei begiratu nien.

–Horietako bat *Ur-Txori* duk –esan nion nire buruari.

Herriraino ahalik eta isilen joateko errepidea albo batera utzirik zidorrez zidor ekin nion. Horrela gure kontrol postuak eta defentsa guneak aztertu ahal izan nituen. Denak hegazkinen mende zeuden. Baina ez zen hori nire helburua. Herrian neuk nahi nuen lekutik sartu nahi nuen,

batetik, eta soingainekoa, militar botak eta halakoak ezkutatu nahi nituen.

Bonba galduren batek teilatua zulaturiko borda batean sartu nintzen. Goiz berean abandonatua balitz moduan zegoen. Ikusten zen, ostera, artzain bakartiren baten borda zela; armairu bakarra zegoen, eta gizonezko janzki merke batzuk, txapel zahar bi eta abarkak baino ez. Falangeko afiliazio orria bere gordelekutik atera ondoren, soingainekoa erantzi nuen. Hori non gorde behingoan erabaki nuen; armairuaren azpian.

–Hau ere mobilizatua; eta zapata denekin joan duk gerrara –pentsatu nuen, soingainekoa armairuaren azpian gordetzen nuen artean–. Susto makala hartu behar duena. Itzultzen bada.

Armairua arropekin zegoela ikusirik inork haren azpian arroparik bilatuko ez zuelakoan egin nuen horrela. Eta kostatu zitzaidan hura altxatzea. Zorionez gurdi ardatz bat zegoen bazter batean. Hura palanka legez erabiliz egin nuen lana.

Azken momentuan botak ere hantxe gorde nituen. Gero txapeletako bat buruan probatu

nuen. Ispilurik gabe gaitza zen esatea ondo ala txarto neukan, baina janztea erabaki. Horrela, Falangeko afiliazio orria txapelaren forruaren azpian sartu nuen.

Harrezkero pistola zen eragozpen bakarra. Nire Astra bederatzi milimetroko dotorea, kirten-azala bufaloaren adarrez egina zuena. Bisitariari erakustekotan izan nintzen. Zertarako baina? Luzeegi joko zidan kutun hura nirekin zelan atxiki nuen azaltzea.

«Zilborraren parean, gerrikoan sartuta», pentsatu nuen, armairutik jaka higatu bat atera eta batera.

Neure ezkontzarako moduan nengoen. Eta horrela, herrian sartu nintzen, hegoaldeko bidetik. Ikusi nindutenek ez zidaten jaramonik egin. Herrikoak ez ziren asko baziren-eta han. Frontetik atzeguardiako lerroetara atseden egitera etorritako gudariak, Gipuzkoatik ihes egindako arrantzaleak, Gobernuaren funtzionarioak, zer ez zebilen ba kaleetan.

Zuzenean jo nuen portura. Marea behera zegoen. Agian horrexegatik tristatu zitzaidan bihotza. Edo agian han erdi hondoraturik zegoen pa-

truila-ontzia ikusteak tristatu ninduen. Faxisten hegazkin erasoaldiren batek kalteturik, hantxe zegoen gure patruila-ontzietako bat. Elbarriturik, talaiako moilari zeutson. Bestela, hantxe zeuden herriko baporeak. Beste gudontzia han egon ez balitz, arrantzaleen giroa bake denboretakoa zela esan zitekeen. Ontzien izenak begiratzeari ekin nion. Hamalau ontzi ziren han, ondo gogoan dut hori.

Baporeen izenetan euren jabeen pentsaera igartzen ahalegindu nintzen. Hiru handi zeuden, *Katalin*, *San Pedro* eta *Aintzatasuna* izenekoak. Zeruaren aldetik laguntza eskatzen zuten izenak ziren. Lege horretakoak ziren txikietako batzuk ere. *Aingeru Jagolia* izeneko bat badut gogoan. Bestela, *Emelito'ena* izenekoa ere gogoan dut. Zeruari begira bizi ez zirenek jabearen izena ipini ontziari, harro. Bestela, euskaraz ziren izen asko. Herrian gehienak jel-ekoak ziren, horra seinalea.

Halako batean nire begiek *Ur-Txori* izena antzeman zuten. Hantxe amaitu ziren nire gogoetak izenen kontura.

Ur-Txori zorionekoa. Karel artean gizon bi zeuden. Bata zahartxoa, gaztea bestea, bigarren horrexeri adi geratu nintzen.

«Argala eta hankandia: Benjamin», pentsatu nuen.

Ez zegoen dudarik. Moilan itxaron nuen. Ez luzaz. Lehorreratzekoa zela ikusi nuenean handik apur bat aldendu nintzen. Atze-atzeka segituko nion. Etxeraino.

–Nondik nora jakin zenuen Benjamin argala eta hankandia zela? –etenarazi zidan bisitariak.

–Sinbadek esanda –erantzun nion, ziur ez nengoen arren; zaharraren oroimena batzuetan argia eta bestetan iluna izaten baita.

Neure duda-mudei jaramonik egin gabe neurearen harira jarraitu nuen. Benjamin!

Etxeko eskaileretan harrapatu nuen gizon gaztea.

–A gizon! –esan nion, gurean esaten zen moduan.

Lepoa bihurtu zuen.

–Nor zara? –aztoraturik, Benjaminek.

–Etxean ala berton? –erantzun nion.

–Berton hobeto.

–Gauez hara eta hona ibiltzen haizela aditu diat. Horietako joan etorri batean neuk ere osteratxo bat egin nahiko nikek –Falangeko afiliazio orria erakutsi nion.

Eskaileretako iluntasun mehean begirada arin bat egin zion orriari. Halako batzuk ikusita zegoela dudarik ez nuen egin.

–Neuk esango dizut norekin egin behar duzun berba –eta izen bat esan zuen.

Etenaldi bat egin nuen. Konta eta konta, nekatzen hasia nintzen.

–Ez didazu izen hori esango? –bisitariak, zigarrotxo bat pizteko keinuan.

–Ez zaizu komeni hainbeste erretzea –bota nion.

Ez zidan jaramonik egin eta, tira, Benjaminek niri bota zidan izena bota nion, halakorik ez egitea erabakita nuen arren. Franco hil ondoren iraganeko kakari ez eragiteko tratua egin zuten, bai, tratuak egiteko eta erabakitzeko ahalmena zutenek. Eta ados ni orduan. Urteak igarota, berriz, beste kontu bat zen. Beraz, faxistaren izena bota nion bisitariari. Orain hemen ez dut faxista haren izena emango, ordukoan bisitariarekin isil-

tasunezko tratua hautsi banuen ere gerora izen batzuk isiltzea erabaki dut. Baina norbaitek jakin beharko zuen Mallonaren kasuan zerikusi zuzena eduki zuen faxista haren izena. Hori ezin beharko litzatekeelako ni hilda eta gero ahaztu.

–Haren eta haren neba-arreben seme-alabak bizirik dira, eta horien ondorengoak ugariak dira herrian; hain zuzen ere, ondorengo horietako batek haren izen berbera du –bota zidan bisitariak, samindura aire batez.

Ondo ezagutzen zituen hark herriko izenak eta etxeak. Ertzaina? Ez galdetzea erabaki nuen. Isiltasunezko tratua egiteko modu bat izan zela uste dut. Ez nion esan izen handiko faxista hura lehendik ezagutzen nuenik. Gerra aurreko kontuak! Lehengo hariari eutsi nion. Benjaminen hariari.

Ba, hantxe ginen Benjamin eta biok. Haren etxeko eskaileretan. Biok genekien ni zeren begira nengoen. Faxista hura non topatu jakin nahi nuen. Eta esan egingo zidan. Esku batez jaka zabaldu eta besteaz pistolaren kulata ukitu nuen.

–Txori hori ez duzu bere habian topatuko –esan zidan, faxista zela eta.

Txoria non bilatu, berak jakin behar zuen, Benjaminek, inork jakitekotan. Zehatzago hitz egin zezan itxaroten nengoela adierazteko pistolaren kirtena ukitu nuen, berriro. Bufalo adarrari eginiko laztanak Benjaminen bihotzera iritsi ziren, antza.

–Alkateak dauka non edo non gordeta –bota zidan.

–Alkateak? –nik.

–Alkateak, bai. Alejandro Mallonak. Ze faxista hori hemengo miliziano batzuk harrapatuko balute, harrapatu! –berak ere harrapatu nahi izango balu esan zuen.

Eta eskaileretan gora egin zuen. Esan zidana esan zidalarik ez zen beste ezeren beldur. Etxe barruan sartu ostean egingo zuen lehena komunera joatea izango zela, ez nuen dudarik. Falangeko afiliazio orria txapelaren forruaren barruan gorde eta nire benetako beste orria jakan neramala ziurtatu nuen. Udaletxera joateko ordua zen. Mallonari bisita egiteko. Sinbadek izena belarrira esan zidan beste hura ere topatu beharko nuela ahaztu gabe.

–4–

Udaletxean sartzean zirrara berezia sentitu nuen. Eta ez zen balkoian eskegita zeuden banderengatik izan. Etxearen beraren eragina ote zen? Handia zen, eta handia izaten segitzen du, hantxe baitago, bere betiko lekuan, eliza bere lekuan dagoen moduan. Baina ez zen horregatik izan.

Zirrara –erabaki nuen–, etxea noren izerdiaz eta odolaz egina zen banekielako sentitu nuen. Kolonietan eta nabigazioetan irabazitako diruez egina zen harrizko etxe itzel hura. Sarrera nagusiko zurezko atea, harrera-leku zabaleko eskailerak, sabaiko argia, dena zen handiustekoa. Eta dena Liverpool eta Manila artean jardun izan zuten *ongileei esker egina*. Hantxe zeuden ongileen arteko ongile nagusien izenak; batzarretarako sala nagusian. Alboko txikiago batean hartu ninduen Mallona alkateak.

Alejandro Mallona Iza ostera gizon apala zen. Eta iritzietan sendoa. Ez zekien fusilatua izateko denbora tartetxo bat falta zuela, ez besterik.

Bere lan gelan hartu ninduen, gizalegez. Urteetan kapitain ibilitakoa zen hura, eta itsasoak ematen dakien dotoretasun aire horixe zeukan.

Nire bisitaldia itxaroten zuela esan zitekeen. Eta nire bisitaldia ez bazen ere, antzeko zerbait. Eskuaz jesartzeko keinua egin zidan, keinuari bere begi bakarraz lagunduz. Eskuineko begiaz, hain zuzen. Hala egitean balkoian eskegita zen ikurrinaren itzala nabaritu nuen. Errepublikaren bandera balkoiko beste aldean zegoen. Nire gogoetez ohartu zela eman zidan.

–Errepublikaren bandera ere eskegi duzue –esan nion, itzalari begiratuz, nire identitate orria mahai gainean uzten nuen aldi berean.

–Horretara etorri zara? Bandera bat kenaraztera edo eskegiaraztera? Nigatik balitz hor bandera bakarra legoke.

Ez nuen haserre zedin nahi. Eta ez nion erantzun. Ziriari sakatzearren bota nion banderarena. Ea nik ziriari sakatzean berak ai ene! ala ene bada! esaten zuen. *Aienetarra* ala *enebadatarra* ote zen jakitea, informazioa zen hori ere. Eta informazioa, ezdeusena ere, inoiz ez da jakiten noiz bihur daitekeen erabilgarri.

Dena dela, nire iritzia esan niezaiokeen; azkenean gerra haren ostean bandera nagusi bakarra geratuko zela esan niezaiokeen, eta bandera bakar hori ikurrina izatea gaitz ikusten nuela.

–Herrian anarkistak eta komunistak badira –esan zuen–. Eta sozialistak ere bai. Asko ontzietan Gipuzkoatik erretiradan etorritakoak. Eta herrikoak ere batzuk –duda egin zuen–. Bakoitzak bere lekuan bere bandera ipintzen du, baina hemen, legezko biak.

Sozialistak aipatzean begia nork kendu zion etorri zitzaidan gogora; sozialista batek, hain zuzen.

Bermeora egindako ibilaldi politiko batetik bueltan izan zela didate kontatua. Ez zehatzegi, ostera. Ibiltariak herrian sartzean istiluren bat izan omen zen, eta Mallona jauna tartean sartu. Tiro batek ezkerreko begia eraman zion. Orduan alkatetzatik kenduta zegoen.

Pasadizo horiekin gogoratzean 1931n Gernikan Euzkadiko Errepublika sortzearen alde agertu zen gizona ikusi nuen. Egun hura imajinatu nahi izan nuen, Mallonak mahaiaren gainean

zeukan argazkiari begira. Han zegoen Agirre Lehendakaria, Gernikako Arbolaren itzalpean zin egin zuen egunean. Mallona hura lehendakari izendatu zuen mahaiko kide egon zen. Horman eskegita Lehendakariaren argazki ofiziala zuen. Eta gurutzea.

«Santu-jale hauekin ba ote goaz inora?», esan nuen nire artean.

Gernikan 1936ko urrian gertatuak etorri zitzaizkidan. Estatutua Madrilen onartuta, Euzkadiko Jaurlaritza sortu zen. Berandu estatutua eta berandu gobernua, gu beti berandu. Ihes egiteko herriko itsasertza baliatzen zuten faxisten kasuan ere berandu ote genbiltzan nengoen.

–Zein da dakarzun errekadua –bota zidan Mallonak.

–Tentu handiz ibili beharreko kontua –esan nion–. Nik baino hobeto dakizunez, faxistek hemengo itsasertza erabiltzen dute beste aldera ihes egiteko.

–Eta? Ez da ba gure Jaurlaritzaren on iritziaz egiten? Gainera faxista berba hori ez dut gogoko. Eskuindarrak dira, gure iritzien bestelakoak dituztenak, baina fede oneko jendeak.

Halaxe zen, bai. Eskuindar katolikoei –fede onekoei, Mallonak esan zidan moduan– Euzkadi uzteko bidea errazten zitzaien. Matxitxako eta Ogoño artera lantzean aleman ontziren bat agertzen zen. Orduan Benjaminek, edo besteren batek batzuetan, ontzira eroaten zituen fede oneko faxista zerri haiek. Eta egiten uzten zitzaion. Alemania neutrala omen zen eta!

–Gernikakoa gertatu gabe zegoen –eten zidan bisitariak.

–Nire kontaerari aurrea hartzen ari zara –esan nion–. Utzi neure moduan azaltzen.

Bada, eragozpenak ez zeuden aleman barku haietara iheslariak eramatearen edo ez eramatearen kontuan.

–Eragozpenak fede onekoak ez diren horiekin daude –bota nion Mallonari–. Ezagutzen duzu Wakoningen kasua, ezta? Fede oneko gizona, txoritxo errugabea, eta diplomatikoa gainera. Alabetako bat euskaldun batekin, orain Ertzaintzaren burua den horrexekin ezkondurik zuela ahaztu barik. Hemendik legez ihes egiten utzi zitzaion, fede onean. Eta zer zeraman luma artean

txoritxoak? Gure defentsen sistema osoaren informazioa zeraman. Fusilatu beharra egon zen.

–Fusilamenduak! Gehiegikeriak! –Mallonak bihotza estura batean zuen.

Ziur naiz une hartan Mallonari gogora etorri, *Cabo Quilates* eta *Altuna-Mendi* presondegi-ontzietako jazoerak etorri zitzaizkiona.

Gerra hastean herrian ziren hogeitaka faxista Bilbora bidaltzeko agindua hartu zuen alkateak. Berak agindua bete baino ez zuen egin. Gero haietako batzuk *Quilates* eta *Altuna-Mendi* izeneko ontzietara eraman zituzten, preso. Eta halako batean haietan anarkistak sartu eta heriotza batzuk eragin zituzten. Tamalgarria? Gerraren lege ziztrina.

Herrikorik ez zuten ontzietan hil, baina haren ostean Alejandro Mallona gerra beste modu batera ikusten hasi zelakoan nago. Gerra aurreko urteetan *Cabo Quilates* ontzia Ybarra konpainiakoa izan zen eta, hara, adurrak nahi izan zuen Ybarra familiako batzuk hantxe preso egon izana. Bilbon zibilen artean hegazkin faxistek sarraskia eragin ondoren izan zen hura. Haren mendekua hartu zutenek bazekiten nor ziren

ybarratarrak. Faxisten altxamendua finantzatu zutenetakok. *Quilates*en mendeku kolpea jo zutenek izen eta guzti deitu zituzten ybarratarrak, sototik gora igotzeko. Bost akabatu zituzten han, eta beste bi *Altuna-Mendi* kartzela-ontzian. 1936ko irailaren 29an izan zen.

Mallonari mendeku hark min ikaragarri eman behar izan zion. Kapitain ibilitakoa, ontziak ondo ezagutzen zituelakoan nago. Gainera, bere alderdian ere baziren ybarratarren sokako batzuk. *Quilates*en eta *Altuna-Mendi*n isuri zen odolaren usainean etxeko zerbait antzemango zuen. Gertukoa. Eta horren legera jokatzen hasi zen.

Azaroan Herriko Defentsa Batzordea osatu zen, eta berari zegokion haren buru izatea. Uko egin zion. Gibeleko gaitz zahar baten aitzakiaz kargu hura bere gain hartzeko gai ez zela argudiatuz. Harrezkero batzuek begipean zuten. Komunistek batez ere. Azken batean eskuindarra zelakoan.

–Gerran gaude, alkate jauna. Eta gerra egiteko modu bakarra dago: hil ezazu, hil zaitzaten baino lehen.

Kanpoan ikurrina haizearen mende zebilela igarri nuen. Tiro hots bat aditu zen. Hots laburra eta sakona izan zen. Bala hotsa.

–Bateon bati tiro batek ihes egin dio –esan zuen, ohituta zegoenaren doinuaz.

Bihotza behintzat bere lekuan zuen. Eta beharko. Gernikako 1931ko haren ostean Madrilgo Gobernuak alkatetza kendu zion, eta ordeko bat jarri. Gero, 1936ko otsaileko bozetan herriaren gehiengoak berriro alkate hautatu zuen. Bitartean begiarena gertatu zen. Tenplea bazuen gizonak.

–Erradikalak –esaten zuen beti, ezkerreko begia kendu ziotenengatik.

Eta orduan ere horrelaxe esan zuen.

–Erradikalen batzuk. Eskuartean ditugun zereginak ditugula, geure artean tiroka!

Zuzen zioen. Herria atzeguardiako leku garrantzitsua zen. Oso garrantzitsua, orain esaten den moduan. Frontetik atseden bila zetozen gudariek eta milizianoek etxeak betetzen zituzten. Etxekoek behearen gainean lo egiten zuten artean horiek oheetan egiten zuten lo. Loak hartzen zituenek behinik behin. Batzuk behin lo egin

eta biharamunean betiko loak hartzen zituen. Lubakietan. Baina erradikalen harira nindoan.

–Ba hemen baduzue erradikal bat. Arrain ederra, baina gonbixa baino gaiztoagoa –bota nion.

Bazekien noren kontura niharduen. Gonbixaren izen zientifikoaz gogoratu nahi izan nuen, eta ezin.

–Katolikoa, zintzoa eta etxekoen zalea da. Hori erradikala izatea bada, Jesus Maria eta Jose! –esan zuen.

–Amen –esan nion, eta orduantxe etorri zitzaidalarik gonbixaren izen zientifikoa: escorpaenidae familiakoa da–. Katolikoa denetz ateoa denetz, hor konpon. Hemen ardura duena zera da: fede onekoak ez diren faxistak irteten uzten badituzue ba, zera –eten egin nuen–, babespean duzun beste txori hori entregatu egin beharko diguzula. Eta badakigu hori ez dena babesturik duzun bakarra. Besterik ere baduzu, badakigu, bai, baina esan didazun horixe da inportanteena.

Artean ez nekien Mallonak babesturik zituenak nor ziren. Beraz, ez nuen ulertu bere orduko erreakzioa. Begira geratu zitzaidan. Mutu. Be-

giak aldendu nituen, eta Agirreren argazkiari begiratu nion.

–Denak dira jende zintzoak, fededunak, familia onekoak. Neure kontura horiek okerrik ez egitea –esan zuen, irmotasunez.

–Eskarmentu ederra eman behar diegu deabruoi. Badakizu ihes egindako fede oneko horiek zer egiten duten behin ospa egindakoan? Beste aldera pasatu, eta gazteak direnak frontera joan, eta zaharragoek beren diruak faxisten alde eman, eta beste barrabaskeria batzuk egin. Beraz, hemendik aurrera amaitu da edonori gauez alde egiten uztea.

Nire burua izerditan nabaritu nuen. Izerdi perlatxoak nituen. Perlatxo mingarriak. Larruko poroetan leku egitean zizt egiten dizuten horietakoak. Mallona ez nuen bere jarreratik mugiaraziko. Hobe dena ondo joango balitz. Hobe faxista tzarren batek herriko itsasertza eta munduko gaua erabiliz ihes egingo ez balu. Hobe denontzat Gure Gizonak, Sinbadek izena belarrira esan zidan hark, informe negatiborik pasatuko ez baligu.

Ze, bai, artean ikusi gabe neukan gizon harexek jakinarazten zigun faxisten ihes baimenduen berri. Eta huraxe topatu behar nuen. Baina lehenago Mallonari esan beharreko dena esan behar nion.

–Gure gizonetako bat arduratuko da. Herritik ihes egin nahi duten denen izenak eta datuak batuko ditu –bota nion–. Herrian faxistatzat duzuela uste dut.

Bere begi bakarraz Mallonak behetik gora aztertu ninduen. Eta isilunea. Orduan kafea zekarren mutiltxo bat sartu zen. Kikara bi erretilu batean. Norbaitek ni han sartzen ikusi eta kafea hartu nahi nuela erabaki zuen. Udaletxeko beharginak ondo hezita zituen. Eskertu nion.

–Izena behar duzu? –galde egin nion–. Goxoa kafe hau.

–Ez da beharrezkoa –eta berak bota zidan Gure Gizonaren izena.

–Ikusten dut lo behintzat ez zaudetela.

Begiak ondo zabalik zituztela esateko izan nintzen. Zorionez beste hori esan nion. Eta orduan berak luzatu zuen galdera.

–Nondik nora jakin duzu eskuindar horri *ere* babesa eman diodana? –*ere* berba nabarmenduz esan zuen.

–*Ur-Txori*ko marinel batek esan dit. Benjamin izenekoak. Ni neu beste faxista bat naizelakoan dago. Eta uste horretan segi dezan komeni da. *Ur-Txori*ra ihes egin guran datozen denen izenak Gure Gizonari emateko aginduko diot.

–Beteko ote du agindua? –galde egin zidan.

–Komeni zaio –esan nion, zutitzen nintzen artean pistola erakutsiz–. Eskerrik asko kafeagatik.

–Ez dago eskerrik! –zutitu egin zen bera ere, eta bostekoa eman.

Gizon zintzoa zen Mallona. Bostekoa estutu zidan moduan igarri nion. Tamalgarria bestetik hain inozoa eta santu-jalea izatea. Kalera egin nuen.

–Eskaileretan behera nindoala kafea ekarri zuen mutila ikusi nuen.

–Etaaa! –esan zidan, Bizkaiko itsasertzekoek duten modu airos horretan.

Berdin erantzun nion, barruan nuena esan gabe.

«Hau behintzat ez dute mobilizatu», nire artean esan nuen.

Herriko plaza zapaltzean lepoa bihurtu nuen, gora begiratzeko. Hantxe zeuden bandera biak. Eta bietan kolore gorria egin zitzaidan nabarmen.

«Odolaren deiadarra», pentsatu nuen.

Eta Gure Gizona bilatzeari ekin nion.

–5–

Udaletxetik irten nintzenerako eguerdia zen kasik. Bilatzen nuen gizonak kalean behar zuen ordu hartan. Eliza aldera egin nuen.

Elizaren ondoko talaiatik ingurua ezin hobeto menderatzen zen. Marea erdia zegoen, olatu ederrekin. Begiekin haien aparrari jarraitu nien, errioaz beste alderaino. Faxisten erasoaldia handik itxaroten zen, Gipuzkoa aldea galtzen ari ginen eta. Ez nuen hara luzaz begiratzeko kemenik izan. Elizaren atzealdeko palmondoari erreparatu nion.

–Palmondoak-eta, indianoen eragina –esan zidan bisitariak–. Laster utzi beharko zaitut. Beste batera arte.

–Bai –erantzun nion. Eta neureari ekin nion.

Elizako atzera hurreratu nintzen. Ez lar, badaezpada ere. Talaia eta elizatzea bitan banatzen zituen landarezko hesitik bi metrora geratu nintzen. Ezer egiten ez nuelakoan, hesiaz beste aldekoa igartzen ahalegindu nintzen.

Palmondoaren oinean metrailadore postua zegoen. Hantxe ziren Akzioko hiru gizon, zigarroak erretzen eta elkarri ziria sartzen. Balak beste aldera ailegatuko ote ziren ez ote ziren ailegatuko, horrexetan ziharduten. Ardura zuena, ostera, errioa bera jagon ahal izatea zen. Gauez batez ere. Komando ausart batek itsasadarra igaro eta herrian sartzeko ahalegina egin zezakeen.

Barreak eta ziriak gorabehera, metrailadorearen ingurukoak adi zeuden.

–Nor dabil hor? –altua jo zidaten, eta hesiaz beste aldetik kaskodun buru bat agertu zen.

–Laguna –erantzun nion, identitate orria erakusteko keinua eginez.

Une batez begira geratu zitzaidan. Altua jo izanak lasaitu egin ninduen. Mutilak adi zeuden. Ibiltzeari ekin nion.

Begiak errioan gora luzatu nituen. Han zegoen Oiz mendia, eta eskuinetara, haren lepo gainean bezala, Anboto.

«Zeinetan zaude gaur, Anbotoko Dama?», nire buruarekin ari nintzen.

Anbotoko Dama batzuetan Oizen eta bestetan Anboton izaten zela zioen ipuina etorri zitzai-

dan.. Kobazulo bana omen du horietan Damak, eta eguraldiaren arabera batean edo bestean egoten omen da. Eta guk etxerik ez kasik. Mallonaren bulegoko gurutzearekin gogoratu nintzen. Beharko genuen haren babesa, bai. Edo Damarena bestela. Hondartza aldera jo nuen.

Bidean, udaletxeko kanpaia eguerdiko hamabiak jotzen hasi zen. Kasik aldi berean elizako kanpaiek jo zuten.

«Angelusa», pentsatu nuen.

Paseoan zebiltzan emakume batzuk belaunikatu egin ziren. Geldi geratu nintzen, itxura batean errespetuz, baina ingurua lasaitasunez aztertzeko baliatuz. Eta hantxe ikusi nuen Gure Gizona, Zubia deritzen lekuan. Jesarrita, egunkaria irakurtzen ziharduen.

Angelusaren kanpaiak eta udaletxekoak isildu zirenean harengana hurreratu nintzen.

–Ezer interesgarririk? –galde egin nion parera ailegatzean, ibiltzeari utzi gabe.

–Zaharrak berri! –erantzun zidan.

–Eta berriak zahar –erantzun nion.

Orria erakusteko keinua egin nion. Orduan hark egunkaria bildu, zutitu eta ibiltzeari ekin

zion. Herrirantz. Hiru lau pausotako aldea gordez jarraitu nion.

Atzetik begiratuta aurrez aurre begiratzean baino zaharrago eman zidan. Ibileran nabaritzen zitzaion nekeagatik beharbada. Berrogei bat urte bota nion. Eta ezkongabea zela pentsatu nuen, ez baitzuen eraztunik, egunkaria irakurtzen ari zela ohartu nintzenez.

Halaxe, gizonari buruzko nire kalkuluak eginez, gogoa Sinbadengana joan zitzaidan. Hark belarrira esan zidan kontrazeinua baliozkoa izan zen. Komunikaziokoak lan ona egiten ari ziren.

Eta horrela gindoazela gertatu zen. Ordurako Goiko Kalean ginen.

Emakumezko gazte batek aldarrika ekin zion Gure Gizonari.

–Faxista zerrikumea! –zioen bigunena zen.

Gure Gizonak aurrera egin zuen. Ni, badaezpada ere, hegalez aldatu nintzen. Beste aldera egin nuen. Emakume gazteari beste emakume batzuk bildu zitzaizkion. Gizonak egunkaria airean astindu zuen, euliak uxatzen balego moduan.

–Hara berau! Euliak garela uste din, andreok! –zioen emakume gazteak.

Gizonak bere bideari eutsi zion. Harik eta seko jausi zen arte. Nondik etorri zen ez dakidan harri batek lepoan jo zion. Gizonarengana egin nuen.

Pauso bitan ailegatu nintzen beste hegalera. Emakume gazteari eskumuturretik eusteko sasoiz. Baina tamalez txapela behera jausi zitzaidan.

Txapela behean ikustean nire lehenengo keinua hura batzekoa izan zen. Eta horretarakoxe luzatu nuen eskua. Baina beste emakumezko batek ostikada jo zion eta airean joan zen txapela. Gure Gizona han behean eta txapela airean, zirt edo zart egin behar nuen.

«Forruaren azpian daroan dokumentua ikusten badute, galduta hago!», pentsatu nuen. Eskua luzatu nuen. Baina baita zaratek hara deituta bildu zen jendetzaren arteko beste esku batek ere. Esku horrexek harrapatu zuen txapela. Zorionez, eskua luzatzeko nire keinuan gerrikoa agirian geratu zitzaidan. Ez luzaz, laster itxi bainuen, baina bai pistolaren kulata hantxe ze-

goela erakusteko adina. Txapela eskuan zuena elbarriturik bezala geratu zen. Hamar-hamaika urteko umekondoa zen.

–Txapela! –agindu nion.

Airean bota zidan. Eta txapela airean zihoala falangeko afiliazio orriak bere askatasuna bilatu zuen. Harrezkero txori bi ziren hegan: txapela eta papera.

Txapelari berehala eutsi nion. Baina orriak beste jolas batzuk egin nahi izan zituen. Jendearen barreen artean. Horretara behintzat gizona, Gure Gizona, une batez baketan utzia zuten. Zutik berriro, odolik ez zeriola ikusi nuen. Harrikadaren kolpea zuen, ez besterik. Orri madarikatua zen ardura zuena. Eta orriak ez zuen behera egin nahi. Harik eta esku batek harrapatu zuen arte. Foral baten eskua zen.

–Geldi! –aldarri egin nion, eskumuturreko galoietan igarri bainion graduazioa.

Begietara begiratu nion. Eskua airean geldi geratu zitzaion. Eta orria harrapatu izan ez balu baino okerrago ote zen pentsatu nuen. Manda batera behintzat.

Une hura ez zitzaidan sekula ahaztuko. Orriaren ertz bat denek ikusteko moduan geratu zen. Balkoian eskegitako izara baino argiago ikusten zen hangoa. Falangeren irudia!

Orria foralaren eskuan eta herritarren begiak orriari begira, bertan akabatuko nindutela eman zidan.

–Beste faxista madarikatu bat! –ozen esan zuen norbaitek.

Zaratak biziagotu egin ziren. Esku batek lepotik oratu zidan. Kolpe batez aldenarazi nuen.

–Geldi denok –agindu zuten orduan, eta ixtailuen hotsa aditu zen. Han ziren beste bi foral, iskiluak prest–. Arrain pare hau gurea da. Goazen!

–Ezagutu egiten zenuen orria harrapatu zuen forala? –galde egin zidan bisitariak.

–Entzun, eta laster jakingo duzu –bisitariari hantxe joan zitzaion presa.

Hiru foralek babesturik kuartelerainoko ehun metroak egin genituen. Bidean esan zizkiguten bigunenak zer nondik sartuko ziguten eta nondik eskegiko gintuzten izan ziren.

–Salbatuak zineten –esan zuen bisitariak, berriro presa adierazten zuen keinu batez.

–Nire aldarriak, geldi! esateko nire moduak zerbait pentsarazi zion foralari, bai. Orduan konturatu zen nik bera lehendik ezagutzen nuena –erantzun nion bisitariari.

Kuartelean berriz kasik dena argitu zen. Niri neuri argitzea komeni zitzaidana behintzat. Hain zuzen ere, falangeren afiliazio orria isileko nire zereginek agindurik neramala eta inork ez zuela horren berri izan behar, eta Zerbitzuetakoa nintzela. Azken hori esatean orria eskuetan hartu zuen foralari zuzendu nintzaion.

–Ezta, Pako? –bota nion.

Bisitaria jakin minak erreta zegoen.

–Nondik nora ezagutzen zenuen Pako hura?

–*Cabo Quilates* kartzela-ontziko egunetatik. Odolezko egun haietatik.

Isilik geratu ginen. Orduan zigarro bat isiotu zuen.

Oso oker ez banago iraganera egin zuen bion gogoak. Bisitariak dokumentuen bidez ezagutu behar zituen gertaerak. Nik aldiz bizi izan nituelako. Oroimenak berriro gerrako lehen hileetara, 1936ko udara egin zidan. Uda sargoritsua izan

zen, nolabait esan. Eguzkiaren beroari armen suak beste gradu batzuk gehitu zizkion.

Afrikako militar oilartu batzuk eta Iruñeko komandante-buru Mola jeneral faxistak Errepublikaren kontra jo zuten. Eskuindarren laguntzaz, gerra hiru eguneko kontua izango zelakoan. Baina bai zera hiru egun. Bazter batzuetan hiru urte izan ziren. Ez gurean, baina bazter batzuetan bai. Eta luzeagoa izango zen, matxinatuek Hitlerren eta Mussoliniren laguntza izan ez balute.

Hain zuzen ere, *Cabo Quilates*, *Altuna-Mendi* eta beste kartzela-ontzien kasuek Hitlerren hegazkinekin zerikusi zuzena izan zuten.

–Eta alkoholarekin –moztu zidan bisitariak, erlojuari begiratzen ziola.

–Bo, hori azken unean, pertsona jakin batzuk akabatzeko erabakia eginda zegoela –eten nion, lehenago esana niona gogoan–. Baina ez ahaztu uda hartan milaka faxista hartu genituela preso Bizkaian, tartean herriko batzuk –gogora Mallonarekin izandako elkarrizketa etorri zitzaidan– eta kartzeletan lekurik ez zegoenez, ba ontzietan atxiloturik eduki beharra egon zen. Bilbo

hain gupidagabe bonbardatu izan ez balute –jazoerei justifikazioa eman nahiz esan nion.

Bisitariak isilik segitu zuen. Nik bezain ondo zekien gertatua. Han hasiko ote ginen hura berriro gogora ekartzen?

–Faxistek beren aldeko presoen sarraskia ekiditeko modua eduki zuten –esan nion–. Kartzelaontzietako lehenengo asaltoa irailaren 25ean izan zen. Faxisten bonbardaketa baten ostean. CNTko milizianoek barku haietako bat hartu zuten, mendeku bila. *Altuna-Mendi* zen.

–Eta? –aurrera egin nezan galdetu zidan.

–Hala ere faxistek airez gupida barik bonbardatzen segitu zuten. Handik lau egunera Bilbon sarraski itzela eragin zuten. Eta orduan *Cabo Quilates*eko presoei etorri zitzaien txanda. Horretan herriko forala tartekoa izan zen.

–Jendea akabatzen? –galde egin zidan.

–Ez –erantzun nion–. Guardian. Abran *Jaime I* gudontzia zegoen. Marinelak asturiar anarkistak ziren. *Quilates*eko guardien gainetik pasatu ziren. Edanda zeudela? Eta nor ez egun haietan eta halako egoeretan?

–Eta zer gertatu zen zurekin foralen kuartelean? –bisitariak hariari eusten lagundu zidan.

–Nirea argiturik, foralen buruak Gure Gizona hango ziega batean sartu nahi izan zuen.

–Zergatik? Nik ez dut-eta ezer egin –protesta egin zuen gizonak, begien keinu batez laguntza eskatzen zidan aldi berean.

Foralei ez nien esan kaleko emakume hark gizonari aldarri egin zionean hura eta biok elkarrekin gentozenik. Ez zitzaidan komeni.

–Utzidazue hau nire modura konpontzen –esan nien–. Gizon hau eta biok esan duzuen zulo horretara joango gara. Bost minutuz. Gero hau askatu egingo duzue.

Nire agindua bete zuten. Zulo ziztrin batean sartu gintuzten. Bost minutu baino gutxiago behar izan nuen Gure Gizonari agindu zehatzak emateko. Gero libre utzi zuten. Ni berriz hantxe geratu nintzen. Gauera arte.

–Zein agindu eman zenion gizonari? –bisitaria ipuinaren azkena jakiteko minez zegoen; presa zuen.

«Bazkalordua! Harra egin zaio horri hor barruan», pentsatu nuen, baina ez nion esan. Eta

berak eskatu bezala, ipuinaren amaiera kontatzeari ekin nion.

–Herrian faxista zela pentsatzen segi zezaten komeni zela esan nion Gure Gizonari. Horretara *Ur-Txori*ra nahiz beste edozein ontzitara enbarkatzen ziren eskuindarren izenak jakin ahal izango zituelako. Eta izenok Zerbitzuari zelan jakinarazi ere azaldu nion. Zertarako behar genituen ez nion esan. Nik neuk ere ez nekien eta.

Azalpen horren ostean bisitaria zutitu egin zen.

–Eta honek zerikusia du Mallonaren kasuarekin? –galde egin zidan, burua galduta edo neukala adierazi nahi zuen hasperen batez.

–Zerikusi zuzena –erantzun nion–. Eta urrearen gorabehera harekin ere badu zerikusirik.

–Biribuelta gehiegi –esan zidan bisitariak.

–Beharbada bai, beharbada ez –erantzun nion–. Baina niri gogoak halaxe kontatzea ematen dit.

–Laster arte –esan zuen.

Ez nion erantzun. Atera lagundu nion. Zerbait jateko ordua zen niretzat ere. Leihoaren alboan jogurt xume bati ekin nion, gau hartakoak gogo-

ratuz. Han urrunean Donibane Lohizuneko portu-
ko kanpoaldea ikusten nuen artean.

–6–

Foralen kuarteletik irten nintzenean iluntzen ari zen. Kanpoan auto bat neukan, motorra piztuta, neure begira. Eta herritar batzuk ere bai. Nirekin zer egingo zuten jakin nahirik zeuden han.

–Bilbora daroagu –esan zien Pakok.

Ikusten zen herrian bazela norbait Pako hura. Horregatik edo, hara bilduek ez zidaten kolpeka eraso. Faxista, hiltzaile eta antzeko beste laztankeria batzuk esanda baketan geratu ziren. Bitartean autoko atzeko jesarlekuan sartzeko keinua egin zidan. Eta halaxe egin nuen. Bera berriz aurrean sartu zen.

Ate biak itxi eta orduan ohartu nintzen txoferra nor zen. Herrira ekarri ninduen gaztea.

–Epa –esan nion.

Jesarlekuan, *Eguna* egunkariaren ale batzuk eta *Gudari* aldizkariaren ale bat hantxe zeudela ohartu nintzen. Mutila zein alderditakoa ote zen igartzen saiatu nintzen. Jagi-Jagikoa akaso. Tira, etorrerakoan Akziokoa eman zidan eta, auskalo.

–Jauna! –begirunez esan zidan, motorra abiarazten zuen aldi berean.

Gudari aldizkariaren alea hartu nuen. Orrialde batzuk zentsuraturik ziren.

«Honetan ere erradikalak, Mallona jauna», esan nuen nire artean.

Ezerk ardura ez balit moduan ekin nion aldizkariari. Erdiko orrialdean erreportaje polita zekarren. Frantses aldizkari batetik hartua zen. Hura ikustean gogoak gerrako lehen udagoienera egin zidan hegan. Berriatuako Alipasolo baserri etxera, hain zuzen. Hantxe zeuden, *Gudari*n!, han egin ziren fronteko mezaren argazkiak.

Gerra denboran ezagutu nituen argazkilariak etorri zitzaizkidan; komunistazaleak omen ziren.

Eta bazen, gero! Gure aldean katolikorik ere bazela erakustearren egin zen meza hura.

Gogoan nuen Txori-Erri batailoiko ofizial denak bildu genituela ikurrinaren hegalpean, Alipasolo baserriko atartearen aurrean. Handik ehun metrora elizatxo polita egon arren. Mezak baserrian behar zuen, kanpainakoa zela erakustearren.

Elizatxoan nahikoa lan izan nuen bestela ere. Hura aterpetxe egina zuten anarkistek eta komunistek. Santuen errespetu osoarekin, egia esan. Haien irudiak ez zituzten beren lekuetatik kendu, baina bai hormari begira jarri. Santuak beren lehengo moduan jar zitzaten ez ezik, ofizialak mezatara etor zitezen ere konbentzitu behar izan genituen. Auzoko neskak konbentzitzeko ez genuen ezer egin behar, ostera! Hantxe ziren neskok, argazkietan. Bat, Mari izeneko hamalau urtekoa, bala galdu batek eroan zuela jakin nuen handik denbora batera.

–Arranoa! –hasperen batean irten zitzaidan–. Gerra madarikatu hau!

Txoferrak begi ertzaz zaintzen ninduela ohartu nintzen. Bertan utzi nuen aldizkaria. Ez nuen ernegurik nahi. Baina bai zera, ernegua! Alde egiteko prest ginela bihotzak kolkora egin zidan. Herritarren arteko bat ezagutu nuen. Han zen *Gipuzkoa* bouko marinel bulartsuetakoa bat, kaboa bera; Juan de Dios Telletxea. Sendaturik ematen zuen, edo akaso iluntasunak ez zidan haren zauriak ikusten utzi. Ez ninduen ezagutu, eta astirik

ere ez horretarako. Autoa zarata susmagarriak eginez abiatu zen.

Herritik irten arteko tartea isilean egin genuen. Baina behin bide zabalera iritsita autoa geldiarazi nuen.

–Aurreko jesarlekuan joan nahi diat –esan nion txoferrari–. Eta zuk –Pakori– hobe zenuke etxera itzuliko bazina. Herritarren oharkabean, jakina. Astia baduzunez, nire jantzi ofizialak non gorde ditudan esango dizut, egunak argitu orduko batu ditzazun.

Eta hantxe utzi genuen Pako. Gizajoa. Haren egunen amaiera laster izango zela nonbaiten idatzita zegoen. Baina orain ez dut hori gogora ekarri nahi.

–Zein bide hartuko dugu? –galde egin nion txoferrari, autoa berriro abian zela–. Kostakoa ala barrukoa?

–Kostako bidea hartzeko esan didate.

–Nork?

–Duñabeitia jaunak.

–Sinbadek? –zirikatuz, nola erantzuten zuen jakin nahirik.

–Ez nintzateke nagusi bati horrela esaten ausartuko, jauna. Plentzian itxarongo zaituela esan dit, ez besterik.

–Berak agindu dik etortzeko? Ikusten dudan legez telegrafoak lan ederra egin dik arratsaldean.

Orduan atzeko jesarlekuan *Gudari* alearekin batera ikusi nituen *Eguna* haiekin akordatu nintzen, eta ziria sartu nahi izan nion.

–Telegrafoa ala atzizkina esaten da? –bota nion.

–Berorrek nahi duen legez, jauna –esan zidan.

Zerbitzurako mutil jatorra izan zitekeela pentsatu nuen.

–Gogoan du berorrek atzoko orri-bonbardaketa? Ba gero benetakoa etorri zen.

Hizpidea eman nahi izan zidan, eta onartu egin nion. Bidean honetaz eta hartaz jardun genuen, gehienbat tarteka ikusten genituen jendeei lar ez erreparatzeko.

–Atzo bidean baten bat hartu huen, ala? –galdetu nion halako batean.

–Bilborako bidean zihoazen neska batzuk, jauna –lotsatu egin zen.

–Eta? –nik, begirada aberats gizenen bati kenduriko 1935eko Citroën 11CV dotore haren larru ilunezko eserlekuetan.

–Zer esan nahi du berorrek, jauna? –galde eginez erantzun zidan, lotsaz gorriturik.

Ez nion ekin. Zerbitzuetan lan egiteko zintzoegia zela erabaki nuen. Eta halaxe esan nion Sinbadi behin Plentziara iritsita.

–Mutil hori, txoferra, zera –ez nekien nola galdetu, eta zuzen jo nuen–, zein partidutakoa da?

Kasinoko atean geunden, artean barruan sartu gabe. Mutila autoaren alboan zegoen, ostera.

–Badiola? Komunista –esan zidan belarrira.

Begirada hartan keinuren bat egin zion, antza, mutila autoan sartu baitzen.

–Ez zidak halakorik eman, irakurtzen dituenengatik behinik behin.

–Periodikoek zer esaten duten jakitea beti duk komenigarria. Batez ere Zerbitzuan diharduen batentzat –erantzun zidan–. Zer moduz zereginak?

Azaldu beharrekoak labur azaldu nizkion. Ez nintzen Mallonaz fio. Beraz, enbarkatu guran izan zitezkeen eskuindarren izenak Gure Gizonak batuko zituen eta kriptografiaturik helaraziko zizkigun.

–Betiko moduan –esan zuen Sinbadek.

Mallonaz zer zela eta ez nintzen fidatzen galdetu gura izan zidala eta galdetzekotan izan zela uste dut. Baina ez zuen hala egin. Beharbada erantzuna bazekielako; Mallona ez zen inori kalterik egiteko prest. Are gutxiago balizko hori katoliko zintzoa izanez gero. *Quilates* eta *Altuna-Mendi* ontzietan izan ziren sarraskien akordua bizirik zuen. Eta hil arte izango zuela esan zitekeen, orduan hura nola eta zergatik hilko zuten jakin izan balitz behinik behin.

–Sartu baino lehen gauzatxo bat –eten zidan Sinbadek–. Gonbidatuak ditiagu.

–Inportanteak? –galdetu nion.

–Guztiz –misteriotsu erantzun zidan, irri aire batez.

Autoak alde egin zuen eta guk orduan barrura egin genuen. Nik zuzenean komunera jo nuen. Pistola gerrikoaren atzealdean ipintzera, besteak

beste. Handik bueltan jabetu nintzen Kasinoko panorama harrigarriaz.

Kasinoan jazbana zegoen, eta musika leun batek airea edertzen zuen. Halako moduan non bikote batzuek dantzan ziharduten. Beste batzuk mahaietan ziren, edanean, jolasean eta, nork daki, aukeraren zain. Sartu ginenez geroztik Sinbadek ez zien begia kentzen. Neskei, esan nahi nuen. Mahaira egin genuen.

Mahaian zegoen gure konpainia. Kazetari bi eta poeta bat ziren. Ardo zuria eta tabakoa ahaztu gabe. Poeta lehendik ezagutzen nuen. Lauaxeta. Berak egin zituen derrigorrezko aurkezpenak.

–Noel Monks –esan zuen–, kazetaria, naziotasunez australiarra.

Gogoz estutu nion bostekoa. Entzuna nuen gizon hura munduko kazetarien artean ezaguna zena. Eta gurean zen. Ospatzekoa. Beste kazetaria ez zidan aurkeztu behar izan.

–Hau lehendik ezagutzen diat –bota nion, euskaraz–. Ez da hala, Steer jauna?

Azken hitzak ingelesez esan nituen, George Steerren doinua imitatuz. Horrela frogatu nahi

izan nuen nik hura lehendik ezagutzen nuela. Bide batez nire dohainetako bat erakutsi nuen, hots, jende ezberdinen ahotsak eta doinuak itxuratzeko gaitasuna.

–Esadak zerbait heuk nahi duan hizkuntzan –Noel Monks hura tentatu nahi izan nuen, frantsesez– eta errepikatu egingo diat.

Noel Monksek zerbait esan zuen. Australiako aborigenen hizkuntzaren batean? Auskalo. Nire fanfarroikeria agerian geratu zen, ez bainion hitzik ere harrapatu.

Barre karkara bat egin zuen, eta basoa gora altxatu, topa egiteko. Eta topa egin genuen.

–Errepublikaren alde! –esan zuen Steerrek.

–Errepublikaren alde! –doinua imitatuz esan nuen.

Zein egunetan bizi ginen, orduantxe ohartu nintzen. Apirilak 13 zituen.

–Eibartarren modura ospatzen ari gara –esan zuen Sinbadek–. Egun bat lehenago.

–Gau bat lehenago –esan zuen Lauaxetak, eta kazetariei azalpenak egiten hasi zitzaizkien.

Eibarren Errepublikaren garaitza beste inon baino egun bat lehenago aldarrikatu zela eta

ipuin ezagun hori kontatzeari ekin zion, batean frantsesez eta hurrengoan ingelesez. Nik ostera ez nuen nahi gure lagunak gogaitzerik.

Beraz, gerraren hariari ekin genion. Sinbadek berriz neskengan zuen gogoa. Eta halako batean aldarri egin zuen.

–Horko neska hori!

Eta besterik esan gabe zutitu egin zen. Gu besteok aho zabalik ginen.

Sinbadek neska bi bakarrik ziren mahai batera egin zuen. Nesketako batek irribarre zabala egin zion. Gero zerbait esan, altxatu eta gure mahaira etorri ziren. Hirurak.

–Elena –esan zuen Sinbadek, halako harrera egin zion neska aurkeztuz.

–Andone –besteak berak aurkeztu zuen bere burua.

Alboan Elena izenekoa suertatu zitzaidan. Atoan maitemindu nintzela uste dut.

–Nondik nora horren ezaguna? –galde egin nion, «nondik nora hain ederra?» galdetu nahi izango nion arren.

–Sinbadena? Zirkutik –bota zuen, eta barre algaratan hasi.

Beste bostek harriturik begiratu gintuzten. Orduan neskak bere barrearen zergatia azaldu beharra izan zuen. Horrelaxe jakin genuen Elena bera Zirku Amateurrean ibilia zela, Sinbad bezala. Eta hain zuzen ere Sinbad ezizena horrexegatik jarri ziotela, zirkuan marinel jantzita agertzen zelako.

–Egundoko jauziak eta bolantinak egiten zituen –borobildu zuen Elenak.

–Iraganeko kontuak –esan zuen Sinbadek.

Ziur nago une hartan gizonari bere urteak etorri zitzaizkiola gogora. Berrogei betetzekoa zen. Hala ere Elenak ezetz esan zuen.

–Lau gizon kukuka elkarren atzean jarri eta horien gainetik jauzi egiteko gai da –esan zuen.

–Hona hemen behar diren lau gizonok –zirikadei eutsiz, Lauaxetak.

Monksekin ostera ezin zen kontatu. Ordurako beste neskarekin ari zen, bizi-bizi, hizketan.

–Ba jauzi egiteko lau gizonik ez badago, dantzarako bat behintzat bai, ezta? –eskutik oratuz esan zidan Elenak.

Halaxe izan zen haren gerrialdea ukitzeko era izan nuela. Eta halaxe izan zen haren adats

ilunari zerion usainaz horditzekotan izan nintzela.

–Zer egiten zenuen zirkuan? –zerbait galdetzearren nik.

–Soka gainean ibili, ekilibrista.

Sinetsi egin nion. Eskuetan nuen haren froga. Elenaren gerrialdea!

–Eta orain? –nik

–Gerra honetan denok egiten duguna: soka gainean ibili –esan zuen.

Ez nion besterik galdetu. Gerrialdea estutu nion. Berak orduan sendoago atxiki ninduen. Eta horrelaxe ekin genion. Luzaz. Mahaira itzuli ginenerako gure erabakia egina zen.

–Gu bagoaz –esan zuen Elenak.

Hala ere ez ginen berehala joan. Noel Monksek, Andone txunditu nahirik edo, egun haietan beste norbaitek egindako argazkiak zituen mahai gainean.

–Begiratu beste hauek –esan zuen ingelesez, eta mahaiaren gainean utzi zituen beste batzuk.

Argazkiekin nekaturik nintzen. Eta hara! Lauaxetak aste hartako *Gudari* atera zuen, eta argazkien orrialdean zabaldu.

–Hunkigarria –esan zuen Lauaxetak–. Geuk antolatua izan zen meza. Gogoan daukak, Uriarte?

–Hobe ez, Estepan! –esan nion, ez ironiarik gabe.

Iragan abendukoak ziren argazkiak eta, hara apirilean *Gudari*n argitaraturik. Gudariei aupada egiteko, zer-eta komunista frantsesen aldizkari batean agertua zen erreportajea kopiatu. Mezatakoa! Ez nuen sekula ulertu izan Estepanen santujale joera hura.

–Meza zuentzat antolatu genuen –ingelesez ekin zion, George Steerri begiratuz–. Kazetariontzat. Zuek munduari erakusteko guk jainkoagan sinesten dugula.

Elenak lehenengoz bere edertasunarekin harritua baninduen, orduan eman zuen erantzunarekin harritu ninduen bigarrengoz.

–Gerra honetan jainkoa alde bietan dago. Beraz, ez batean eta ez bestean.

–Ene bada, Elena! –esan zuen Andonek.

Beste denek barre egin zuten. Nik izan ezik. Mallonarekin gogoratu nintzen. Katolikoa zen eta katolikoek fusilatuko zuten. Gorria zelako aitza-

kiaz. Lauaxeta fusilatzeko erabiliko zuten aitzakia berbera erabiliz. Eta George Steer gizajoa! Hura ere gerran hilko zen, baina beste gerra batean. Robert Capa argazkilaria beste gerra batean hilko zen bezala. Baina artean Capa bizirik zen, argazkiak hantxe zeuden eta inork ez zuen etortzekoak ziren heriotza haien susmorik.

–Gerra honetan arrazoia noren alde dagoen erakutsiko diogu munduari –esan zuen orduan Noel Monksek.

–Erakutsi? Nork? –esan nuen, zirikatzaile.

–Argazkilariek, kazetariek, zinemagileek, idazleek –Monksek metrailadore lokatua zirudien–. Madrilen dira nire lagun Ernest Hemingway eta haren neska, Martha Gellhorn, Amerikatako Presidente Franklin D. Roosevelt-en emazte Eleanor-en lagun mina dena.

–Ondo –esan nion–. Ea ba amerikarrek hegazkinak ekartzen dizkiguten. Eta bitartean, ikusiko paperezko lubakiek zerbaiterako balio duten, ala zer. Ze ez hegazkinik ez armarik ez daukagunez, ea ba horrela.

Elenak gerrira luzatu zidan ezkerreko eskua eta bestearekin baso bati eutsi zion.

–Oraingoan bai, bagoaz –esan zuen.

Armak eta hitzak! Ur haiek Elenarentzat sakonegiak ziren, itxuraz. Eta beldur zen ez ote ginen eztabaida luzeagoetan sartuko. Kasu egin nion. Bagindoazen.

–Ei –begiekin keinu alai bat egin zidan Sinbadek–. Gogoratu gerran garela, eta gerran norberaren burua babestea dela lehenengo araua.

–Lasai –esan zuen Elenak–. Busti bai, baina ito ez gara egingo.

Erantzun horrekin hirugarrenez harritu ninduen. Gero etorri zirenekin beste hamaika aldiz txunditu ninduen. Maitemindu egin nintzen, bai, Eibarren Errepublika aldarrikatu zuten egunean baina sei urte beranduago.

«Elena! Sei urte galdurik!», pentsatu nuen hau dena oroitzean. «Lehenago ezagutu izan bazintut, Elena!».

Ordukoen oroitzapenen hariak aginduta nire dokumentu kutunen apalategira joan nintzen. Hantxe ditut gorderik Monks eta Steerren liburuak eta Caparen argazkiak, mundu zabaleko aldizkarietan agertuak, eta beste batzuk, geuk beste inork ikusi ez zituenak. Eta hantxe neukan

Elenaren argazkien bilduma ere. Habanan, Mexikon, Varsovian, New Yorken... urteetan elkarrekin topo egin genuenetan ateratako argazki apurrak. Eta hantxe zeuden Robert Capak Sollubeko batailan egin zituenak. Gerraren geroa erabaki zuen bataila huraxe zela esango nuke.

Bada hurrengo egunetan Elena, Robert Capa, Sollubeko bataila eta halakoak gogoratuz entretenitu nintzen, bisitaria noiz itzuliko.

–7–

Itzuli zen bisitaria, eta ez zen esku hutsik etorri. Dokumentuen beste fardeltxo bat zekarren. Aurreko fardeltxoa askatzeko izan nituen eragozpenak gogoratuz txiskeroaren bila hasi nintzen.

–Lasai, oraingoan neuk zabalduko dut –esan zidan.

Berak horri ekiten zion artean kafea prestatzen hasi nintzen. Goizetik zen, eta haren beroak ez zion kalterik egingo. Aurrekoan ez nintzen ezer eskaintzeaz akordatu. Oroimen ezaren eta bakardadearen eragina. Horrela gizalegea zer den ere ahaztu egiten zait. Hori dena nik kafegailua maneiatzen nuen artean pentsatu nuen. Eta ez nenbilen oker.

–Eskerrik asko –esan zidan kafe kikaratxo bat eskaini nionean–. Azukrerik ez. Zuk zeuk ez duzu hartzen, ala?

–Ez –erantzun nion–. Badakizu, bihotza eta hori dena. Zer ekarri duzu?

Dokumentu bat luzatu zidan. Berehala ohartu nintzen zer zen. Heriotza agiri horietako baten

fotokopia. Leihora hurbildu nintzen, goizeko argiak nire begi nekatuei zereginean lagun ziezaien. Nor ote zen hildakoa?

–Ez dakit nik horrek Mallonaren kasuan zerikusirik ote duen –esan zuen, zigarrotxoa isiotzeko keinuan hitzak korapilatuz.

Ez nion erantzun. Zentzumen denak dokumentuari adi nengoen. Heriotza agiria herrian sinatua zen, 1937ko maiatzaren 7an.

«Gure indarrek Mundaka galdu eta egun batzuetara», esan nuen nire artean.

Gero ohiko beste xehetasunak zetozen, hots, herriaren izena, behin behineko epailearena eta idazkariarena –faxista alaenak!– eta halako beste datu batzuk. Hildakoaren izen-abizenak falta zirela alde batera utzirik, interesgarriena gero zetorren.

–Gorpua Txorrokopuntako Zubia izeneko lekuan topatu zuten– esan nuen ozen–. Hantxe bildu nintzen ni Gure Gizonarekin. Gogoan duzu?

–Bai –erantzun zidan, hotz eta motz.

Hoztasuna berehala joan zitzaion, ostera. Segundo baten buruan beste galdera bat luzatu zidan.

–Bera ote da? –jakingurak erreta zegoela zirudien.

Erantzun gabe, ozen irakurtzen segitu nuen.

Ezezagunak bala zulo bi omen zituen; bestela, soinean praka azulak eta jaka grisa, oinetan zapata beltz baxuak eta poltsikoan zapi zuria, arrunt jantzia zen gorpua. Deigarriena balena zen, dudarik gabe. Bata ezkerreko parietalean eta bestea bularrean ezkerretara.

Hori irakurri eta berehala –bala bat bularrean, ezkerretara, eta beste bat ezkerreko hezur parietalean– Ezezagun haren heriotza irudikatu nuen. Odol hotzean tiro bat jo eta gero are odol hotzagoan azken burukoa jo zioten. Gertutik. Txorrokopuntako Zubian, hots, herrian bertan kasik. Baten batek jakin beharko zuen haren izena. Nik neuk beharbada.

–Gure Gizona al da? –galde egin zidan bisitariak.

–Beharbada bai –bota nion.

–Beharbada baino ez?

–Ixi! –agindu nion, harekin lehenengoz benetan haserre.

Aztoraturik egin nuen horrela, bazen-eta han beste datu bat deigarri egin zitzaidana. Agiriak zioenez gizon hura elizondoan lurperatu zuten. «Aurreko hildakoa bezala eta aurrekoa han lurperatzeko egon den motibo berberagatik», zioen gero agiriak.

–Agiri honen aurrekoa ez duzu ekarri, ala? –erneguz bota nion.

–Bai –esan zuen, eta beste fotokopia bat luzatu zidan–. Hona hemen honen aurrekoa.

Heriotza agirien liburuko beste orrialde haren fotokopia luzatu zidan. Agiria 1937ko maiatzaren 3koa zen, eta behin data irakurrita kasik-kasik ez nuen besterik irakurri behar izan.

«Sollubeko batailaren egunak», pentsatu nuen.

Zuzen nengoen. Ezezaguna lurperatu, zergatik lurperatu zuten elizondoan, «batailako frontea hilerrian zelako» egin zutela zioen agiriak. Neuk igarri moduan.

–Heriotza bien artean lau eguneko tartea dago –esan zuen bisitariak.

–Garrantzizko datua ez da hori –esan nion.

–Zein, ba?

–Galdetu duzu herrian elizondoan zenbat hilobi egon ziren?

–Ez.

–Ba horixe da galdetu behar duzuna, ea elizondoan hilobi bi ala hilobi bakarra egon zen.

–Hildakoaren izena badakizu, ala?

Izena nik ba ote nekien? Ez nion esango, harik eta bera nor zen argitu arte edo, behinik behin, herrira itzuli eta nire galderaren erantzunarekin etorri arte. Baina hori beste egun baterako utzi beharko genuen. Bitartean bisitaria han zegoen, Mallona alkatearen heriotzaren zergatiaz jakin guran. Eta tartea aprobetxatu nahi nuen.

–Maiatzeko egun haietaz, eta lehenagokoetan jazo zirenak kontatu beharko dizkizut.

–Hildako ezezagun hori eta Mallonaren kasua elkarri loturik egon daitezke? –galdetu zidan.

Isiltzeko agindu nion. Eta ez mozteko. Harik eta nik horretarako baimena eman arte. Eta halaxe kontatu nizkion 1937ko udaberri odolezko hartako batzuk. Berak bazekizkienak ziren batzuk eta ez zekizkienak ere bai asko. Besteak

orain artean kolkoan gorderik izan ditudanak dira.

–8–

Bisitariak maiatzaren hasierako egun odoltsuak gomutarazi zizkidan arren, gero gogoaren hegalek lehenagoko egunetara eroan ninduten. Apirilekoetara, hain zuzen. Haietan jazo zirenak ulertu ezean ez zegoen maiatzekoen nondik norakoa harrapatzerik.

Bada, apirilaren 13ko gauaren ostekoak ziztuan igaro ziren. Zer gertatzen ari zen kasik oharkabean. Gerra galtzen ari ginen. Eta ni turditurik nengoen. Elenarekin maitemindurik nengoelako, beharbada. Edo jazoerak eurak durduzagarriak zirelako, hurrean.

Elena ikustea ez zitzaidan erraza egiten. Gau haren biharamunean nora zuzendu gabe utzi ninduen. Jakina, bilatzera jarriz gero ez zitzaidan Elena topatzea zaila egingo. Baina horretarako astia behar zen. Eta gerraren abiadak bihotzekoetarako tarte gutxi uzten zuen. Hotsa eta ardaila gero eta gorgarriagoa zen.

Hala ere Elena zenbait aldiz ikusi ahal izan nuen. Gogoan dut igande hartakoa; 17a zela uste dut. Biharamunean Bilbo bonbardatu zuten.

Carlton Hotelera hurbildua nintzen, gure indarrak harrapatzen ari ziren faxistak galdatzeko zereginetan bainenbilen.

–Ei! –ustekabeko galanta izan zen Elena Gobernuaren egoitzako atean zela ikustea.

Ustekabeko handiagoa izan zen haren soinekoak ikustean hartu nuena. Gobernuaren egoitzako zerbitzarien gona eta jaka jantzita zegoen. Baina horretaz ohartzeko segundo batzuk behar izan nituen. Begietara begiratzeari uzteko behar izan nituen segundoak.

–Ez zara pozten ni ikusteaz? –esan nion.

–Bai –ahotsean su handirik ipini gabe bota zuen–. Zereginak ditut. Beste batean egongo gara. Agur!

Kalera egin zuen, deabruaren presaz. Horrek Elenaren gerrialdea ez ezik beste xehetasun batzuk ekarri zizkidan gogora.

–Hori itzultzen denean jakinarazi egidak –Elena seinalatuz esan nion ateko ertzainari.

Nire begiek Elenaren bideari jarraitu zioten, eta hura plazaz beste aldeko kale batean galdu zenean Artxandara begiratu nuen. Burdinazko hesia omen genuen han. Zerbaiterako ote zen? Zerbitzuak bazekien infiltratu asko, infiltratu lar genituela. Etsaiak gure plan gehienen berri izaten zuen, planok abiarazten hasi orduko. Eta gure agintariek potrorik ez, infiltraturen batzuk garaiz fusilatuz, besteei eskarmentua emateko.

Ernegaturik baina itxaropentsu Carlton ederrean barrura egin nuen.

Han orduak astun joan zitzaizkidan, barruko haritik dei egin zidaten arte.

–Andrea etorri duk –esan zidan ahots batek.

Ateko guardiaren ahotsa ezagutu nuen. Barkatu egin nion tratuaren konfiantza. Batez ere harekin zortea izan nuelako. Errekadua utzi nionetik hara bere guardi txanda amaitu, atseden egin eta beste guardi txanda bat egiteko aski denbora igaro baitzen. Elena beste tarteko guardi txandan etorri izan balitz ez nukeen haren berri izango. Eta haren berri izanda ere nahikoa kostatu zitzaidan konbentzitzea.

Eskuartean nituen zereginak presaka amaitu eta behera egin nuen. Egia esan, ez zitzaidan ezer kostatu, zereginok luzatzen ari bainintzen, Elena agertuko zelako esperantzan. Eta alde horretatik ere adurra alde izan nuen. Ateetara iritsi nintzenean orduantxe baitzen irtetekoa. Euria ari zuen, eta noiz atertu geratua zen han.

Taxi bat geldiarazi nuen.

–Goazen –esan nion, taxiaren atea zabaltzeko keinuarekin batera.

–Ez –begietan zuen dirdiraz kontrakoa adieraziz.

Ekin egin nion. Eta berriro ezetz esan zidan. Taxiak alde egin nahi izan zuen. Han ezin zen hain luzaz egon. Keinu bat egin nion, itxaroteko, hango goiko bat nintzela adieraziz. Sinetsi egin zidan.

–Kafe bat, eta kitto –esan nion.

–Ezkondua naiz –esan zidan, Elenak, azkenean.

–Eta?

Taxian sartu ginen.

–Boulevard kafetegira –agindu nion txoferrari.

Gogoan berriz Boulevard haren gertuko hotela nuen. Torrontegi izenekoa. Gure mutiletako batek, gelazainaren itxuraz, belarriluze eta begiluzearenak egiten zituen. Ez zidan mesedea ukatuko. Eta halaxe eman zigun suite ederrenetako bat.

Elenak ere ez zidan ezer ukatu. Nik berari, ezta.

Eragozpen moralik izan nuenentz? Bai eta ez. Biharamunean jagi ginenean eguraldi eskasa zegoen. Guretzat eskasa, esan nahi dut. Ateri zegoen, eta oskarbi. Hamaikak ziren. Faxistek ez zuten dudarik egin. Handik lasterrera bonbardatu egin gintuzten.

Lehenengo erasoaren alarma adarrak eguerdi-eguerdian jo zuen. Ordurako Elena joaten utzia nuen. Senarra non zuen galdetu gabe. Ez zegoen argitu beharrik. Frontean zen, ziur, eta inork ez zekien hurrengoan postariak atean jotzean ez ote zuen haren heriotzaren berri ekarriko.

Eta bestela ere, nor zegoen hegazkinen bonbaren batek jo eta seko uztearen arriskutik libre?

Eguerdiko erasoalditik ordubete garrenean han ziren berriro, berunez eta suz. Eta handik ordu erdira berriro agertu ziren. Txiripaz ez ninduten tartean harrapatu.

Esan dudan moduan, Elena eta biok elkarri ezer galdetu gabe aldendu ginen. Berak Gran Vian gora egin zuen, eta nik Plaza Barrira. Kafe gogorraren premia nuen. Pattar tindi batekin.

Bilbao kafean sartu nintzen. Hantxe ziren ezagun zahar batzuk. Noel Monks eta Lauaxeta. Erdi frantsesez eta erdi ingelesez ziharduten, kafean ziren bakanen artean nabarmendurik.

–Mallarmé! –zirikatuz esan nion Lauaxetari, lepoan laztan bat egiten nion artean.

Monksek harriturik begiratu ninduen.

–Estepan Lauaxeta, Estepan Mallarmé poeta frantsesaren pare-parekoa, eta gorago ere iritsiko dena –euskaraz esan nion Monksi; eta bostekoa luzatu nion.

Estepan lotsagorritu egin zen. Ziriaren esangura neuk azaldu behar izan nion kazetariari. Monksek barre behartua egin zuen.

Atzerritarren aurrean aldarte ona erakustera beharturik geunden. Batez ere bonbardaketen

ostean. Niretzat kafea eta lagunentzat hartzen ari zirenaren beste txanda bat agindu nuen.

–Joatekoak izan gara –esan zuen Lauaxetak.

Ordurako zerbitzariak basoak berriro beteak zizkien.

–Nora? –galde egin nuen.

Zintzo esanda, nora joatekoak ziren ardura gutxi niri. Elena nuen gogoan, eta kafearen premia urdailean.

–Mallonako tren geltokira –esan zuen Lauaxetak–. Han zain ditugu beste kazetari batzuk, halako tournée moduko bat egiteko. Eskuartean beste zereginik ez baduzu, hara!

Gonbidapena zen. Aukera-aukerakoa begitandu zitzaidan. Baietz esan nion.

–Kafea hartu eta zuekin noa.

Kafeari pattar tanta bi botatzeko eskatu nuen. Beroegi zegoen, eta tantek ere ez zuten lar hoztu. Monksi begiratu nion.

«Jatorra ematen dik», pentsatu nuen, gurekin izateko izan zuen motiboa igarri ezinik.

Kazetariak! Kanpoko kazetarien arteko batzuk aurrez aurre ezagutzeko gogoa aspalditik nuen egina. «Hona aukera!», esan nuen nire ar-

tean, gehienak Torrontegi hotelean biltzen zirela akorduan.

Kanpoko kazetarien artean baziren arrain garbia ez ziren batzuk. Zerbitzuaren ustez, jakina. Alboko Arana hotelean apopilo zegoen Noel Monks Francoren aldean egona zen. Zentsurarekin arazoak eta eragozpenak izan zituen, bai. Eta zer? George Steer ere Francoren aldean denbora bat egin ondoren etorri zen gure aldera. Gure kasuaren zuzentasunaz uzkur. Gero ostera iritziz aldatzen joan zen. Fidatzerik zegoenentz? Baietz zirudien, Lauaxetak-eta atontzen zizkieten txango haren modukoei esker, besteak beste. Baina batez ere faxistek erakusten zuten krudelkeriari esker. Eta horren beste erakusgarririk beharko balitz moduan, orduantxe jo zuten alarma adarra.

Ordu bata t’erdiak ziren, eta egun hartako hirugarren bonbardaketa.

Zerbitzariak eta kafeko beste denek gordelekuetara egin zuten. Guk ez.

–Itzultzen garenerako kafea hotz egongo da –esan nuen.

Banekien arauen kontra ari ginela, eta banekien arau haustea larriago bihurtzen zela han atzerriko kazetari bat egonik. Bost horrek Lauaxetari eta bioi. Dena dela, eskerrak plazatik mugitu ez ginena.

Hirugarren erasoaldi hura beste biak baino laburragoa izan zen. Beharbada gure ehizegazkinak han agertu zirelako edo, hau bai ziurrago, bonbarik gabe geratu zirelako. Bitartean bonbetako batzuk gertu-gertuan jausten zirela igarri genuen.

Geltokirako bidean kalteetako batzuk ikusi genituen.

Iturribide kaleko gordeleku bat, auzotar batek etxekoentzat egina zena, airean joana zen. Zaurituen alarauak ala hildakoen gorpu zatiak, ez dakit zer egin zitzaidan mingarriago.

Monksek hantxe egin nahi izan zituen argazki batzuk. Lauaxetak ezetz esan zion. Geltokira hainbat bizkorren iritsi nahi izan zuen. Eta hantxe aldendu ginen. Nire lekua zaurituei laguntzen zegoen.

Estepan ikusi nuen azken aldia huraxe izan ez bazen, azkenaurreko.

Noel Monksekin geltokiko mailetan gora zihoala lepoa bihurtu zuen. Aupada eman nahi zuen keinu bat egin nahi izan zuen. Eta saminezkoa irten zitzaion.

«Buru argi bi», pentsatu nuen; gero hango anabasaren erdira ari ziren suhiltzaileen buruari identifikatu nintzaion.

Ilundu zuenerako leher eginda nengoen. Zerbitzurik gabeko egun bakanetako bat eta hara! Gorpu zatiak katabutetan sartzen eman behar.

Gauean Sinbadi deitu nion. Elenaz jakiteko. Haatik, galdetzen ausartu ez eta, berak hitz egin zezan utzi nion. Andonerekin zoraturik zebilela aitortu zidan, pozarren. Orduan Elenaz galdetu nion.

–Emakume ederra, ezta? Ba, kontuz ibili –esan zidan.

–Badakit ezkondua dena –esan nion–. Baina goizalde honetan alargun bihur daiteke.

–Ez dizut horregatik esaten –erantzun zidan Sinbadek.

Eta orduan ez nion zuzen ulertu kontuz! haren esangura. Ergela ez banaiz gero! Elenaren

edertasunak zorarazi ez nintzan esan zidalakoan ez nion abisuari jaramonik egin.

–9–

Gogoa berriro 1937ko udaberriko egunetara joan zitzaidan. Gernika suntsitu zutenekoaren ingurura.

Bonbardaketaren albistea gauez iritsi zen eta haren berri, nik neuk behintzat, ez nukeen biharamunera arte jakingo, ezta inondik ere, Torrontegi hoteleko gure mutilagatik izan ez balitz. Ze gau hartan hotelean nengoen. Elenaren zain.

Zortziak aldera ailegatua nintzen, eta afaltzea otu zitzaidan. Jantokian giro polita zegoen. Francoren aldekoek betetzen zituzten mahai gehienak. Txakurkume haiek denak ezagutzen genituen. Baina ez genien aurka egiten.

Hutsik ziren mahai bietako bat hartu nuen. Indaba batzuk jan ostean kafea eskatu nuen. Eta harekin nengoela George Steerren agurra aditu nuen, ingelesez.

–Hi!

Mahaia eskaini nion. Ez zidan onartu, ez baitzetorren bakarrik. Harekin zen Noel Monks. Eta baita Bilbo gosez hiltzetik salbatu zuen gizona

ere; *Seven Seas Spray* ontziko kapitain Roberts, bere alaba Fifirekin. Izenak neskatoa zela iradokitzen bazuen ere, hogei urteak betea zen, aitaren laztantxo hura.

–Kaixo –esan zidan neskak, euskaraz.

Inork Bilbon afaltzea merezi bazuen Roberts kapitainak merezi zuen. Apirilaren 20ko goizeko bederatzietan ontzia Bilboko portuan lotu zen. Sotoetan 3.600 tona janari zekarren. Valentziatik. Gatza, ardoa, olioa, urdaiazpikoa, eztia, irina, indabak, garbantzuak eta, zelan esan?, euren izenak entzutea zeruko musika baino gozoago egiten zitzaizkigun jakiak ekarri zituen.

Kafea xurrut batean hartu, jaiki eta bostekoa luzatu nion. Gero barkamena eskatu eta suitera alde egin nuen. Elena berehala etorriko zelakoan. Baina hura etorri baino lehen agertu zen atezaintzako mutila.

Atean jo zuen. Zakar.

–Nor arrano da? –haserre galdetu nuen; ezin zakarkeria hura Elenarena izan.

–Gernika bonbardatu dute –mutilaren ahotsa ezagutu nuen.

Ez zuen besterik esan behar izan. Irratia piztu nuen. Albisteak ikaragarriak ziren. Elenari ohar bat idatzi eta mutilari utzi nion. Zerbitzuan beharko nindutela, eta zer jazo hark esango ziola, eta oharra irakurri ostean hura erretzeko, ez nion besterik idatzi Elenari. Ez eta maitasunezko hitz xume bat. Okerra nirea.

Behera egin nuen. Pasaeran jantokiari begiratu bat egin nion. Hantxe ziren faxista zerrikumeak! Eta hantxe Roberts kapitaina eta Fifi. George eta Monks alde eginak zirela esan zidan kapitainak. Hoteleko harrera gelara iritsi nintzenean orduantxe ziren Gernikara joanak Noel Monks eta George Steer.

–Mendiguren jauna bila etorri zaie –esan zidan mutilak.

Ulertu nuen. Bruno Mendiguren zen Jaurlaritzaren izenean kazetariekin harremanak lantzen zituena eta, argi zegoen egoera hartan nire premiarik ez zuena. Lehendakaritzan itxarotea erabakita, Carltonera jo nuen.

Kazetariek Gernikatik ekarri zituzten azalpenak edonor zorarazteko modukoak ziren. Ezin sinetsi zen.

Kazetariek eta argazkilariek lan erraza zuten Gernikan. Ez zen teknika berezirik behar hangoa erretratatzekoa. Kameraren begia edonon jarri eta klik egin, ez zen besterik egin behar. Eta jazo zena jakiteko, berdin. Bizirik zirenei galdetu eta izuz erantzungo zizuten. Infernua!

–«Gernikan, argazki lazgarri bat ateratzeko, ez zeneukan zeri klik egin pentsatu beharrik; dena zen lazgarria», halaxe esan zidan Philbyk urte batzuk beranduago –bota nuen.

–Philbyk? Zein Philbyk? –bisitaria harri huts egina zen.

Apalategira egin nuen, eta han liburu bat hartu.

–Irakurri hau –esan nion, Kim Philbyren biografia luzatuz–. Kim Philby, britainiarren zerbitzu sekretuetan infiltratu zen agente sobietarra Gernikan izan zen. Faxistak han sartu zireneko 29ko gauean.

Labur azaldu nion ipuintxoa.

Zerbitzu sekretuetan sartu ahal izateko eskuindar ospea osotzea izan zen Kim lagunaren lehenengo lana. Horretarako zer hoberik Espainiako gerrara faxisten aldera kazetari etortzea

baino? Egin ere halaxe egin zuen. Eta idazten zituen kronikak hain ziren matxinatuen aldeko ze, susmagarri ere bazen gero. Baina faxistak ez ziren ohartu, eta guda amaitu zenerako Kim Philbyk landua zuen bere eskuindar ospea, eta eskuindar ospe horri esker lortu zuen britainiarren zerbitzuetan sartzea. Pentsa! Francok berak ohorezko domina horietako bat eskegi zion.

–Kim Philby sobietar espia ospetsua Gernikan izan zen, hara! –esan zuen bisitariak.

Hartaz luzeago jardun nezan eskatzeko moduan zegoela ohartu nintzen. Gaia beste baterako uztea erabaki nuen, ostera. Ze bai, Mallonaren kasutik eta herriko beste jazoeren kontaeratik lar aldentzen gindoazen.

–Eta izan ziren beste kazetari batzuk ere hurrengo egunetan Gernikan –Philby benetan kazetaria izan balitz moduan jarraitu nuen–. Horietako batekin joana zen Gernikara Lauaxeta laguna. Eta ez zen inoiz itzuli. Atxilotu egin zuten.

Izena esan eta batera Lauaxetaren irudia etorri zitzaidan. Geltokiko eskaileretan gora ikusi nuen egun hartako gizon baikorra, atxiloturik.

Lauaxetaren atxiloketa gerrak hartua zuen bidearen erakusgarri begitandu zitzaidan. Dena behera jausten. Hilaren 29an Lekeitio jausi zen eta egun berean sartu ziren faxistak Gernikan.

Gure zeregina egun haietan samina izan zen. Frontetik ihes egin nahian zirenak antzeman behar genituen. Eta abisua gorakoei helarazi.

–Desertorerik ez genuen behar. Bizirik behintzat –ozen irten zitzaidan.

Orduantxe ohartu nintzen tarte batez bisitaria han zegoenik ahaztuta neure buruarentzat hitz egiten egona nintzela. Aztoraturik, kontaeraren haria galdu nuen.

–Zahartzea zer ote den –bota niola dut gogoan.

Bisitariak laguntza eske ari nintzaiola ulertu zuen.

–Gernika hartu ostean Gezi Beltzek Bilborako bidea hartu zuten, mairuekin batera. Kostaz –esan zuen.

–Gure indarrak faxistei aurre egiteko prestatu ziren –hariari berriro oratuz ekin nion–. Horretarako defentsak jarri ziren zenbait lekutan, eta herriko elizaren atzealdean zegoena indartu. Ho-

rrela, hilaren 29ko iluntzean Euzko Indarrako pelotoi batek elizara egin zuen.

–Hemen dago gertaeren bertsioa, orduko parrokoaren arabera –moztu zidan bisitariak.

«Gertaerak? Bertsioa?», nire buruarentzat ari nintzen berriro,

Bigarren hitza zuzen ulertu ote nuen zalantzan geratu nintzen. Baina ez nion amu horri eutsi nahi izan. Erakusten ari zitzaidan dokumentuak erakarri ninduen.

Dokumentu hark esaten zuenez, hilaren 29ko iluntzean Euzko Indarrako batzuek parrokoarengana jo zuten, sakristiako giltzak eskatzera. Asmoa han metrailadore bat ezartzea omen zen.

Ordurako Gezi Beltzen aurre-guardia errioaz beste aldeko errepidean behera zetorren. Saiatuko ote ziren gure aldera urez egiten? Hori eragoztea zen metrailadorea hara begira ezartzearen asmoa. Asmo zaharra, bestalde. Herrian Gure Gizonarekin izan nintzenekoa gogoratu zitzaidan.

Ez zuten ba lehenagotik jarrita metrailadore bat han? Nola ere zen, parrokoak giltzak utzi ziz-

kien gudariei. Haatik, biharamunean abadea hara agertu zenean han ez zegoen inor.

–Beraz –esan nuen–, giltzak eskatzearena ez zen metrailadorea han ezartzeko izan, handik elizako ateari bortxarik egin gabe ihes egin ahal izateko baino.

–Beharbada –esan zuen bisitariak–. Edo lehenago batean ikusi zenuen metrailadorea kendu egin zuten, eta gero berriro ezarri, arean.

–Arean bai –erantzun nion, begiak berriro paperetara zuzendurik.

Parroko jaunaren narrazioak ez zuen galtzekorik. Euzko Indarrako haiek elizan lapurretan egin zutela zioen.

–Mallonak ez zien elizan lapurretan egiten utziko –esan zuen bisitariak, nik burua nuena igarriz.

–Ordurako Mallona ihes egina zen –esan nion.

Eta herria itsasoz ebakuatu zutela kontatu nion. Alkatea arrantzaleen ontzi batekin joana zen –*Aintzatasuna* izenekoan– beste askorekin batera. Santurtzira. Itsasoa infernuko atea zen momentu hartan.

Gazteak baino ez ziren herrian geratu. Eta ez denak. Mutilen batek ere ihes egin zuen. Gerrara!

–Eta Zuen Gizonak? Zer egin zuen faxista ospeko hark? –galde egin zidan bisitariak.

–Gure Gizonak herrian gelditzeko agindua zuen. Hark lehendik zeukan faxista ospeari esker mesedegarri izango zitzaigulakoan. Herria jausiz gero, jakina.

–Dudarik bazenuen, ala? –ziria sartu nahi zidan bisitariak.

Ez nion erantzun. Dudarik nik? Hilaren 27 eta 28aren arteko goizaldean Sabino Aranaren gorpua Sukarrietako hilobitik atera eta beste norabait eramateko agindu zutenei galdetu beharko zien.

Horiek hilak ziren, ostera.

Guk Aranaren gorpua atera, handik atera beharko zutela jakintzat ematen genuen. Baina ez ziguten guri agindu. Haren anaia Luis eta Alderdiko burukideek beharko zuten izan hura ukituko zutenak. Gorpua ateratzeko aitzurretan egin zuten hiru gizajoak ahaztu barik. Baina hori ere beste kontu bat zen.

Ardura zuena zen Mallona ez zegoela han, inori elizatik ezer ez eroateko agintzeko. Eta eroan ere zerbait eroan zuten gudari haiek. Horren berri banuen. Baina parrokoaren aitormena harrigarria zen.

Hark zioenez, Euzko Indarrakoak han barruan geratu ziren apirilaren 29ko gauean. Faxistak Gernikan sartu ziren gauean. Lauaxeta harrapatu zuten gauean.

«Biharamunean –30eko goizaz ari zen abadea bere aitormenean– goizaldeko bost t'erdiak aldera elizara agertu nintzenean hura hutsik eta diru-kutxako ateak bortxaturik zirela ohartu nintzen».

Kutxa ustez bortxatuaren barruan hiru eki-saindu, lau kaliz eta kopoi bi gordetzen omen zituen.

–Hiru eki-saindu, hara! –Gorpuztiko mezaz gogoratu nintzen–. Fededunei ostia erakusteko erabiltzen diren pieza itsugarri horietako hiru, lapurturik. Eta horietako bat, balio handikoa, urregorrizkoa zen eta. Kalizetako bat bezala. Interesgarria –esan nuen.

–Balio handikoak zirelako, horrexegatik eroan zituzten –eten zidan bisitariak–. Faxistek urregorriaren premia larrian ziren-eta, zer pentsatu zuten Ekintzakoek? Ontzi haiek han utziz gero faxistek armak erosteko baliatuko zituztela pentsatuko zuten. Ez, ala?

Buruaz baiezkoa egin nion. Zuzen zioen urregorriarena. Faxistak herrian sartu ostean egin zutena lekuko.

–Herrian sartzean faxistek egin zituztenen artean lehenengoetako bat urregorria bilatzea izan zen –esan zidan bisitariak.

–Eta?

–Lau bat kilo urregorri bildu zituzten, txanponetan eta bitxietan. Gainera kasik hogeita hamar pila pezeta bildu zuten. Diruak eta urregorriak Bilboko Gobernu Zibilean entregatu zituzten, uztailaren... –ez zuen amaitu.

–Jakin dut dirua eta urregorria bildu zutena, baina hainbeste zenik! –eten egin nion–. Baina hori uztailean izan zen, ordurako Mallona fusilamenduaren zain zegoela.

Eta abadearen aitormenaren dokumentuari ekin nion. Ez bisitariaz susmo txarrik egin gabe,

ostera. Nondik atera ote zituen datu zehatz haiek? Galdera nire artean eginik. Baina abadearen egia, edo bertsioa, ezagutu nahi nuen.

Abadeak ez zioen makala. Euzko Indarrakoek tabernakuluko ateak ere bortxatu omen zituzten, eta forma sagaratuak handik desagerrarazi. Horietatik denetatik lau kopoi eta bost kaliz Bilbon berreskuratu omen ziren. Forma sagaratuekin –halaxe zioen dokumentuak– zer jazo zen ez zekiela zioen abadeak.

–Kokolo halakoa! –haserreak gainez egin zidan.

Nire haserreak bisitaria zur eta lur utzi zuen. Begietan ikusi nion ez zuela nire beroaldiaren zergatia ulertzen.

–Irakurri duzu hau? Zer jazo zen formekin galdetzen du, kirten halakoak! –esan nion.

Bisitariak zigarroa isiotu zuen.

–Eta zer gertatu zen, bada? –mozolo aurpegiz bota zidan.

–Zer? –ezin nuen sinetsi– Ea! Hau dena ez dugu Elizan Iriondo jaupariaren paperak agertu direla-eta hasi?

–Bai. Eta?

–Ba gau hartan Iriondo ere elizan izan zela, bestela noiz utziko zituen ba paperak hango aldarean? Ba, han izan zen, eta forma sagaratuak komunioan eman zituen –nik.

–Ostiak gudariak baino gehiago ziren, eta gainera gudari denak ez ziren fededunak izango –esan zuen bisitariak, nire hariari oratzen hasia zela erakutsiz.

–Eta? –apustulari keinu batez bota nion–. Zein da misterioren soluzioa?

–Komunioa hartu zutenek ostia bana baino gehiago hartu zutela –pozik esan zuen.

–Ez dit ematen zu oso elizkoia zarenik –ziria sartu nahi izan nion–. Edo gudariek bana baino gehiago hartu zituzten, edo Iriondok berak hartu zituen soberan ziren denak, faxistek tabernakulua profanatuko ote zuten beldurrez.

–Ez ziren ba katolikoak?

–Denak ez. Oraintxe esan duzun moduan, mairuak ere ba omen zetozen –esan nion–. Aurre-guardian Alhucemako Erregularren Tabor ospetsua zetorrela zabaldu zen.

–Alegia, mairuak –esan zuen.

Ulertu zuen azkenean nire mezua.

–Eta ez ahaztu; beharbada bonbek eta tiroek tabernakuluan joz hari egin ahal zioten kaltearen beldur ere izan zitekeen Iriondo –esan nion, eta gero desafioa luzatu nion–. Ala ez duzu ondo begiratu Iriondok aldarean utzi zituen paperen artean?

Bisitariak lehenengoz etorri zenekoan utzi zizkidan paperen arteko bat atera nuen.

–Hona Iriondok aldarean ezkutaturik utzi zitueneko dokumentuetako bat –esan nion, hura luzatu eta batera.

Papera halako agiri bat zen. 1936ko abenduaren 11n sinatua, Guda-Gexo-Zaintza'ren Artezkaritza Nagusijaren Departamento de Capellanes batek emana zen. Hark zioenez, Saseta Batailoiko On Manuel Iriondo Aranburu kaperauari baimena eman zitzaion zertarako-eta Gernikako Andra Mari Parrokiako kalizetako bat aipatu konpainiakoen arima zerbitzuan erabil zezan.

–Gernikako parrokiako kalizetako bat erabili ahal izateko baimena eskatu zuen hark ez zituen herrikoak eramaten utziko, ez ala?

–Garrantzi handiko zerbait tartean izan ezik behintzat.

–Bide batez –ezer ez zelakoan nik–, zer dakigu aitormen hori egin zuen abadea dela eta? Ez duzu inoiz pentsatu ostiak desagertu egin zirela eta hori dena abade baten ahoan barregarria dela?

Bisitariak nire desafio tonua antzeman zuelakoan nago. Zutitu egin zen, eta tartetxo bat behar izan zuen hitz egiteko.

–Argitu beharrekoa zera da –aztoratutik nabaritu nuen–, ea herriko Talaian, elizondoan, hilobi bat ala bi izan ziren. Horra!

–Nik Ezezaguna nor zen jakiten laguntzerik nahi izanez gero, bai –esan nion–. Baina oraindino ez didazu erantzun. Herriko parrokoak zergatik esan zuen, idatziz gainera, ostiak desagertu egin zirela eta hura dena? Eta kalizak eta eki-sainduak? Agertu ziren, ala?

Banekien kalizak eta eki-sainduak, batzuk behintzat, agertu egin zirena. Baina bisitaria zirikatu egin nahi izan nuen.

–Herriko parrokoa jelkideen aldekoa omen zen, baina hala ere herrian geratu zen –beste

paper bat erakutsi zidan bisitariak mahukan karta bat baino gehiago gordetzen zuela erakutsiz–. Bera errugabea zela, eta ez ziotela ezein kalterik egingo, eta hori dena.

–Mallona bezalako fede oneko beste bat –papera hartzen niola esan nion.

–Eta gero, faxistak han sartu zirenean, gezur mordo hura sinarazi zioten; beste batzuei bezala –bisitariak alde egiteko keinu nabarmena egin zuen–. Sinatu ala bere burua entregatu, ez zuen beste irtenbiderik.

–10–

Bisitaria berriro joana zen. Oraingoan galdera jakin baten erantzun zehatz baten bila. «Hilobi bat ala bi egon ziren herriko Talaian, elizondoan?», horra galdera egina nion galdera.

Bat ala bi, ez zegoen beste erantzunik. Kostatuko zitzaion erantzuna topatzea, ostera.

Hala da ze, harrezkero hark ekarri behar zidan erantzuna itxaron beharrak barrua ziztatzen zidan. Bada, barrua lasaitzearren, faxistak herrian sartzekotan zireneko hartatik aurrerakoak ordenatzeari ekin nion. Horrela, oroimenaren hegalek herriko elizako sakristiara eroan nindu-ten.

Apirilaren 29ko goizaldean Euzko Indarrako gudariek eki-sainduak eta kalizak zakuan sartu zituzten eta alde egin zuten. Eta Iriondo Saseta batailoiko jaupariak ere alde egin zuen, laster itzuliko zelako itxaropenaz. Horrexegatik utzi zituen paper haiek aldare nagusiko harri sakratuaren azpian. Edo beharbada ez zuen itzultzeko itxaropenik, gerran ez baita inoiz ezer ziur jaki-

ten. Baina bai paperok topatuko zituen norbait izango zelakoan, eta hori bera bezain abertzale jatorra izango zelakoan.

Huts egin zuten Iriondoren kalkuluek. Iaz topatu zituzten paperok. Han utzi eta kasik hirurogei urte igarota. 1996ko urtean, bisitaria hona agertu baino hilabete eskas lehenago. Ezin esan Iriondok paperok txarto ezkutatu zituenik. Nahiz eta denboraz estu ibili. Faxisten hatsa gainean zuten. Hain gainean ze, norbaitek bere eldarnioan faxistak herrian sartzen, benetan sartu baino lehen ikusi uste izan zituen. Eta ergel hori, gerrako hildako ergelena izan zela esan liteke. Gerrak hura bezalako beste hamaikatxo ergel akabatu izan ez balu behinik behin.

–Zenbat txapel, hainbat txepel.

Horrelaxe esaten genuen Sinbadek eta biok askotan. Eta ez ginen egiatik urrun ibiltzen. Herriko ergel hark Jose Ugarriza zuen izena. Eta fusilatu egin zuten.

Mallonari haren berri jakiteak ez zion ondo egin, neuk dakit hori, nik neuk azaldu bainion hariak zelan nahastu ziren.

Esan moduan, apirilaren 31ko goizaldean gure indarrek faxisten erasoaldiari bide ematea erabaki zuten. Mendietan gora jo eta handik itsasoaren kontra harrapatu ahal izango zituztelakoan.

Faxistek amua irentsi zuten. Hain sakon irentsi ze, garaitza irratiz iragarri zuten. Aldez aurretik. Gerrako hildako ergelena izango zenak albistea aditu zuen. Eta bere arratoizulotik irtenda kalera egin zuen.

Herria kasik hutsik zegoen. Hamazortzi eta berrogeita bost urte arteko gizonak joanak, umeak ere joanak, neska gazteak joanak baita ere, beste ia denak etxeetan ziren. Eta Jose hark Zubira egin zuen.

Goiz hartako ikuskizuna ederra begitanduko zitzaion faxista tzar hari. Begiak zorroztuz gero, hantxe ikus zezakeen –Txatxarramendiko muturrean– bere aldekoen bandera, metrailadore habia bati babes eman guran. Eta belarriak adi jarriz gero, eta kanoi eta munizioetan aditua izanez gero, Lagatik jaurtitzen zituztenak faxistenak zirela ohar zitekeen.

Eta konbentzitu egin zen han aurreko errepidean behera zetorren kolumna faxisten lehen kolumna zela. Aldarrika hasi zen.

–¡Ya vienen los nuestros! ¡Ya vienen los nuestros! –zioen, besoak gora.

Halaxe kontatu zidaten Akziokoek niri, eta halaxe kontatu nion nik Mallonari. Ze Mallonak faxisten periodikoak irakurtzen zituen, eta fusilatu haren berri izan zuen. Harengana joateko agindu zidaten, herriko alkate jaunak azalpenenen bat nahi zuela eta. Ordurako maiatzeko lehen astea joana zen, eta gerra irabazteko itxaropena ere bai kasik.

Ez nintzen lar gustura agertu Mallonaren bulegora. Eta ez gizona aurrez aurre izatearen beldur nintzelako, bulego haietara agertzea berez zelako samina baino. Gureek ebakuaturiko herri bakoitzak bere bulegoa zuen, eta zenbat bulego, ebakuaturiko beste hainbeste herri.

Bisitaldia laburra izan zen. Jazoerak labur eta zehatz azaldu nizkion, Akzioko ofizialak niri azaldu bezala. Isilik aditu zidan.

–Jainko laztana! Beste inuxente bat hilda! –izan zen esan zuen bakarra.

–Zer egin behar zuten gureek, ba? –galdetu nion.

Ez zidan erantzun. Egin zutena egin zuten. Eta kito. Gero urregorriaren auziaz eztabaidatu genuen. Baina urregorriarena, eki-saindu eta kaliz haiena, geroago azaldu beharko nuke. Bestela ergel haren heriotza moduaz eta zergatiaz Mallonari kontatu niona ahaztu behar zait.

Esan dudan moduan, ergel hura oilalokaren pare jarri zen, Zubian, eurenak bazetozela eta bazetozela, kukurruku zoroetan. Harik eta errepidean behera zetozen haien uniformeetan ageri ziren gurutzeak lauburuak zirela ohartu zen arte. Berandu.

Gerrako eztandek eragin duten gaitzik arruntena gorreria da. Haatik, Jose Ugarriza artaburu haren alarauak larregizkoak ziren. Hanka egin zuen gizonak, eta galopan aurreratu ziren erretiradan zetozen gudarietako batzuk. Aldi berean ia. Ergelak, hain zen ergela ze, zuzen etxera egin zuen. Akziokoei ez zitzaien gaitz egin hura topatzea.

Harrapatu, eraman eta danba-danba akabatu zuten. Eta gorpua Bermeon utzi zuten. Tira, hori

ez nion horrela kontatu Mallonari, baina horrelaxe izan zen.

Gezurra badirudi ere ergel hark salako armairuan gorde zuen bere burua. Eta are gezurrezkoago ematen duen arren, bila joan zitzaizkion haiek txiripaz antzeman zuten. Bila zetozkionak ateetan zirela igarri zuenean armairuek arropak eskegitzeko trabesean izaten duten kakoari eutsi zion. Han ziren soingaineko, trintxera eta gonen artean gorde zuen gorputza. Baina oinak ez. Edo bai, hankak ondo bildu zituen. Baina armairuan miatzen ari zenak hango atea itxi baino lehen, taka!, luzatu egin zituen. Eta besteak ikusi.

Haren andrearen, haren koinataren aldarriek ez zuten ezertarako balio izan. Zorte txarra! Gizonaren bila etorritakoen artean bat herriko semea zen. Bazekiten hura zein arrain klase zen.

Gerrako hildako ergelena izan zitekeen hura zein arrain klase zen, hori denek zekiten herrian. Maisua izanik, eskolan igartzen zitzaion. Faxista bizi-bizia! Eta gonbixa baino gaiztoagoa. Hala eta guztiz ere, gerra hasi zenetik baketan bizi izan zen, ez baitzen Errepublikak Bilbora eroan

behar zirela agindu zituenen zerrendakoa izan. Eta ezkutuan bizi arren, mundu guztiak zekien non zegoen ezkutaturik. Etxean!

Mallonaren legekoek ez zioketen sekula santan ezer egingo, hori bagenekien, Gure Gizonak horren eta beste faxisten mugimenduen berri ematen baitzigun. Gizon baliagarria, bai herria gure mende egon zen artean eta bai faxistak han sartu ostean ere. Harik eta haren arrastoa galdu genuen arte.

Bestela, Mallonari eta haren legekoei herriko elizatik Euzko Indarrakoek eroan zituzten ekisainduek eta kalizek zieten ardura. Faxisten periodikoek, ergelaren fusilamenduaren albistearekin batera, herriko elizatatik ustez ostutako ontzi eta ostia sakratuen berri eman zuten.

–Denak entregatuko dizkizute –esan nion, eta entregaren xehetasunak azaldu ondoren gizalegez agurtu genuen elkar.

Biharamunean *Euzkadi* egunkarian zegoen entregaren berria. *Gure gudarien zintzotasuna* izenburupean. Erdaraz denek, baita faxistek eurek ere irakur zezaten. Maiatzak 7 zituela uste dut. Apirilaren azken egunetatik beste horreta-

rainokoak gerrako erabakigarrienak izan zirela esango banu ez nuke lar esango.

Nik neuk, egia esan, ergel hura berdin-berdin fusilatuko nukeen. Eta ez nituzkeen ontzi haiek itzuliko. Urtu eta urregorria armak erosteko erabiliko nukeen. Horien zein premia larrian ginen maiatzeko lehen egunetan jakingo zen.

–11–

Apirilaren azken egunean gureek errioko ezkerreko bidea libre utzi zuten. Eta orduan bai, Gezi Beltzak beren izenari omen eginez sartu ziren herrian. Geziak airean legez. Aurkaririk gabe. Eta gehiegizko harrera beroa egingo zien ergelik gabe.

Gernika suntsiturik guk amore emango genuelakoan, ibarrean behera itsasoraino egitea euri-urak egiten duen bezain erraz egin ahal izango zutela uste zuten. Eta egin ere, hain erraz egin zuten ze, Matxitxakoraino iritsi ziren. Hantxe geldiarazi genituen; bai Gezi Beltzak, bai haien atzetik etorri zen Tabor ospetsukoak, eta bai beste faxista denak ere. Bermeo Guadalajara bihurtzeko zorian izan ginen. Oi, batzuen traizioagatik izan ez balitz!

Maiatzaren bateko goizeko zortzietan gure gudontzietako hiruk itsasoratzeko agindua bete zuten. *Bizkaia* eta *Gipuzkoa* bouak eta *Císcar* destruktorea ziren. Itsasoa bare eta eder zegoen eta, egitate handiren baterako aproposa izan zi-

tekeela ematen zuen. Ilusioak ozta-ozta goiz batez iraun zuen.

–Gaur bai, gaur bai, Uriarte –Itsasketa Eskolan ohi zuen moduan, abizena aipatuz esan zidan goiz hartan Sinbadek–. Jakin duzue albistea?

Goiz hartan oso goiz Billanoko muturrera agertua nintzen, Gure Gizonak herritik bidal zitzakeen berrien zain baikinen denok. Ez zen haren albisterik etorri, agian gure transmisio sistema guztiak Sollube inguruetako guda-zelaietara eta haren aurreko itsasgainekoetara adi zeudelako. Bada, albisteak harekin zerikusirik ote zuen geratu nintzen.

–Gure Gizonaren berri izan dugu, ala? –esan nion.

–Arranoa, hori baino hamaika bider hobea! *España* korazatua hondoratu ditek, goizeon! Santander aldean. *Velasco* ontzia hari laguntzen ei zabilek.

Albistea egundokoa zen. Bermeo ingurura abiatuak ziren gure ontziek lasaitu ederra hartuko zuten. Tarte batez ez zitzaien etsairik agertuko.

–Laster hartuko diagu berriro herria, eta hantxe ikusiko duk zorioneko Gizona, Uriarte –bota zidan.

–Ez pentsa hain erraza izango denik, Duñabeitia jauna –erantzun nion, nik ere abizena aipatuz.

Eta ez zetorren erraza. Hala ere, goizeko lehenengo orduetan Bermeo Guadalajara bihur zitekeela pentsatu genuen. Baina benetako Guadalajarak itsasorik ez du, eta Bermeok bai ostera, eta beharbada horrexegatik joan zitzaigun joan zitzaigun moduan. Hasi ere berandu hasi ginen eta.

Goizeko hamaiketan Matxitxako eta Izaro artean ziren *Bizkaia*, *Gipuzkoa* eta *Císcar* ontziak. Alegia, tiro egiten hasteko emanda zuten ordua baino ordubete geroago.

Ordu horren tartean jazo zenak gero etorriko zenaren abisua eman zigun arren, atzera egiteko berandu zen. *Císcar* ontziak eragin zuen atzerapena.

Abiatu ere, *Císcar* bera abiatu zen hiru ontzien buru, eta halaxe igaro zen gure begien aurrean Billanoko muturra gainditu z. Bouak haren

atzetik zihoazen eta, hala bada, dena normal begitandu zitzaigun.

–Pattar ttantta bat? –eskaini zidan Sinbadek, kafe kikara bat luzatuz–. Zer moduz Elenarekin?

–Aspaldion ez diat ikusi –esan nion, pattarra ukatzeko kafe kikararen gainean esku bat jarriz–. Eta Andone?

Sinbadek bere kafeari pattarra egin zion.

–Andone? Gau pareko bateko kontua –zigarro bat isiotzeari ekin zion–. Baina Elena hori, zera... –airean utzi zuen esatekotan zena–. Ez diat susmo onik *Císcar* horrekin –bota zidan bat-batean.

Hartan geratu zen emakumeen gaia, ustez normal ari ziren ontzietako batek, *Císcar* harexek, maniobra ezusteko bat egin baitzuen. Iparekialdera jo zuen lehenik, eta iparrera gero. Zerumugan galdu zen arte. Gure bihotzek telegrafoaren abiada zoro bertsuan egin zuten. Ezin genuen ulertu. *Bizkaia* boutik Alejo Bilbao komandanteak azalpenen bat emateko eskatzen zuen.

–Bereari eusteko –agindu zion Sinbadek telegrafoko mutilari.

Handik tarte batera kanoikadak aditu genituen. Eta beste tartetxo baten buruan *Císcar* ontzia itsas begian genuen. Erretiradan zetorren!

–Etxera zetorrek, kabroi halakoa! –esan zuen Sinbadek.

–Zergatik? Matxura larriren bat akaso? –nik.

Horixe berori galdatu zion gure Zerbitzuak *Císcar* gurutzontziko komandanteari. Erantzuna egundokoa izan zen.

–Errebeldeen *Galerna* boua begiztatu dugu, han iparraldean; bila joan gatzaizkio eta hogei bat tiro jaurti diogu, harik eta itsas handietan gora desagerrarazi arte. Gero agindutakoa betetzera itzuli gara.

Sinetsi behar ote zitzaion?

Atzerapena zerk ere eragin zuen, goizeko hamaiketan Bermeoko arradan ziren hiru ontziak. Eta zereginari lotu zitzaizkion.

Bizkaia bouaren zeregina Lagako kanoiak isilaraztea zen, *Císcar*rek Txatxarramendi irlako metrailadore habiak leherrarazi beharko zituen eta *Gipuzkoa*ri herria eta Bermeo arteko errepidean ibil zitekeen edozer txikitzea zegokion.

Egia esan, miraria izango zen hiru ontziek beren zeregina taxuz betetzea. *Gipuzkoa* eta *Bizkaia* bouetako kanoiak eztul pare bana egiteko baino ez ziren gai. Hala ere ahalegina egin zuten.

Ontziek euren musikari ekin eta berehala lehorreko indarrena hasi zen. Gezi Beltzak heriorekin dantzan hasiak ziren. Tamalez, *Gipuzkoa* bouaren brankako kanoia behin eta berriro lokatu zen, eta txopakoak ez zuen tiro bakarra ere egin ahal izan; ezgauza zen. *Bizkaia*k ez zuen zorte askoz hoberik izan. Hala ere hiru ontzien arteko musikak bazuen bere eragina. Eguerdi aldera Bermeoko portuan ez zen giro. Ez eta herrikoan ere.

Hamabi eta erdietan herriko portutik txalupa bat irteten ikusi zuen Alejo Bilbao komandante zuen *Bizkaia*k.

–Zazpi-zortzi txapelokerrekin –kontatuko zidan handik urte batzuetara komandanteak–. Tiroka ekin genion. Lehenengo laurak labur, hurrengo laurak luze, azken biek bete-betean harrapatu zuten txalupa.

Txapelokerrek ez zuten beren helburua erdietsi; denak ito zirelakoan zegoen Alejo komandantea. Gureak berriz bai, helburu denak erdiesteko zorian ziren. *Gipuzkoa* bouak sutan jarria zuen errepidea. Orduan Gure Gizonaren telegrama etorri zen.

–Herria libre zagok –esan zidan Sinbadek–. Txapelokerrek itsasoz eta italianoek lehorrez kamioietan alde egin ditek.

Kamioi haietako bat *Gipuzkoa*k kanoikadaz jo eta zartarazi zuen. Bouak egin zuen azkena izan zen. Ordu bata aldera *Bizkaia*ren karelera hurreratu zen. Kanoi biak matxuraturik zituen. Ez zen tiro egiteko gai. *Gipuzkoa*k Bilbora itzuli beharra zuen-eta, Bizkaia bouaren babesa nahi zuen. Eta behar zuen.

*Bizkaia*k bou biak egitekotan ziren maniobraren berri eman zion *Císcar*ri. Hori egin ostean Bilborantz jo zuten. Billanon aztoratu egin ginen.

–Gureak egin dik –esan zuen Sinbadek, prismatikoak niri luzatu eta batera.

Ezin nuen sinetsi. Armintza aldean ziren bou biak, dena abantean. Eta haien atzean *Císcar*

destruktorea, askoz bizkorrago. Hain bizkor ze, laster ditu beste ontzi biak bere uharan.

Zerbitzura deitzeko unea zen.

–12–

Zerbitzura deitu, Billanon ikusitakoaren berri eman eta erantzuna etorri artean tartetxo bat joan zen. Horretan *Císcar* ontzia lehengo guda-itsasora itzultzen ikusi genuen. Gure aurre-aurrean. Abisua garaiz iritsia zen, beraz.

–Itzularazi egin ditek.

–Alferrik –esan zidan Sinbadek–. Lehen faxistak lonara KO botatzeko zorian izan ditiagu, eta orain... kakazaharra!

–Txatarra hutsa dituk bouetako kanoiak! –nik esan barik ere berak ondo zekiena esan nion, kontsolamendu gisa.

Haatik, Sinbadek ez zuen halako kontsolabideen premiarik. Berez zen baikorra.

–Ea bihar konponduak diren –lehentsuagokoa alferrik! hura ukatuz bota zidan, zigarro bat isiotzeaz batera.

Orduan telefonoak jo zuen.

–Buru! –esan zidan Sinbadek, aurikularra luzatuz.

Aparailua ezker eskuaz harturik, bestearekin umeei egiten zaien tas-tas keinua egin nion Sinbadi. Gure artean Buru esaten genion Zerbitzuburuari, bai, baina gure artean baino ez. Urduri hartu nuen.

–...Bai! ...Bai! ...Bai.

Denari bai esateko baino beste modurik ez nuen izan.

Eskegi nuenean hantxe nituen Sinbaden begi irribarretsuak, nire azalpenen zain.

–Ea ba bihar dena konpontzen den –ez nion besterik esan Buruk esandakoaz–. Joan beharra zaukaat.

–Sekretua? –erantzuna bazekienaren doinuan galdetu zidan.

–Sekretua –erantzun nion–. Ea ba bihar.

–Ea ba –begietan izandako poz dirdira hantxe iraungi zitzaion.

Halaxe utzi nuen Billano. Biharamunean beste bouak konponduta egongo zirelakoan eta egun hartan aukeran izandakoa hogeita lau orduz atzeratzea besterik izan ez zela sinetsi guran. Baina hurrengo egun hartan berandu izan zen. Faxisten ontziak gudalekura agertu ziren.

Zoritxarreko biharamun hartan, maiatzaren 2koan, *Cervera* gudontzia, *Galerna* boua eta identifikatu gabeko beste bou faxista bi Bermeo inguruko uretan ziren. Geure eskuetan jausteko-tan izana zen fronteari eusteko.

Guadalajara txikia izatekoa zena hamar egu-neko bataila odoltsua bilakatu zen. Ontziekin jazo zenaren ondorioz, besteak beste. Bada, *Cís-car* haren ipuina ezin utzi genuen bere hartan. Egon ere, Buruk hari buruz hitz egiteko deitu zi-dalakoan nengoen. Baina bai zera. Beste hilabe-te batez luzatu behar zen kasu hartan berehala hartu beharrekoa zen erabakia. Bilbon, Zerbi-tzuan, ez ziren nirekin ados. Poztasun betean hartu ninduen Buruk.

–Zelan gauzak Billanon? –galde egin zidan Buruk, hara iritsi nintzenean, erantzuna itxaro-ten ez duenaren doinuan–. Jakin duk *España*re-na?

–Bai –esan nion.

–Hondoratu egin diagu –gure egina izan balitz moduan–. Goizeon, bederatzi t’erdiak aldera Errepublikaren hegazkinek santabarbaran jo zio-tek, bonbez.

–Nondik irten dira hegazkinok? –galdetu nion, ironiaz.

–Santandertik.

–Ea ba egunen batean honantz hurreratzen diren.

Ez zidan amua irentsi. Baina nire zirikadak eta mingostura gorabehera, albistea pozgarria zen. Gerra hartan ordura arte adurra aurka izana genuela esan zitekeen eta, alde jarriko ote zitzaigun geundela uste dut.

–*Císcar* horrena konponduta dagoela ematen du, ezta? –baikortasunez esan zuen, *España* ontzi itzela hondora eroan zuen haize boladak gure beste buruhausteak eroan beharko balitu moduan.

Zer erantzun behar nion? Lehen ez nintzela ontzietako ofizialez fio, eta harrezkero askoz gutxiago fidatzen nintzela? Neure larruari eusten nahikoa lana nuen.

–Paperetan dago dena –esan nion, egun hartakoez paratua nuen txostena mahaiaren gainean utzirik–. Baina bada beste gai bat ere ardura handikoa.

–Esan! –erantzun zidan, ordura arte hitz egindakoa baino ardura handiagoko gairik ez balego tonuan.

–Herrian dugun gizona. Zer dakigu horretaz?

–Hik heuk ere badakik hori –pipertzen hasia zen–. Komunikazioak eten egin dituk.

–Errespetuz, jauna; handik ateratzeko ahalegina egin beharko genukeela uste dut.

–Eta egin egingo diagu, lasai egon. Hire aldetik, planen bat horretarako?

–Norbaitek gauez etsaiaren lerroak pasatu, gizona bilatu eta gure aldera ekartzea. Horixe da bururatzen zaidana.

Buruk destainaz begiratu ninduen, burua orduantxe elbarritu balitzait moduan.

–Edo bestela itsasoz egin beharko diagu. Aditu dituk Sollubetik datozen berriak?

–Ofizialak? –ziria sartzeko gogoak gainez egin zidan.

Ez zion ziriari jaramonik egin.

–Erasoari ekin zioagu eta guda-oinak hango inguruetan finkatu dituk. Baina itsasoz izandako abantaila galdu egin zezakeagu. Beraz, oraingoz

ez zakiagu zer egin. Hiri ezer otutzen bazaik, esango didak.

–Esango dizut, bai.

–Biharko eguna libre daukak, eta etzitik aurrera hire zeregina kanpoko prentsa hara eroatea izango duk –paper batzuk luzatu eta batera esan zidan–: hona hemen kazetarien fitxak.

Fitxak hartu eta begiratu azkar bat egin nien. Aurpegi batzuk ezagunak zitzaizkidan, beste batzuk berriak. Lehenengo unetik aurpegiok euren izenekin batera gogoratzen ahalegindu nintzen.

–Bide batez, Uriarte, zera –arraro egin zitzaidan hari nire abizena entzutea–, gaur gauean hire Sailean lo egin beharko duk. Gauza bat duk biharko eguna libre izatea eta beste bat bezperako gaua ere libre hartzea.

Zer zen hura? Errietan egiten ote zidan? Ala, beste barik, horrelaxe adierazi nahi izan zidan ni eta Elenaren artekoaz jakitun zegoela? Bada, Sailean eman nuen gaua. Lo egin nuenentz? Fitxak errepasatu eta Elenaz pentsatu nuela dut gogoan.

Biharamunean goizean goiz jagi nintzen. Begiak katuen moduan busti, jantzi eta bulegora

egin nuen. Hantxe zeuden eguneko paperak. Zein zen begiratu barik haietako bat besapean hartuta kanpora egin nuen. Gosaria egin gabe. Torrontegin lasaiago egingo nuelakoan.

Gran Vian behera aurreko egunaren garrantziaz jabetu nintzen. Maiatzaren bata, langileen eguna! Gaztetxo batzuk aurreko ezkerreko indar politikoren baten erakustaldia izan zenaren hondakinak kentzen ziharduten.

–Osasuna, kamarada! –esan zidan haiekin zegoen agure itxurako batek.

Besapean neraman papera *Euzkadi Roja* zela orduantxe ohartu nintzen. Bat hartzearren hartua nuen.

–Eta askatasuna! –erantzun nion.

–Gu ez gaituk anarkistak, kamarada! –haserretu egin zitzaidan.

Besapean neraman *Euzkadi Roja* seinalatu zidan, eta nik txapelaz agur keinu bat egin nion.

–Ulertua, kamarada –eta Gran Vian behera jarraitu nuen.

Beraz maiatzaren bata joana zen. Behargi-nentzat egun handia munduan eta gurean. *España* ontzia hondoratu genuen eguna! Pena, ospa-

kizunetara denak elkarrekin joan ez izana. Urdailean kafe beroaren premia egin zitzaidan.

Arriagaren aurreko kafetegiaren kanpoko mahaietako batean jesarri nintzen. Dozena erdi bat lagun ziren han nire moduan egunkaria irakurtzera etorriak.

Hango denen artean gazteena neu nintzen eta, han egotea ez zitzaidan eroso egiten. Frontera joateari uko egindakoa nintzela ematen ote nuen, izaten nintzen beti halakoetan.

Zerbitzari bat etorri zitzaidan. Ume gorria, kasik.

«Hara, hara! Bilboko kamareroak gerrara joan dira denak; Salsamendi batailoian, oi ene! Eta hara! orain umemokoak zerbitzari», pentsatu nuen nire artean.

–Jauna? –hartu behar nuenaz horrela galde egin zidan ume gorriak.

–Jauna ala kamarada? –galde egin nion, umoretsu.

–Kamaradak frontean dira, jauna –erantzun zidan.

–Eta non dago frontea?

Kasik umea zen zerbitzari hura nire erantzunarekin turditurik lotu zen. Nire atzean nuen afixa erakutsi nion. «Etsaiak gure hitzei belarria adi» zioen afixak. Hala bada, belarria nire ahora hurbiltzeko keinua egin nion.

–Kamarada, frontea denean zagok –esan nion–, etsaia ere denean egon daitekeelako; begira.

Keinu batez ezkerreko besaburuaren aldean ukitzeko eskatu nion. Ez zen ausartu. Orduan alkandora handik kendu eta ebatondoa erakutsi nion. Zauri zaharra zen hura, gerra aurreko kaleistiluetan eragindakoa. Baina polito zetorkidan mutiko bulartsu hari zerbitzu ona egin beharko zidala erakusteko.

–Kafe katilukada eder bat, ogia, nahiz eta sikua izan, eta ogia edertzeko ahal duan edozer –esan nion, ordurako belarria nire ahotik urrundurik zuelarik.

–Atoan, kamarada! –ospa egin zuen kafearen bila.

Goiza lasai joaten hasi zen mutilak kafea, ogia eta gurin apur bat ekarri ostean. Lotsa apur

batez ekin nion. Hori bai, katilua katuak milizkatuta baino garbiago utzi nuen.

Apurka-apurka terraza moduko hura jendez betetzen joan zen. Mahai-gainak hala ere, hutsik ziren gehienak.

«Paperak irakurtzeko adorea bai, baina gastuetan sartzeko sosik ez», pentsatu nuen, nire *Euzkadi Roja* irakurtzen niharduelako itxurak eginez.

Madrilen betikoan segitzen zutela irakurri nuen. Faxistek beren musikarekin ospatu omen zuten maiatzaren lehena. Bonben eta metrailaren doinuan. Dena dela paperak baikortasunez inprimaturik ageri ziren. *España* ontzia hondora! Santanderren gizon-emakumeak kalerik kale ibili omen ziren. Ospatzen. Eta Bilbon ere ospakizunetan sartzekotan ginen. Musika kioskoan metaltresnak afinatzeko saioan hasiak ziren. Erlojuari begiratu nion.

«Bederatziak», nire artean. «Goazen, ba».

Torrontegi hotelera hurreratu nintzen.

–Dena ondo? –galde egin nion atezaintzako mutilari.

–Elena ez dago –erantzun zidan, «ondo» hitzaren esangura bere adineko batek ulertu beharko zukeen moduan ulerturik.

–Ez nauk horretara etorri. Eutsi –*Euzkadi Rojaren* alea harrera-mahaian utzi nion, eta alde egin nuen.

Atezaintzako mutila, gure belarri luzea ere bazena, harriturik utzi nuen. Zerbait okerreko esan ote zuen susmoarekin. Eta neu ere harriturik nengoen. Hoteletik kalera ezertan pentsatu barik egin nuen.

Berriro nire buruaren jabe nintzenerako Plentziako kasinoan nengoen.

Sinbad bertan topatuko nuelakoan joan nintzen, eta topatu nuen, topatu nuenez. Eguerdi aldera agertu zen, bazkaltzeko asmotan. Ordurako bermut parea edanda ni, txolinduta nengoen. Horretan Sinbad laster jarri zitzaidan parean.

–Arranoa, Uriarte! Zer dugu? –bota zidan niri, eta gero aldarri egin zion zerbitzariari–: Beste bi. Nirea ondo betea!

Berehala igarri nion. Aztoraturik zegoen.

–Kakazaharra, traidore puta horiek, kakazaharra.

Zer zela eta zioen horrela, begira geratu nintzaion. Baina ez zuen besterik esan, kakazaharra eta kakazaharra baino, harik eta zerbitzariak bermut doblea mahaian utzi zion artean. Trago luzetxo bat jo zion.

–Goizeon ontzi faxistak agertu dituk Bermeo aurrean. Bouek eta beste gurutzontzi madarikatuak etxera egin behar izan ditek!

Galdua genuen bezperako abantaila. Eta galdua Gure Gizona herritik ateratzeko modua. Harrezkero, zer egin zen kontua.

Elkarrekin egin genuen bazkari legea, eta elkarrekin egin genuen arratsalde pasa. Gure Gizonaren salbazioa pentsatu guran. Eta ezinean. Otu zitzaigun bakarra ohiko moduan kontaktua egin guran segitzea izan zen.

Kontaktua eginez gero, biharamunean, goizaldean, Benjaminekin arrantzan irteteko esan beharko zitzaion. Bila joango gintzaizkion. Zelan? Hori kontaktua egin ostean erabakiko genuen eta, horretan burua lar ez nekatzea erabaki genuen.

–Bestela, zer moduz hire beste kontaktu hori –bota zidan Sinbadek.

–Elena? –galde egin nion, norengatik zioen argi nuen arren–. Ea gaur gauean etortzen den.

Eta isilik geratu nintzen. Mindurik. Elenaren hariari tiratzea latz egiten zitzaidan eta.

–Ez duk etorriko –esan zidan.

Eta ez zen etorri. Eta beharbada hobeto hala. Nahikoa edanda nengoen. Hori atekoak ere igarri zidan. Ez zen gure mutil belarriluzea, beste bat baino. Hala ere hark ere goizekoaren gauza bera esan zidan.

–Elena ez da etorri.

Gau erdian itolarria egin zitzaidan. Handik behera bota nituenen artean arimaren zati bat ere joan behar zitzaidala uste izan nuen. Sinbadek zer zela zekien Elena ez zela etorriko, ez zitzaidan galdera egitea otu.

–13–

Berriro kazetariekin lanean hasi beharko nuen egunean goiz jaiki nintzen. Erdi aje erdi burutentelkeria batekin. Hala bada, Bilbon paseotxo bat egitea erabaki nuen. Baraurik, burua arintzearren.

Hoteleko atezaintzan gure mutil belarriluzea zegoen.

–Non dira kanpoko kazetariak? –galde egin nion.

–Jantokian –esan zidan–. Indabak jaten!

Mutilak ez zituen britainiar haien jan zaletasunak ezagutzen. Ez eta nire literatura zaletasunak ere. Mahiaren gainetik *El Liberal* hartu eta alde egin nuen.

–Arriagako kafetegiko kanpoan izango naizela esan.

Egunkariarekin agur keinua egin nion. Ziur naiz ezin antzeman izan zuela zer zela eta hartu nuen paper hura. Galdetu izan balit ez nukeen erantzuten jakingo, egia. Ajearen eragina.

Areatza inguruan paseo alditxoa egin ostean terrazan jesarri nintzen. Kafe hutsak eta ogi apur batek zidaten kalterik egingo.

–Jauna? –esan zidan zerbitzariak.

Ez zen aurreko eguneko mutila. Salsamendi batailoian izena emana ote zen otu zitzaidan. Baina ez nion besteari galdetu. Zer nahi nuen agindu nion. Eta egunkaria irakurtzeari ekin nion. Harik eta klik nabarmen bat aditu zen arte.

–Arranoa! –irten zitzaidan.

Klik hots haren erruduna begien aurrean nuen. Gizonezko gazte bat zen. Ezagun-aire bat antzeman nion, baina ez nintzen nor zen berehala jabetu. Segundo erdi baten tartea behar izan nuen. Buruk erakutsitako kazetari-argazki haietako batean ikusia nuen. Izena ez nuen luzaz pentsatu behar izan.

–Robert Capa? –ozen esan nuen.

Robert zen. Robert Capa zorionekoa. Zutitzeko keinua egin nuen. Mahaira jesarri zen, bere Contax kamera dotorea hantxe utzita. Egia da gero askotan irakurri dudala haren kamera Leika zela. Baina ez. Contax zen. Sinetsi niri. Kamera kontuetan zerbait badakit eta.

Hala bada, kamera han utzi zuen, mahaiaren gainean. Gero zigarro bat ezpainetara eroan eta beste bat neuri eskaini zidan. Ezetz esan, eta ezer hartu nahi ote zuen galdetu nion.

–Xanpaina, odol ttantta batzuekin –esan zuen Robertek.

Zutitu eta kafetegiaren barrura egin nuen.

–Atera birentzako xanpaina gure mahaira. Baina botila erakutsi barik –esan nion mutilari–. Kanpoko horrek gerra irabazi behar ziguk eta.

Handik apur batera etorri zen xanpaina.

–Bilboko ura –esan nuen, mutilak bi baso arrunt xanpainez beteak ekarri zituenean–. Odola, norberak jarri beharko dio.

Tarte bat egin genuen horrela, elkarri zirika. Eta ziriak ziri, emakumeez mintzatu ginen. Horrela jakin nuen Robert hura nire moduan zegoela. Maitemindurik. Gerda Taro izeneko batekin. Eta jakin nuen, baita ere, emakume hura Robert Caparen bidearen berdintsua egina zela. Alegia, jaiotzako izena ez zuela Gerda Taro, Gerda Pohorylles baino, eta alemaniarra zela.

«A ze parea», pentsatu nuen nire artean.

Entzuna nuen Robert Capa, sortzez hungariarra eta erlijioz judua, André Friedmann izana zela. Hungariatik lehenik eta gero Alemaniatik alde egina, izenez aldatzea erabaki zuen. Capa hura Frank Capra zinema zuzendariari ostu omen zion eta, enborretik ezpala, Robert izena gogoan ez dudan aktore bati. Robert Taylor hari, akaso? Ez zen makala mutila.

Hartan ginela San Nikolas elizatik meza entzunda irteten ari ziren gizon-emakumeei begira jarri zen gizona.

–Kale giro polita –esan zuen.

Eta zutitu egin zen, bere Contax kamera eskuan. Orduan nik ere presa nuela esan nion.

–Beste kazetarien bila noa eta, oraintxe nator.

Hotelera egin artean txirene hura ikusi nuen, San Nikolas elizarantz barik Areatzako zubirantz aldenduz.

«Topa dik zoro horrek zeri argazkia egin», esan nuen nire artean.

Areatzako zuhaitzen artean gizonezko batek margotzen ziharduen, aulkitxoan jesarrita. Jendetza polita zuen hark atzean, sortzen ari zen

koadroari begira. Itxura batean Roberti huraxe egin zitzaion deigarri.

Hoteleko hallean, hantxe zegoen Bruno Mendiguren, taldetxo batekin frantsesez hizketan. Hurreratu egin nintzaien.

Bruno Mendigurenen taldeko batzuk lehendik nituen ezagunak. Besteak berriak ziren. Faxisten erasoaldiak eta gure erantzunak mundu erdiaren begiak gurera adi jarraraziak zituztenak.

–Kazetarietako bat falta da: Robert Capa –esan zidan Mendigurenek, beste denak nor ziren esan ostean.

–Horko kanpoko guda-oinean topatu dut –esan nion, ironiatsu, kazetarien diziplina ezarekin moldatzea zein zaila zen ulertarazteko moduan.

Azken batean Bruno Mendiguren kazetarien alderdi teorikoaz arduratzen zen. Esan nahi dut, berriak zelan landu iradoki, gure intelektualen iritziak behar bezala helarazi eta halakoak egiten zituen. Nik berriz tropa haren seguritateaz arduratzeko agindua nuen. Bide batez informazio baliagarriak atera ahal ote nituen ahalegin-

tzen nintzen, hori ere egia da. Baina haien segurtasuna zen nire zeregin nagusia.

Eta halaxe izan zen berriro Gudarostearen uniforme jantzita nenbilena, berriro kazetariekin, berriro George Steerrekin, eta Noel Monksekin; eta lehenengoz Robert Caparekin. Hark ere ez zuen amaiera politik izango. Baina hori askoz geroagoko kontua da.

Egun haietan Roberten umoreaz lagundu genituen frontetik zetozen berriak, eta baita hara egiten genituen bisitaldiek denoi eragiten zigun mingostura leundu ere. Nire kasuan mingots egoteko motiboa Gure Gizonaren egoera zen. Harexengana joaten zitzaidan gogoa, Sollubera inguratzen ginen aldiro.

Goizetan egiten genuen hara, eguraldi eskasak horretara behartuta. Esan nahi dut hegazkinek airera egiteko eguraldia egiten zuela, eta egunez mugituz gero haien mende izaten ginela. Eta zelan, gainera. Faxistek aire indar denak jarri zituzten jokoan.

Bermeo ez zen Guadalajara, itsasoa zuelako. Baina zerua badute biek, eta egun haietan Gaztelakoa bezain oskarbi ageri zen gure itsasertze-

koa. Zeru argi hartan faxisten hegazkinek egundoko lana egin zuten.

–Ez nuen uste faxistek hainbeste hegazkinik zutenik –esan zidan halako batean George Steerrek.

«Ezta nik ere», esatekotan izan nintzen.

George Steer haren obsesio nagusia hegazkinak ziren. Abisinian egona zen, noiz eta italiarrek, Sollube inguruan ziharduten ofizialetako batzuk tarteko, han gerran jardun zutenean. Halaxe ezagutu zuen hegazkinek eragin dezaketen izua. Eta izu hark ez zion sekulan bakerik emango.

–Maskarak beharko genituzke –esan zidan Sollubera joanak ginen lehengo egunean.

Ez ulertua egin nion. Baina ez zen Abisinian egona zen bakarra. Noel Monks ere han egona zen. Eta Steerren iritzi berekoa zen.

–Faxistek hegazkinetatik gasak jaurti ahal dituzte –esan zidan Steerrek berriro–. Italiarrek Abisinian bezala.

Monksek arrazoia eman zion. Horrela bada, hurrengo egunean gas maskarak eskatu nituen. Kazetariek Astra pistola bana bazeramaten, zer-

tan ez maskararik eman. Ez zidaten jaramonik egin.

–Ez duk posible –esan zidan Buruk.

Baina Buruk bazekien posible zela. Bazekien han aurrean genituen militarrek Afrikan gasak erabili izan zituztela. Mairu edo beltzen edo afrikarren kontra, bai, baina azken batean erabili egin zituzten. Eta ez bakarrik italianoek Abisinian. Baita espainolek ere Marokon, 1921etik 1926ra bitartean. Halaxe gogorarazi nion Bururi.

–Aurrean ditugun faxista horien goi-buru militarretako batzuk gasak erabiltzen ohituta zaudek –esan nion.

–Eroan, baina ez gureei erakutsi gero!, eurak aurrean direla ipintzea ezinbestekoa izan ezik.

Ez zen ezinbesteko suertatu maskarak jantzi beharra. Tamalez faxistek balizko gasak baino arma sendoagoak zituzten. Artilleriak txikitu egiten gintuen, gudontzietatik ez ezik errioaz beste aldetik ere, hegazkin handiek bonbez josten gintuzten eta txikiek arrasean ekiten ziguten. Horiei gureek fusilez erantzuten zioten. Alferrik? Bat behera botatzera iritsi ziren eta, hura poza. Poz

erdia, egia esan, hegazkin hark Gernika aldera egin baitzuen. Faxisten aldean lehorreratu zen.

Kazetariek berriz balentria hura egin zuen gudaria ezagutu nahi izan zuten. Fusil-tiroz hegazkin bat bertan behera! Tamalez edo suertez ez dakit, ez genuen tiratzaile hura topatzerik izan. Bai ostera Isaac Puente anarkisten batailoiko batzuk. Herrian egonak ziren, kanposantuan.

–Han lehendik lurpean zeudenak baino faxista gehiago akabatu genituen han –esan zidan batek, fanfarroi.

Gure Gizonaren berri ba ote zekiten galdetzea otu zitzaidan, zeharkako bidez.

–Kanposantu inguruetan izan aurretik herrian izan zineten?

Ezetz esan zidaten. Baina entzuna zutela han beste kamarada batzuek faxista oilobusti bat harrapatu zutela. Bermeon fusilatu omen zuten.

–Herriko maisuetako bat. Armairuan ezkutaturik topatu ez zuten, ba?!

Eta horrelaxe izan zen gerran hildako ergelenaren ipuina kontatu zigutela. Kazetarien aurrean. Kazetariek berriz ez zuten haien erdara mordoilo eta biraoz josia lar ulertzen eta, gai-

tzerdi! Gure aldean noizean behin goikoen baimenik gabe tiroren bat botatzen zela esatea ez zen komeni. Bai ostera gure indarren gizatasunaren testigantza ematea. Horretan Robert Capa zen nagusi. Ergelaren ipuina kontatzen zihardue-nari argazkitarako jartzeko eskatu zion.

–Ni? Argazkitarako? –lotsa eta emozioaren artean esan zuen.

Emozioak gainez egin zion lotsari. Eskuan pistola, lepo gainean fusila eta buruan kaskoa, *Gudari* aldizkariko azalean agertzeko moduan jarri zen. Harro-harro. Hortxe daukat argazkia, beste askoren artean.

Ozta-ozta egin zion lau bost bider klik Robertek. Halako batean klik barik ta-ta-ta hotsa aditu zen. Hegazkinak! Eta denak lurrera.

Hegazkinen beldurrez, iluntzen zuenean itzultzen ginen Bilbora. Eta hantxe egiten genuen afaria, hantxe egunerokoez hitz egin, eta elkarri aupada eman. Horretan Bruno Mendigurenek zuen denontzako sua.

–Herriak eutsi egingo dio –esaten zigun.

Ezin jakin sinesten zigutenentz. Haatik, Mendigurenek bere zereginari ekiten zion, sutsu.

–Bihar ez dago Solluberik –esan zigun gudaoinetan izan osteko haietako batean–. Burdinazko Gerrikoaren inguruak erakutsiko dizkizuegu.

Eskertu egin genuen biharamunerako zegoen plana. Edo kasik. Hara eta hona ibiltzeko Packard kamioi haietako bat jarriko ziguten. Hori entzutean Robertek aireportura joateko baliatu ahal izango zuenetz galdetu zuen.

–Argazkiak Parisera bidaltzeko.

–Jakina –erantzun zuen Mendigurenek.

Ez dakit zer izan zen okerrago. Sollubera joatea ala biharamunean Packard kamioi hartan egin genuen eguna. Hara eta hona ibili ginen, lasai antzean. Baina lasai antzean baino ez, niri, begien aurrean zer agertzen zitzaigun, bihotzak gora edo behera egiten baitzidan. Gogorrena portuan izan zen. Erbesterako joateko zain zeuden haurrak eta jagoleak han ikustea ez zen samurra izan.

–Geldi hemen –agindu zuen Capak.

Eta hantxe gelditu ginen. Gizonak haurren erretratuak egin nahi zituen eta, portuko nasa artean galdu zen. Tartean beste kazetariek portuaren defentsak aztertzeari eta Interbentzio

Ezaren Aldeko Indarren politika kritikatzeari ekin zioten. Capa itzuli zen arte.

Negarra zekarren begietan.

–Alderraien garaia, bizi dugun hau! –esan zuen, bera nazien atzaparrei ihes egitearren alde egina zela gogoratuz–. Goazen.

–Aireportura –agindu nion txoferrari.

Eta aireportura jo genuen. Robertek bere argazkiak bidali nahi zituelako ez ezik beste kazetari bat ere itxaroten genuelako. Jay Allen zuen hark izena.

Ez zen edonor Jay Allen. Gerrako kazetari ospetsuena bilakatu zen, Francori berari egindako elkarrizketa bategatik eta, batik bat, Badajozko sarraskia salatu zuena izan zelako. *The Chicago Tribune*n 1936ko abuztuaren azken aldera argitaratutako lan baten bidez, hain zuzen. Bruno Mendiguren pozik agertu zen, hura gurekin zela eta.

Bada, Jay Allen hura bildu genuen, eta Bilborako bidean Robertek bere aldarte ona erakutsi zuen.

–Jatekorik gabe etorri haiz, jakina –esan zion, frantsesez, etorri berriari.

Allen hark ez zion zirikadaren nondik norakoa harrapatu.

–Beste bat jateko, eta jateko gutxi –esan zion orduan txoferrari Robertek, geldialdi bakoitzaren ostean txoferraren alboan jesartzen baitzen.

Robert gazteak beti txoferraren alboan nahi izaten zuen.

–Zer gerta ere –esaten zuen behin eta berriro.

Ez zen ezergatik kikiltzen. Ez eta alarma adarrek denok gordelekuetara jo genezan dei egiten zutenean ere. Halakoetan hoteletik kalera ziztu bizian egiten zuen.

Afarietan jarduten zuten eguneko halako kontuez haiek. Ze, esanak esan, kazetarien mahaian ez zen jatekorik falta izaten. Ez eta pasadizo xelebrerik ere. Batzuetan asmatuak zirela ematen zidan. Hala ere bazen pasadizo haien testigurik. Bat, Vincent izeneko kazetari amerikarra.

–Gaurko bonbardaketan jazo zaiguna bai galanta –ekin zion behin Vincentek.

Guk denok ezezko keinua egin genion, berak edo Robertek kontatu ezean jazotarikoa zelan jakin ez genuela adierazi nahirik.

–Goizeko bigarren bonbardaketaren tartean izan da. Honek –Roberti begiratuz esan zuen– hegazkinei begira geratu direnei ekin die, argazkiak atera eta atera. Ondo egina, alajainkoa! Argazki politak izango dira. Baina handik minutu batera, hura zaparrada. Aspaldiko bonbaren batek eragindako zulora egin dugu, blaust!

Robertek ezin zion barreari eutsi.

–Ez gara zulo horretara egin dugun bakarrak izan. Hantxe izan dira bertoko batzuk ere. Baina gizon hau –Roberti seinalatuz esan zuen– ijito hutsa da.

–Ijitoen herrikoa, baina judua –zuzendu zion Robertek.

–Denekin hitz egin beharra duela esan nahi dut. Ez zaio ba hitz egiten hasi alboan suertatu zaigun bati, bonben eztanden erdian?

–Eta zer esan dio? –nik.

–Kaixo! Kazetaria nauzu!

–Eta zer erantzun dio besteak? –Mendigurenek.

–Zer? Ba zera: ni apaiz katolikoa nauzu –Vincentek, bere kontaerari eutsi guran.

Une batez gerraren oihartzuna isildua zela zirudien. Jantokian lasai-lasai afaltzen ari ziren faxista haiengatik izan ez balitz erabat ahaztuko nintzen. Eta eskertuko nuen gerrarekin une batez behintzat ahanztea, ezin bainuen Gure Gizonaren akordua burutik kendu.

–Ba, hango hirugarren batek zer esan duen badakizue? –kazetari amerikar Vincent hark istorio hartako txinparta nagusia azkenerako gorderik zuen –. Hara ofizio bi, egoera honetan ezertarako balio ez dutenak: argazkilaria eta apaiza!

Ez zuten egoera hartan balio, ez. Bai gero, ostera. Bonbardaketetan hildakoei abadeek bekokian gurutzea egiten zieten. Eta Robertek, Georgek, Noelek, Vincentek, Jayk, gero ere gero baliagarriak izan zitezkeen argazkiak eta idatziak egiten ziharduten. Ahaztuak dira horiek eta horien lanik gehienak gaur. Baina ez naiz horretan sartuko. Gau hark, maiatzaren 6koak, beste ustekabekorik ere ekarri zidan.

Gau hartan Sinbad agertu zen gure mahaira.

–Ene! –esan ahal izan nuen bakarra izan zen.

–Jesarri hemen. Ezer hartu nahi duzu? Egia esan, oherako ginen ja –esan zuen Bruno Mendigurenek.

Sinbadek ez zion onartu gonbita. Trago bat zuela keinu egin zuen, eta besotik oratu nin-duen, zokondo batera joan gintezen.

–Arranoa, Uriarte! Kontaktua egin diagu. Goizaldean Gure Gizona handik ateratzen ahalegin-duko gaituk.

Eman ahal zidan berririk pozgarriena zen hura. Elena han ez zegoela ahaztuz gero, behinik behin. Baina hura ahazterik ez zegoen. Gerraren aztoramenari alanbre gainean legez eusten zion emakumearen premian nintzen.

Ez nuen esperantza erabat galdu. Goian itxa-rongo nion. Sinbadek alde egin ostean, bai.

–14–

Maiatzeko egun hartako gauean ez ninduen loak hartu. Sinbad joana zen, goizaldean, baina Elena ez zen agertu. Bada, egunak argitzen hasterako jagita nengoen. Presa nuen, ordurako Gure Gizonaren auziak zirt edo zart egina behar baitzuen.

Zazpi egun zituen maiatzak. Halaxe zioen atezaintzan hartu nuen *Euzkadi* haren aleak. Eta halaxe zioen CNTren orri-ale hegalariek ere. Beraz, ez nengoen mundutik aparte. Maiatzaren 7a zen. Ados. Paper klase bi haiei ekitea erabaki nuen, Torrontegiko jantokian gosaltzen nuen artean.

Ez zitzaidan gogoko han gosaltzea, baina goiz hartan Sinbaden telefono deia itxaroten nuen. Eta, zertan ez aitortu, elkar berriro ikusi ahal izateko Elena sasoiz etorriko ote zen esperantzan nengoen.

*Euzkadi*k zekarrenak gosaria alaitu zidan, eta bai zera ere.

Esanda nagoen moduan, Mallonaren oharra zekarren egun hartako *Euzkadi*k; apirileko azkenetan herriko elizatik desagerturiko ontzi sagaratuak itzuliak ziren.

Poztu egin nintzen. Batez ere *Euzkadi* hartakoak irakurri ostean CNTren orri hegalarietan irakurri nuenagatik. Anarkistek herriari armak ematea eta denak Sollubeko frontera joatea proposatzen zuten. Horrekin batera, eskuragarri egon zitekeen urregorri guztia biltzea galdatzen zuten, horrela arma berriak erosi ahal izateko. Gozo jarriko ziren anarkistak gure gudarien zintzotasunari esker urregorrizko ontziak berreskuraturik zirela jakitean. Berreskuratuak, bai. Zertarako baina?

Eta hartan nengoen, atezainetako bat bila etorri zitzaidanean.

–Uriarte? –galde egin zidan, Uriarte neu nintzela seguru zegoen arren.

Gizalegeak horrela egitea agintzen zion, eta gizalegez erantzun nion.

–Bai?

–Dei bat.

Banekien telefono deia zena. Sinbadena, dudarik gabe. Ez nekiena, zer zuen Sinbadek niri esateko. Astiro jagi nintzen, nire buruari horrela egiteko agindu ez banio arinegi joango nintzatekeelako. Eta ez zen modua izango. Hain goiz eta bonbardeoetan hasita bagina legez ibiltzea hotelean, esan nahi dut. Ez. Astiro jagi nintzen eta are astiroago egin nuen telefonoaren zokondorainoko bidea.

–Arranoa! Non egon haiz? –Sinbadek aztoraturik hitz egin zidan.

–Zer dugu? –ahalik eta lasaien hitz egiten ahalegindu nintzen.

–Arrain barik itzuli dituk –bota zidan.

–Gero egongo gaituk –esan nion.

–Nire bulegoan, goizean. Edo bestela Kasinoan, eguerdian.

Eskegi egin genuen. Biok batera.

Une hartan ziurtzat eman nuen. Hila zen Gure Gizona. Zelan? Horixe jakin nahi izango nukeen neuk ere. Telefonoa berriro altxatu eta atezaintzaren erantzunaren zain lotu nintzen. Tartetxo hartan barrua pittin bat lasaitu zitzaidan. Agian Gure Gizona ez zen hila.

«Beharbada ez dik kontaktuaren lekura ailegatzeko modurik izan», pentsatu nuen nire artean.

Nire buruarekin bakea hala edo zelan eginda, atezaintzatik noiz arraio erantzun behar zidaten madarikatzen hasi nintzen. Gure Gizonaren zera ez madarikatzearren.

–Esan? –atezainak aparailua hartu zuen, azkenean ere.

–Mendiguren jaunarekin hitz egin nahi diat. Uriarte nauk.

–Atoan!

Mendiguren eta Uriarte, izen biak hala elkarren segidan entzutean atezaina estutu egin zela uste dut. Segundo baten buruan hariaren beste muturrean nuen Bruno Mendiguren.

–Gaurkoagatik kazetarien zeretik libre geratu nahi nuke –esan nion.

–Arrazoia? –Mendigurenek, non ere zegoen, ez zuen denbora alferreko kontuekin galtzeko asmorik.

–Zerbitzua –nik ere ez nuen alferrik luzatzeko gogorik.

–Ondo da –esan zuen.

Telefonoak eskegitzean nire barru-barruan nabaritu nuen hutsuneak hortxe segituko zuen. Berrogeita hemeretzi, kasik hirurogei urtez. Une hartan, eta geroago ere, nahiago izango nukeen Gure Gizona hila zela ziur jakin, hilik ala bizirik ote zen zalantzarekin geratu baino. Zer egingo zaio baina. Hainbeste urteren buruan zalantza hura behin eta betiko kentzeko modua izan nezakeen. Bisitaria itzuliz gero behintzat.

–Talaian, elizondoan, hilobi bakarra egon zen ala bi egon ziren –galdetua nion bisitariari etxean azkenekoz izan zenean.

Bisitaria ez zen itzultzen, ostera. Eta esperantza ez galtzearren edo, maiatzaren 7ko hartakoak nire buruari behin eta berriro kontatzen saiatzen nintzen.

Bada, maiatzaren 7ko hartan ez nintzen Elenaren zain geratu. Ohar bat utzi nion, iluntzean Plentziako Kasinoan izango nintzela esanez. Eta elkar berriro ikusterik nahi izanez gero haraxe etortzeko. Gero, lehenago ere aitortu dudan legez, Mallonaren bulegora agertu nintzen.

Bulegoa? Tira! Ebakuaturiko herrietako udalbatzak eta funtzionarioetako batzuk Bilboko zen-

bait lekutan banatuak zituzten. Artean egin ahal zirenak egiteko. Zertzuk? Batez ere agiriak eman. Beraz, hala edo zelan, alkatetzako bulegoa zen Mallonaren Bilboko hura.

Gure Gizonaren berri jakitearren egin nuen hara. Azken batean urregorrizko ontziak itzultzera joanak ziren gudariek zer edo zer jakin zezaketen Gure Gizonaren kasuaz.

–Ez dakite ezer –esan zidan Mallonak–. Herrian zirenak herrian geratu ziren, ez zuten handik inor eroan. Zoritxarreko maisu hori izan ezik, han geratu ziren denak.

Maisua! Gerrako hildako bakarra bera balitz moduan. Gudariek herria utzi ondoren Gure Gizona han geratua zela, horrainoko beste banekien. Haatik, esperantza izpi bat ere banuen, herriaren inguruetan maiatzeko egun haietako jotaldietan eta atzera-aurrerakoetan guretarikoen arteko norbaitek herriraino egiterik eduki izan ote zuen, eta alkateari hango berririk ekarri ote zion.

–Eta faxistak herrian sartu ostean, handik ihes egitea lortu duen baten bat etorri zaizu? –galde egin nion Mallonari.

–Ez! –bota zidan, haserre kutsu batez.

Haserre haren zergatia lehenago ere kontatua dut. Gerrako hildako ergelenaren kontuarekin aztoraturik zegoen. Esan niezaiokeen gerraren legea gorrotoa dela, eta faxistek begia begi truk egiten zutela. Baina ez nion begia aipatuko hari. Berak galdutakoaren truke ez zuen beste inori begia kentzerik nahi Mallonak.

Samindura sakon batek harturik utzi nuen ba alkatearen bulegoa. Hura leuntzeko ukendu bakarra zegoen. Barruari alkohol igurtzi batzuk egitea. Sinbaden bila jo nuen.

–Huts egin diagu, ezta? –horra esan nizkion lehengo hitzak.

–Bai –erantzun zidan.

–Zer ordutara arte daukak hemen egon beharra –galdetu nion.

Tartetxo bat hartu zuen erantzun aurretik. Itsasoko Ertzaintzaren Plentziako bulego hartan mugimendu polita zegoen eta, zer egin pentsatu beharra zuela eman zidan.

–Goizeko gorabeheren txostena etorri arte –esan zidan–. Hori sinatu ostean, libre!

Eta libertate horren promesak gogoa suspertu ziolako edo, telefonoa hartu zuen.

Ez zuen ezein numerorik markatu behar izan. Barruko deia zen. Txostenaz galdetu zuen.

–Egina? Ba, erdu –esan zion hariaz beste aldekoari.

Eskegi eta segundo pare baten buruan hantxe zegoen Itsasoko Poliziako gizonetako bat. Sinbadek zigarrotxo bat isiotu zuen.

Etorri berria arrantzale zaildua zela igarri nuen. Ez galdetu zertan igarri nion. Beharbada zutik egoteko moduagatik. Oinen azpian ontzia ez izatean seguru sentituko ez balitz moduan zegoen.

–Jesarri, Tiburtzio –agindu zion etorri berriari.

Gizona, lehenik txapela kenduta, hantxe jesarri zen, Sinbad eta bion artean.

–Goizekoen gaineko informea etorri artean, laburtu ahal diok honi –nigatik zioen– zer pasa den goizeon?

Tiburtziok labur, zehatz eta artez ekin zion. Aitaginarrebak, arrantzalea bera, eta Tiburtziok haren ontzia hartu zuten. Abraren inguruetan arrantzuan ausartzen ziren ontzi bakanetakoa

omen zen aitaginarrebarena. Santurtzin, hango-ak baitziren gizon biak. Ikusi zutenek diru apur bat ateratzearren zihoazela pentsatu bide zuten. Sei egun baziren Tiburtzio Itsasoko Poliziatik zer-bitzu normalera aldatu zutela eta, inork ez zuen hura txalupan ikustean susmo txarrik egingo.

–Andrea arduratu zen herrian denek jakin ze-zaten ni mobilizatua nintzela, eta laster bidaliko nindutela frontera, eta hantxe hilko nautela ere! –esan zuen Tiburtziok, lotsaturik–. Itsasoko Poli-zian larrua behin baino gehiagotan jokatu izan ez banu moduan.

Hori esatean keinu bat egin zuen, niretzat ulergaitza. Sinbadek berriz zerbait endelgatu zion, zigarrotxoa eskaini baitzion. Gizonak gustu-ra hartu zuen. Gero begira geratu zitzaidan, nik zigarrorik hartu ez izana ezin ulerturik.

–Eta? –zirikatu egin nuen.

–Eta ezer ez –erantzun zuen, hitz bakoitzare-kin kea gozatuz–. Ez zen agertu.

–Nor? –nik.

Sinbadek nire urduritasuna nabaritu zuen.

–Beste ontzia –esan zuten biek batera.

Zerbitzu berean ibili izanak enbor bereko ezpal bihurtu zituela eman zidan.

Beste ontzia herriko Benjaminen ontzia zen. *Ur-Txori* hura. Gure Gizonarekin kontaktua azkenekoz egin zutenean harexengana joateko agindu zitzaion.

–Benjaminek ez zioan ezer galdetuko Gure Gizonari, faxistatzat zuenez gero –esan zuen Sinbadek–. Eta faxistatzat izan ez balu ere, berdin. Benjamin kaka dariola bizi duk. Beraz, Gure Gizonak Armintza aldera eroateko eskatu zioan, eta Benjamin eskaria betetzen ahaleginduko huen, gizon haren zeregina gure aldekoekin isilpeko traturen bat egitea zelakoan, edo batek zakik zer pentsaturik. Baina isilik egongo zela, ziur!

Bada, eguna argitu baino nahikotxo lehentsuago Tiburtzioren aitaginarrebaren arrantzuntzia Armintza aurrean zegoen. Ez zen bakarra. Beste hiru-lau txalupa ere haraino ausartuak ziren.

–Gosearen kilika –esan zuen Tiburtziok, zigarroari zupatuz, kontaeraren hariari utzi eta arnasa hartzearren.

Horixe zen nik barrenean nuena: gosearen kili-kilia. Baina ez nuen esan. Hori halako orduetan denok izaten genuen eta. Tiburtziok aurrera egin zuen.

Behin Armintza aurrean, Tiburtziok eta aitaginarrebak argi seinaleak egiteari ekin omen zioten. Tarteka-tarteka. Benjaminek haiek ezagutu zituelakoan.

Zer zela eta ezagutu beharko zituen seinaleok, gure Jaurlaritzak faxistekin egin izaten zituen preso-trukeetan ibili zirenei galdetu beharko zitzaien, inori galdetzekotan. Azpi jokoa ulertutzat eman genuen denok.

Halako batean ontzi bat hurreratu zitzaien. Gizon bakar batekin.

–Benjamin? –esan nuen.

–Bera –esan zuen Tiburtziok–. Behingoan ezagutu nuen. Gizona den hankandia gero! Txopako masta baino tenteago zegoen. Seinalea egin zigun. Kalan arrainik ez dagoenean legez. Orduan guk gure karelera hurreratzeko keinua egin genion, baina kea! Buelta eta etxerantz egin zuen.

Tiburtzio isildu egin zen. Beraz, huraxe zen dena. Sinbadek behintzat halaxe ulertu zuen.

–Ondo da –batzarra amaitutzat emanez esan zuen.

Zutitu, txapela jantzi eta jaunak! esan ostean aldendu egin zen.

–Horra zer dugun –esan zuen Sinbadek, Tiburtzio joandakoan.

–Ezer ere ez! –erantzun nion.

Orduan bulegoko eskribaua agertu zen.

–Jauna! –esan zuen.

Eta orri pare bat mahaiaren gainean utzita berriro irten zen.

–Ezer ere ez, diok? Hauxe diagu –esan zuen Sinbadek, orriak sinatzeko keinuarekin batera.

Komunerako papera zela esatekotan izan nintzen. Baina hobe isilik egotea.

–Gizonak herrian segitzen dik –esan zuen.

–Betiko –esan nuen, nire artean hildakotzat emanez.

–Nork daki? –esan zuen.

–Hilda badago bai behintzat –esan nuen, mingosturaz, esan nahi nuena Sinbadek argi ulertzeko moduan.

–Geu hilko gaituk lehenbailehen zeozer jaten ez badugu –erantzun zuen–. Laurak! Goazen Kasinora.

–Batzuk zein ondo bizi diren kritikatzen ditek ezkerreko paperetan –esan nion.

–Eta zer uste dute, ba? Gosez hilda hobeto egongo ginatekeela, ala? Goazen.

Itsasoko Poliziaren Etxetik zuzenean moilara jo genuen, beste aldera eramango gintuen bateltxoa hartzera. Orduan aire-erasoaldia iragartzen zuen alarma adarrak jo zuen. Portuan ziren gehienek pausoa behartu zuten. Itxurak gordez batzuk, bizkorrago besteek, gordelekuen babesaren bila ekin zioten. Sinbadek ez entzuna egin zuen.

Moilara ailegatu ginen. Han ez zegoen batelaririk.

Sinbadek moilan lotutako sokamutur bat hartu zuen. Sokan behera begiak beste muturreraino joan zitzaizkidan. Intxaur azaltxoa zen Sinbadek askatu nahi zuen ontzia. Makinarik gabekoa.

–Nora hoa? –galdetu nion.

–Ez goaz Kasinora, ala? –soka askatua eskuetan zuen.

Bateltxoan sartu nintzen.

–Neuri utzi arraunak –agindu zidan, sokamuturra eskuetan, bateltxora salto egin eta batera.

Munduan bateltxo hura, gu biok eta Kasinoa, beste ezer ez balego moduan ekin zion.

Hegazkinak gure gainean igarotzen hasi ziren.

–Bateltxo hau jotzen badute, faxisten aldera pasako nauk –bota zuen.

Bihotza ikara batean neukan. Gogora etorri zitzaizkidan aurreko egunetan kazetariekin eginiko txangoak. Gure haurrak erbestera eramateko ziren ontziak bisitatu genituen eta, haietako batzuk artean portuan ziren. Sinbadek begietan igarri zidan barrua astintzen ninduen ikara.

–Lasai, ez zoazak portura –esan zidan, arraunei eragiteari utzi barik–. Begira.

Hegazkinei begira lotu ginen. Egia. Ez zihoazen Bilbo aldera, Sollube mendiko atzeguardiara baino. Deriora, Zamudiora, Mungiara. Handik lasterrera lehenengo bonben ziztua aditu ge-

nuen. Orduan Sinbadek berriro arraunei ekin zien.

–Beraz, batzuk ondo bizi garela, e? –esan zuen, aitatu nion paperen harira esan zuen–. Kasinoan ikusiko dugu hori egia denentz. Apaijoa oraintxe berton botatzen ez badugu, ez dakit nik zer jango dugun, ba.

Nik neuk ez nuen lar jan. Kasinora iritsi eta atoan joan zitzaidan gosea, hegazkinak ikusteak kendu ez zidan gose apurra.

–Uriarte? –galde egin zidan zerbitzari batek, mahaira jesarri eta behingoan.

–Arranoa! –irten zitzaidan–. Denok ezagutzen nauzue, ala?

Atezainak telegrama bat pasatu eta alde egitekotan izan zen. Sinbadek besotik oratu zion.

–Ardoa –eskatu zuen, nire aztoramenari jaramonik egin barik, Kasinoan telegramak hartzea munduko gauzarik arruntena balitz legez.

«Telegrama hona? Nork?», pentsatu nuen, eta erantzuna berehala etorri zitzaidan–. Elena!

Estura batean ireki nuen telegrama.

«*Bordeleko ardoa ekarriko dizut. Stop. Elena.*»

Ez zioen besterik.

Sinbadek begietan beti izaten zuen irri-keinu zorrotz harekin begiratu zidan. Telegrama luzatu nion.

–Ez diat esan, jakitun izango hintzelakoan. Atzo goizean ontzi bi abiatu hituen Bordelera. *Habana* eta *Goizeko Izarra*. Elena horietako batean joango huen.

–Hi bai gibelandia! –haserretu nintzaion–. Zeinetan?

–Nik dakita, ba? *Habana* ontzian bi mila neskato-mutiko izan dituk joateko; *Goizeko Izarra*n berriz mila emakume. Hik heuk erabaki zeinetan joan ote den –etenaldi bat egin zuen–. Ontziok joan-etorriko laburrak egiten ari dituk-eta, Elena laster izango duk berriro hemen.

Zerbitzariak ardoa ekarri zuen eta Sinbadek basoak bete zituen.

–Egon lasai. Telegrama hori itsasotik igorria duk-eta, gero argituko diat zeinetatik igorri duten –esan zidan, baso bat luzatuz.

–15–

Bisitariari atea zabaldu nionean kearen usaina nabaritu nion. Donibane eguna zen, jai eguna herrian, eta beharbada gaua suaren inguruan emanda zetorren. Ez nion galdetu. Kalean norbaiti erosi edo ostutako zapia lepoan zuela agertu zen. Ordurako kasik konbentziturik nengoen ez zela sekula berriro etorriko eta, beraz, Gure Gizonarekin zer egin zen zehatz jakin barik hilko nintzela.

«Herriko talaian hilobi bakarra egon zen, ala bi ziren?», berehala galde egiteko gogoak gainez egin behar zidan.

Galdera egiteko astirik eman gabe lepoan zekarren zapia kendu eta edateko zerbait eskatu zidan. Eguerdia zenez, eta herriko jaiaren eguna ere bazenez, ardo zuria atera nion.

–Donibane ospatzeko –esan nion, baso bi betetzen nituen artean–. Habanakorik bai? –zigarroa eskaini nion.

–Egunokin utzi egin diot erretzeari.

–Hara! Habanako lagun batek zigarro hauek bidaltzen dizkit. Lehen bat edo beste erretzen nuen, baina orain ezin. Tira, izango da erre nahi izango duenik.

–Herrian hilobi bakarra egon zen –pilotari taxuan bota zidan, bote prontoan, basoa hartzeko keinuan eutsiz hitzei.

–Pilotari ibilia zara?

–Bai. Baina horrek zein zerikusi du gure gaiarekin?

Ziur naiz. Une hartan bisitariak burua galdurik nuela pentsatu zuen.

–Estiloa duzu pilotariarena. Beraz, hilobi bakarra egon zen. Eta orain horren ezta arrastorik ere.

–Halaxe da, bai –erantzun zuen–. Herriko zahar askorekin hitz egin dut, horregatik luzamendua. Eta denek berdin esan didate. Hilobi bakarra egon zen han, Carril izeneko batena. Kontu handiz ibili naiz galdetzen, jakina; zertan nabilen argiegi esan barik.

–Eta jakin liteke zertan zabiltzan? –zirikatu nahi izan nuen.

Isilik geratu zen. Orduan nik kalkulu bat egin nuen. Hildako ezezagunen baten etxekoen abokatua izan zitekeen. Paperetan irakurri berri nengoen gobernuak dirua eman behar ziela gerran Errepublikaren aldean izan ziren militarrei, edo euren ondorengoei. Zera, Francoren aldekoek «errebelde» iritzi zieten legezaleei. Bada, hala bazen, izan, jai zuen. Gure Gizona ez zen militarra. Eta hildako Ezezaguna, Gure Gizona ez zen besteren bat izanez gero, gaitz izango zitzaion hura militarra zela frogatzea. Horretarako, lehenengo eta behin, haren izena jakin beharko baitzuen.

–Mallonaren kasua argitu guran nabil –nire pilotakadari erantzunez bota zidan–. Eta tartean beste kontu horiek tartekatu direnez, ba horiek ere argituz gero, taketa lez.

«Taketa lez! Noiz entzun dut nik hori azkenekoz?», esan nuen nire artean.

Gogoa maiatzeko egun haietara joan zitzaidan. Mendigureni entzuna nion horrela esaten? Ala pilotariren bati Habanan?

Habana! Izenarekin gogoratze hutsak piztu egiten nau. Rubén González kubatarraren aspal-

diko disko bat jarri nuen eta ardoari xurrut leun bat jo nion.

–Arraunlari ibilia ez zara, ezta? –bota nion.

–Lehen pilotari eta orain arraunlari ibilia naizen, zer da hau? Ba, ez. Ez naiz arraunlari inoiz ibili. Zergatik, ba? –pazientzia galtzen ari zela uste dut.

–Ezergatik ere ez. Herrian aipatu dizuten Carril hori ez zen Carril. Carril ezizena zen, estropadetako patroi entzutetsu batekin hark zuen antzagatik ipinia, hain segur.

Harriturik begiratu zidan, nik datu hura nola jakin nezakeen. Lehenagoko batean ekarri zidan heriotza-agiria atera nion. Herrian Carril deitzen zutenarena. Baina haren izena ez zen Carril. Ez.

–Hortxe izan behar duzu Carril haren benetako izena –agiria luzatu nion.

Bisitariak aditasunez begiratu zuen. Eta bai, hantxe zegoen talaian lurperaturiko haren izena.

–Hemen dago –esan zuen bisitariak–. Eta ez da Carril, ez.

–Beraz, hildako bi eta hilobi bakarra dugu.

–Halaxe dela dirudi. Eta hala izan bazen, talaian hilobi bakarra egon bazen, non lurperatu

zuten Ezezaguna? Eta Ezezagun hori herrian zenuten Gizona zen, ala?

Zuzen erantzun beharrean aurreko egunetan buruan erabili nituenak kontatzea erabaki nuen. Eta halaxe azaldu nion Gure Gizona herritik ateratzeko ahaleginean egindako hutsa.

Azalpenak amaitu ostean berriro egin zidan lehenagoko galdera bera.

–Ezezagun hori herrian zenuten Gizona zen?

–Burua erabiliz gero, zuk zeuk izango duzu erantzuna –bota nion.

Begira geratu zitzaidan. Neuk azaldu beharko ote nion ba burua zelan erabili?

–Ezezagunak tiro bi zituen, ezta? –esan nion–. Parietalean bata eta bihotzean bestea. Beraz, odol hotzean hil zuten. Ados?

Baiezko keinua egin zuen.

–Zergatik akabatu zuten odol hotzean?

Ez zidan erantzun.

–Tiroak jo zizkiotenek erruduntzat zutelako. Hain erruduntzat ze, juizioaren aukera ere ez zioten eman nahi izan.

–Edo amorratu egin zitzaizkion, eta amorruaren amorruz jo eta bertan seko utzi zuten, borrero halakoek –esan zuen bisitariak.

–Haria harrapatuz zoazela ikusten dut, arranoa! –pozik esan nion–. Borreroen amorrua eragin zezakeen zerbait behar zuen izan beregan Ezezagunak.

–Zer baina? –pentsakor bota zuen bisitariak–. Beharbada faxistek beren aldekoa ez zelako hil zuten, besterik gabe.

–Eta isilpean lurperatu? Ze Ezezaguna isilpean lurperatu zuten, Carril ezizeneko hura lurperatu behar zutela baliatuz zulo bakarrean gorpu bi sartuz. Horrexegatik ez daki inork han gorpu bi izan zirena. Hala da ze, zergatik isilpean gorde behar gorpu hura?

–Herrian ezaguna zelako? Izena bazuelako? –bisitaria jokoari atsegina ateraz zihoan.

–Izena bazuela, ziur. Baina herrian ezaguna zen eta, horixe da honen guztiaren giltza. Ezaguna zelako lurperatu zuten ezkutuan. Hari heriotza eman ziotenik inork jakin ez zezan.

–Eta horrela egin bazuten, gero zer dela eta ez zuten herrian haren hutsa nabarmendu? Ze

galdetu egin dut, lehen esan dudan moduan kontu handiz, herrian egun haietan inor hil ote zen, eta Carril hori baino ez zela hil esan didate.

Ardo zuriari beste jotaldi bat egin nion. Bisitariak denbora nirekin emateko zuen zioa asmatu ezinik baina jolasarekin atsegindurik nengoen. Kanpoan jai eguerdietako giroa zegoen.

–Korapiloa askatzen hasteko sokaren muturrak bereiztea da lehenengo beharra –esan nion.

–Esan nahi duzuna da hildakoa ezaguna zela herrian? Hori batetik; eta bestetik haren falta herrian inork nabaritu ez zuela? –esan zuen bisitariak, hitzei eskuekin lagunduz, korapiloaren sokamutur biak eskuetan balitu moduan, jokoan erabat sartua.

–Edo halako batean hura falta zela nabarmendu bazuten ere inork ez zuela esan: Urlia non ote dagoen!

–Logikoa dirudi, horixe da!

–Batzuek gizon hura faxista zela eta faxista izanda herritik faxistekin joana zela pentsatuko zuten. Besteek ostera gizon hura gurea zela eta gurea izanda gureen aldera joana zela pentsatuko zuten.

–Baina faxistek hil zuten –bisitaria bizkor erantzuten ari zen.

–Bai! Amorraturik akabatu zuten –bizkorrago nik.

–Eta amorru hori?

–Traidorea zela deskubritzean egin zitzaien amorrua.

Azken hori esatean pilota txapa gainean utzi nion. Garunak behartu behar izan zituen, pilotariak gerria behartu behar izaten duen berdin.

–Traidorea? –ozta-ozta altxatu zuen pilota hura.

–Horixe, bai, traidorea. Faxistek faxistatzat zuten hura, eta egoera hartan inongo faxista batek egingo ez zuen zeozer egin nahirik harrapatu zuten.

–Handik ihes egin guran –bisitariak korapiloa ia askaturik zuen.

–Adibidez.

–Portuan, Benjaminen ontzian sartu guran.

–Portuan bertan ez, beharbada –nik, oroimenean herria begien aurrean bezala nuela–. Nabarmenegia izango zen goizaldean portuan ber-

tan agertzea. Gogoan izan artean itsasoa gudalekua zena.

Une batez isilik izan ginen. Eta orduantxe ohartu nintzen. Gizona non ere harrapatu zuten, leku hori zein izan zen zehatz jakiterik ez genuen sekula izango. Logikaz jota, pentsa nezakeena zen hilik agertu zen lekutik gertuan izan zela. Eta egingo zizkioten galderak ere imajinatu ahal nituen. Eta aldean zer eroango zuen ere bai: Errepublikak emandako dokumentazioa.

–Horrek galdu zuen –bota nion, nire pentsamenduak niretzat gordeak nituela ohartu gabe.

–Zerk?

–Aldean dokumentazio hura eroateak.

–Zein dokumentazio? –jakin minaz suspertu-rik, ez baitzekien zein dokumentazio nuen nik buruan.

–Errepublikak emandako zera –duda egin nuen–. Zelan deritzozu orain? Nortasun agiria?

–Horrela edo –zapuzturik esan zuen.

–Hura aldean ekarri ezean problemak izango zituelakoan egin zuen horrela, inuxente halakoak! Errekistatu egingo zuten, ziur!, eta doku-

mentazioa topatu. Hura kendu eta danba-danba akabatu zuten. Amorruaren amorruz.

Egia da gerran ez dagoela amorragarriagorik traidorea baino. Horretan bihotzeko kontuetan legez izaten da.

Elena etorri zitzaidan gogora.

Zorionez ez nuen haren akorduarekin luzatzeko erarik.

–Baina norbaitek entzun behar izan zituen tiro hotsak.

Nire barreak Donibane Lohizuneko kaleetan barna itsasoraino joaten entzun zirela uste dut. Kanpoan jai giroa zegoen arren.

–Tiro hots haiek beste tiro hotsen artean, kukurrukuak berbenaren erdian! –esan nion–. Hori baino inportanteagoa da zein ordutan jo zizkioten tiroak.

–Eta zein ordutan jo zizkioten, ba? –jakin gurak erreta zegoen bisitaria.

–Kalean inor ez zegoen orduan. Toque de queda, amigo! Militarrek, beste inork ez zuen kalean ibiltzeko modurik. Arrantzaleak edo beharginen batzuk izan ezik. Eta horiek beti begipean. Horrexegatik esan dizut portua ez zen beste le-

kuren batean enbarkatu nahi izango zuela, eta hantxe harrapatu zutela.

Herriko lekuak eta Gure Gizona begien aurrean banitu moduan izan zen berriro. Eta horrela, Gure Gizona ikusi uste izan nuen, Benjaminen ontziaren zain. Eta faxisten patruila hantxe. Ezezagunaren gorpua agertu zen inguruan atrakaleku polita zegoen. Hantxe izan bide zen dena.

–Eta Benjamin ez ote zen konturatu? –isilunea etenez galdetu zidan.

–Seguruen, ez. Benjamin atrakalekura agertu zenerako Gure Gizona ez zegoen han. Eta han ez egotean alde egingo zuen.

–Gizona enbarkatu gabe, behin itsasora joateko itxurak eginda zegoenez atzera egiterik ez zeukalako.

–Horrexegatik, beharbada. Edo beharbada Benjaminek gizona ikusi zuen, bai, baina ez zuen enbarkatu nahi izan. Usaina asmatu zuelako. Eta usaina asmatu zuela pentsatuz gero, bila agertu ez zitzaiola ere pentsa liteke, eta kito.

–Edo Benjaminek txibatazoa eman zuelako harrapatu zutela Gizona. Benjaminekin berba egiterik balego!

–Beranduegi ari zara –esan nion bisitariari, arranguraz–. Benjamin horrek hilda egon behar du honezkero.

–Beste posibilitate bat ere badago –bisitariak pilota txapa baino goratxoago utzi nahi izan zuen.

–Bai –esan nion, pilota hura berehala altxatuz–. Faxistek Gure Gizonaren irratia detektatu izana ere posible da. Posibleena beharbada.

Aukeran hura zen sinesgarriena. Gaitz egiten baitzitzaigun Artxandako komunikazio sistema blindaturik mantentzea. Infiltratuak denean genituen.

Nola ere izan zen, hantxe zegoen erdi argiturik talaian lurperatu zuten bigarren gorpuaren misterioa. Hura Gure Gizona ote zen? Eta zer zidan horrek niri? Zer zion horrek inori? Gerran hildako beste bat, Gure Gizona eta Ezezaguna pertsona bat eta bera izanez gero. Edo hildako beste bi, Gure Gizona eta Ezezaguna bi izan baziren.

–Zuen Gizonaren berri ez zenuen harrezkero inoiz izan –bisitariak etsiturik galde egin zidan.

Ulertua zuen. Ageri zuen etsipenagatik diot.

–Ez –motz erantzun nion.

Elkarri begira geratu ginen. Ariman zuloa eginda genuen, eta zigarroa erretzeko gogoa egin zitzaiola nabaritu nion. Zuloa estaltzearren. Badakit nik erretzeari uztea zer den.

–Eta hau dena, zertarako? Zertarako ibili gara hemen Ezezagunaren gorpuarekin gora eta behera, eta Zuen Gizonarekin ere berdin, eta elkarri gerrako pasadizo lar ezagunak kontatzen. Zertarako? –esan zuen, sutan ia.

Bere buruarekin haserre zelako seinalea zen su hura. Berak esan moduan, pasadizo lar ezagunak ziren batzuk, bai, baina ezagunon artean bazen berririk ere. Gorpuarena, esate baterako. Ez zuen espero goizaldez eta odol hotzean tiro bi jota hil zuten harenak halako eraginik egingo zionik.

–Hau dena zertarako, diozu? –nire galderari erantzuteko tartea hartu nuen–, Mallonak gerraren gakoa non zen, edo zertan zen, antzeman ez zuela erakusteko.

Bisitaria isilik geratu zen.

«Gure bizitza den laburra», pentsatu nuen.

Gero gogoak 1937ko maiatzera egin zidan. Beste behin.

–Huts egite hark nigan porrotaren erabateko ziurtasuna landatu zuen –halaxe esan nion bisitariari.

–Baina aurrera ekin zenion.

–Sollube inguruetan gerrak, Mallonak bere erara ulertu nahi zuen gerra madarikatuak, aurrera segitzen zuen. Guda-oinetan tiro egiteko zen norbait geratzen zen artean eustea zen geratzen zitzaiguna. Eta nire betebeharra betetzen segitu nuen. Kazetariekin frontera joatean. Ez dituzu inoiz argazkiak ikusi, ala?

Buruaz baietz egin zuen.

–16–

Nire ex-libris bitxi kutunetako bat hartu nuen apalategitik; *Death in the Making* izeneko argazki liburua. Robert Capak eta Gerda Tarok sinatua, eta Bilbon ezagutu genuen Jay Allen kazetari haren hitzaurre batekin argitaratua, kaleratu eta denboratxo batera nik neuk erosia nuen. New Yorken. Bisitariari erakutsi nion.

–Lan ederra egin zuten argazkiok –esan zuen, liburuari begiratu arin batez hango argazkiak lehendik ezagutzen zituela adieraziz.

–Eurotan dira gerraren alderdietako batzuk, baina ez denak –esan nion, ni beraren gainetik nengoela nabarmentzeko–. Argazkiotan, hor dira zibilak, bonbardaketaren tenorean ihesean; hor umeak, zakuen artean ezkutalekuetako ahoen alboan; hor emakumezkoak, eguzkitan, buruan paperezko txanoak dituztela; hor erbesterako bidean doazenak ontzietan sartzen. Ohartu zara horietan ez dela arma bakarra ere erakusten?

–Beldurra, ikara eta izua erakusten dira, hirurak graduaturik. Eta baita bizi beharra ere –esan

zidan, argazkiak polito ezagutzen zituela erakutsiz.

–Eta hor da gerraren beste alderdi hori, gerra hutsarena –erantzun nion, lubakietako argazkiak seinalatuz.

Haatik, ez zuen argazkiekin luzamendurik nahi izan.

–Zer gertatu zen Robert Caparekin, George Steerrekin, beste kazetariekin? –bisitariak basoa luzatu zidan, ardo eske.

Lehenik ardo eskeari eta horren ostean galderari erantzutea erabaki nuen. Botila hutsik zegoen.

«Hobeto», esan nuen nire artean, botila hustuaren ordezko bila.

Horrela, beste botila bat atera, hura zabaldu eta basoak berriro bete arteko tartean barrua baretzeko astia izango nuen, galderak Elenaren akordua eragin zidan eta.

Bordeleko joan-etorria eginda berriro etxean izan zenerako Robert Capa, liburuaren egileetakoa, joana zen. Baina ez nuen nire burua mindu nahi Elena gogoratuz. Bisitariak Capa eta Monks

aipatu zizkidan, eta haiei gertatua kontatu behar nion.

–Robert Capa maiatzeko azkenetaraino izan zen gurean. George Steer ekaineko egun lazgarrietan ere gurean zegoen, eta gero Santanderrera egin zuen, Gobernuarekin batera han egoteko. Santoñakoa izan arte. Tartean beste kazetari batzuk joan eta berriak etorri, igaro ziren egunak. Robert Caparena izan zen tristeena. Bilbotik Madril inguruetara egin zuen, eta hantxe bildu zen Gerda Tarorekin. Handik laburrera bakoitzak bere aldetik egin ei zuten. Parisera gizona, Aragoi aldera Gerda. Eta hantxe hil zen Gerda.

–Zergatik aldendu ziren? –galdetu zidan bisitariak, erantzuna baneki moduan.

–Gerda Tarok bere karrera egin nahi ei zuen. Bestearen itzal gero eta luzeagotik aske. Baina hori ekainean izan zen. Orain kontatu nahi dudana, ostera, maiatzean jazo zen. Hamabian beharbada. Eguna ziur-ziur zehazterik ez badut ere, oso gogoan dut goizetik Areatzan ginela, betiko moduan, Packard haietako bat genuen zain egunak argitu orduko abiatzeko. Hegazkinen ikaraz

hain goiz, argi esanda. Eta hantxe sortu zen ika-mika itzela.

–Kazetarien artean?

–Bai. Ika-mika huskeria bategatik izan zela esan liteke. Robertek aurreko jesarlekuan joan nahi izan zuen, betiko moduan. Baina Jay Allenek ezetz esan zuen, berak ere noiz edo noiz aurrean joateko eskubidea zuela eta aurrean joango zela. Eta hantxe hasi zen dena.

Kontaketan eten bat egin beharra izan nuen. Gogoratzeak min ematen zidan

–Egun samina izan zen niretzat hura.

–Elkarrekin haserretu zirelako kazetariak?

–Ez. Begiratu –esan nion, apalategitik gutunazal bat aterata.

Gutunazal zaharra zen, Magnum etxearen helbidea inprimaturik zuena bera. Bisitariari luzatu nion.

–Museoko pieza –esan zuen bisitariak, begiak Magnum hitzaren gainean iltzaturik.

Astiro, barruan miatu eta argazkiak atera zituen.

Argazkietako batean, hantxe ikusten ziren hiru miliziano auto zartatu bateko gurpilak kon-

pondu nahian. Hurrengo argazkian hiru milizianook ageri ziren, berriro; autoa bertan behera lagata, korrika zihoazen, eskuetan kaxak hartuta.

–Ikusi duzu autoaren matrikula? –zirikatu nahi izan nuen, kazetari haien ipuinarekin une batez ahaztuta.

Bekainen keinu batez galderaren nondik norakoa ulertzen ez zuela adierazi zidan. Autoaren matrikula SS-4947 zen.

–Auto horren matrikulak gerraren azken bi hilabeteak zertan izan ziren erakusten du. Gipuzkoako frontea Bizkaiko azken mendietan zegoen! Eta mendion ostean itsasoa baino ez zitzaigun geratuko.

–Eta hantxe haserretu ziren elkarrekin kazetariak? –argazkiak mahiaren gainean utzita.

–Ez erabat, baina piperturik ibili zirela, hori ezin da ukatu. Ona zen ba Robert Capa hura! Ezetz jakin argazkion artean zeintzuk diren Robertenak eta zeintzuk Gerdarenak? –begirada atzera liburuan jarriz esan nion.

–Biek sinatzen dute liburua –erantzun zuen.

–Eta hirugarren batek ere sinatu beharko zukeen –esan nion.

Bisitaria ostera ez zegoen harekin interesaturik. Beraz, ez nion esan liburua sinatu beharko zukeen hirugarrena Chim ezizeneko bat zela. Hura 1936ko abenduan eta 1937ko apirilean ezagutu nuen. Berak eginak dira liburuko argazki batzuk. Baina ez du liburua sinatzen. Zergatik? Luze jardun nezakeen auzi-mauzi horretaz. Baina labur esanda, Robert Capak lagunaren argazkiak hartu eta hark eginak zirela argitu gabe, liburura! Halakoxea zen Robert. Gerda haserretu egin zitzaion; Chim ostera ez. Baina zein zen Chim haren jatorrizko izena? Ez nintzen gogoratzeko gai. Eta halaxe, hariari berriro oratu aurretik ahalegintxo bat egin nuen, Chim haren izena gogora ekartzearren. Zaharrago eta mingarriago egiten baitzaigu daturen bat gogoratu ezina.

Burua berriro galtzen ari nintzela pentsatuko zuen bisitariak. Baina ez. Ez nintzen burua galtzen ari. Egun hartako eginen haria ez galtzeko ahaleginean ari nintzen. Chim haren izena gogoratu ezean beste dena ere ahaztuko nuen.

–David Seymour, horixe huen Chim haren benetako izena! –ozen esan nuen.

Zelan ez nintzen akordatuko Alipasoloko kanpaina-mezan ezagutu nuen David haren izenaz? Hura ere jatorrizko izena aldaturik zuela gogoratu zitzaidan.

«Argazkilari haiek! Denak izen berriez mozorroturik», pentsatu nuen.

Jatorriz judu poloniarra, David Szymen zen David Seymour haren lehengo izena, eta hortik *Chim* ezizena. Haren izenaren gorabeherekin akordatzean oroigailua hain kalteturik ez nuela pentsatu nuen.

«Tamalez», esan nuen nire artean, egun samina izan baitzen gogoratzen ari nintzen hura.

Argazkietan dago saminaren zergatia. Sollubeko gaina galdurik, hura hesi moduan zegoen. Itsasoaren eta gure artean. Eta alboetara eroan genituen guda-oinak. Jatara eta Bizkargira, hara berriro igotzeko ahaleginean huts eginda. Labur esanda, gureak Mungia aldea defendatzeko prestatzen ari ziren. Tartean Mungia izeneko guda-taldea edo batailoia zegoen eta, horrek eskualde hura ezin galduko genuela zioskun halako uste isil bat eragiten zuelakoan nago. Izenek,

izen hutsek, errealitatean eragin ahal izango balu moduan. Sorginkeriaz edo?

Sorginen laguntza behar izango genukeen goiari eusteko.

Mungia batailoikoak ez ziren gure indar bakarrak han, jakina. Salsamendikoak ere hantxe zirela aitortu beharko nuke, horiek Robertekin zerikusia izan baitzuten. Egon ere, horiexekin egon ginen lehenik eta behin. Bizkargi inguruan. Han hartu nuen nik ustekabekoa, han.

–Ene, kamarada! –esan zuen batailoiko gaztetxo batek ni ikustean.

Arriagako kafeko mutila ezagutu nuen. Ni uniformez jantzita ikusteak eragiten zion harridura igarri nuen.

–Orain bai kamarada ni? –umore onez esan nion.

Besoak zabalik bera, besoak zabalik nik, elkarren lepoan bat egin ginen. Robertek orduan besarkada errepikatzeko eskatu zuen.

–Ez duk beharrezkoa –moztu zion Jay Allenek.

Hartua omen zuen berak gure besarkada bere kameran.

–Eta non da argazki hori? –galdetu zuen bisitariak, berriro interesaturik.

–Galde egiozu orduan metrailatu gintuen hegazkinari!

Begira geratu zitzaidan, zer esan nion ulertzen ez zuelako keinuaz.

–Etzinda! –aldarri egin nuen, gudari ikasketan erakutsi ziguten moduan–. Muturrekin behea jo genuen, eta hantxe egon ginen, lurra jaten. Ikusi izan bagintu ikusi, gudari ikasketako sarjentuak!

Zirikadak ez zion zirkinik eragin. Beharbada ez zekien sarjentu, gudari, ertzain eta halakoen eskarmenturik.

–Eta? –esan zuen.

–Kamera behera jausi eta zabaldu egin zen. Agur film hura!

Eta agur Salsamendiko mutil zintzoari ere. Handik egun batzuetara hil egin omen zen. Bizkargiko gainean. Hangoa bai sarraskia.

–Ez dakizu mutilaren izena? –bisitariak, itxura batean interesaturik.

Buruaz ezetz erantzun nion, behin Bizkargi hitza aipatuta derrigorrez Elena aipatu beharko niola pentsatuz.

–Gureek han elkar hil zutela esaten da –ekin zion bisitariak.

–Berdin esan zuten Lemoako Haitzeko batailaren ostean. Norberak norberaren aldekoari tiro egitea alde bietan gertatu zen eta, tira. Horraino, normala. Okerrena da faxistek gureetariko asko akabatu zituztela –esan nion–. Preso hartu zituztenak ahaztu gabe. Elenaren senarra horietako batean galdu zen. Lemoako Haitzean.

–Hilik? –bisitariak.

–Denbora batez ez genuen jakin hilik zen ala preso hartua zuten –nik, pasadizo hark eragin zidan erredura erabat sendatu barik nuela oharturik–. Batzuek bizirik zela eta preso hartu zutela esaten zuten. Baina nork jakin? Esan duzun legez, hangoa izan zen anabasa!

Hori esatean bisitariari arrazoia eman nion, nolabait. Gureek elkar hil zuten, bai. Baina nire mindura igarri zuen, beharbada, ez baitzidan zauri hartan hazka egin nahi izan.

–Harrezkero Elenak ez zuen nirekin ohekorik nahi izan. Tartetxo baterako behintzat.

–Lehenago bai eta harrezkero ez? Zergatik hori? –bisitariak interesatuaren itxura egin nahi izan zuen.

Azaldu egin nion, bada.

Elenak faxismoa hantxe bertan geldiarazi behar zela sinesten zuen. Faxismoa gizonkeriaren legea ere bazelako, besteak beste. Harro zegoen, senarra Salsamendin zuelako. Gerrako batailoi masakratuenen artean izan zen. Baina gerrak legeak ditu! Eta biak biharamunean elkar ikusiko ote zuten jakin barik gerran ziren artean elkarri askatasuna emanak ziren.

Halaxe azaldu zidan berak *gurea*ren arrazoia. Nik, egia esan, ez nekien sinetsi behar nion. *Gurea* elkarren larruak bat egitean biok sentitzen genuena bazen, besterik zen *gurea*. Eta hara non, Lemoakoa etorri zen. Maiatza bere azkenetan zela. Harrezkero, senarra hilik zela pentsatzen zuenean gogoa joaten zitzaion. Eta preso zela erabakitzen zuenean, harekin urrikaldu eta gupidatu egiten zen. Horrexegatik egiten ei zidan ihes. Halaxe esan zidan behintzat.

–Eta halaxe izan zen gerrako azken eguneta-ra arte –esan nion bisitariari–. Gerra madarika-

tuan elkar azkenekoz elkarrekin izan gau hartara arte.

–Baina elkar maite zenuten.

Baietz esan niezaiokeen, elkar maite izan genuela. Lehenengo momentutik. Eta hitz eginda geundela, gerra madarikatu hura amaitutakoan ikusiko genuela zer egin. Behin izara artean bota zidana esan niezaiokeen.

«Zu ezagutzea ziztada itzela izan da, kamarada; bihotza zatitu didazu», esan zidan.

Eta esan niezaiokeen *kamarada* berba Elenaren ahotik entzutean barre egin nuela.

«Honek bai ateraldiak», pentsatu nuen orduan, eta ez nion berbari beste garrantzirik eman.

Elenaren beste kontu asko ere esan niezaiokeen. Isildu egin nintzen, ostera.

Bisitaria, basoa husturik, begira geratu zitzaidan. Ziur naiz ezin sinetsi zuela nire adineko agure bat inoiz gazteago izana denik. Argazkiak eta liburua eskura luzatu zizkidan.

–Eta jakina, Robertek eta beste kazetariek alde egin zuten –esan zidan.

Bisitaria hariz aldatzen ari zen. Elenaren senarrarena noiz jakin nuen galdetu gabe.

–Batzuk bai –nik ere kazetarien hariari oratu nion–. Besteren batzuk hantxe geratu ziren, azken egunetara arte.

Gogora George Steer etorri zitzaidan, eta harekin batera Lauaxeta. Estepanek preso segitzen zuen, trukearen zain. Eta bazegoen norekin trukatu, alajaina! Ez ginen ba faxistez inguraturik bizi? Horretaz ohartzeko hoteletara joatea baino ez zegoen. Baina gure goi agintariek ez zuten gerraren legea konprenitu nahi. Edo ezin zuten. Edo ez zuten ulertzeak derrigorrez eskatuko zituen erabakiak hartu nahi izan.

Faxista haietako batzuk preso hartu eta trukea proposatu beharko genukeen. Edo garbitu bestela. Ez genuen egin. Eta ataka hartan batzuek italiarrekin tratua prestatzen ziharduten. Maiatzean, bai.

–Mallonak ez zuen gerra hura konprenitu –bota zidan bisitariak, nire pentsamenduen nondik norakoa igarriz.

–Ez Mallonak, ez beste askok –esan nion, minduraz–. Batzuek ihesari eman zioten; herriko

alkateak berriz bere burua entregatu zuen. Errugabea zela-eta, errurik ezean zigorrik ere izan behar ez zelakoan.

Ihesari eman ziotenek bazekiten Mallonak ez zekiena. Preso jausiz gero fusilatu egingo zituzten. Ia ziur, erabat ziur ez esatearren.

Císcar eta *José Luis Díez* gudontzietan ihes egin zuten haiexek zeuden lekzio hori ondo ikasita. Lehenago erreakzionatu izan bagenu, lehenago. Eta ez zen izan ahaleginik egin ez genuelako.

–17–

Ekainaren lehenengo eguneko goizaldean, uniforme ofiziala berriz janzteko ordua iritsi zitzaidan. Berri eskasak, Burdinazko Gerrikotik zetozenak. Batez ere Lemoako Haitzetik. Gerrikoaren barrutik zetozenak ez ziren hobeak. Esku kolpea jo beharra zegoen. Hainbat tokitan.

Esku kolpea jo behar genuen *Císcar* ontzian. Ezinbestez. Eta ez hartan bakarrik. Baita *J.L. Díez* ontzian ere. Habiak ziren, habia etoiez beteak.

Ez dut esango operazio hartan nire gogoa behartuz parte hartu nuenik. Frontea jausten zihoan, eta geratzen zitzaigun bakarra Burdinazko Hesiaren esparrua zen. Bada, hobe gogoa ustez Errepublikaren alde ziren ontzi bietan eman beharreko kolpeari ekitea.

Guk uste baino hobeto joan zen dena. Esku kolpea eman bitartean ontzietako etoiek sabotajeren bat gauza zezaketelako beldur ginen arren.

–Ikusitakoak ikusita, ezin diagu okerrik txikiena ere egin. Hiri, Uriarte, *Císcar* tokatu zaik –esan zidan Buruk, bulegora agertu nintzenean.

Eskertu nion tratu zuzen hura Bururi. Peril handietan sartzekotan nintzen seinalea zela begitandu zitzaidan.

–Bihar ordu honetan berton gura haut, dendenaren berri zuzena eta zehatza emateko –agindu zidan Buruk.

Eta hogeita lau orduren buruan hantxe nengoen. Eman beharreko informazioa idatziz ekarrita gainera. Orri piloa zen.

–Polito egin duk hire lana, zorionak –orriei begiratuz esan zidan.

Ez nekien *Císcar*ren egindako lanaz ala hangoak idazteko egindako ahaleginaz ari ote zen. Orriengatik bazen, ez zekien hark zergatik egin nuen orri pilo hura. Ala bai?

*Císcar*rekoak izan zireneko gau lo egin gabeko haren osteko goizean Elena ikusteko irrikan nintzen, aurreko egunetan ez bainuen haren bila ibiltzeko astirik eduki.

Bada, bihotza artean kolkoan, Hotelera joan nintzen. Barkatu, Lehendakaritzara. Emakumea han ikusiko nuelakoan. Edo abisua pasatuko zidatelakoan. Ez bata eta ez bestea. Eta *Císcar*rekoak idazten eman nuen goiza.

–Egoera hartan, zertarako hainbeste paper? –eten zidan bisitariak.

–Normaltasun itxurak egiteko. Nolanahi ere, lana eskertu zidan Zerbitzuburuak. Baina orrietan zirenak laburtzeko eskatu zidan.

Banekien zorionak egindako lanagatik zela esateak lotsa eragiten ziola. Beraz, laburtu egin nizkion zorioneko orriek ziotena. Ahoz.

–Nik neuk ere eskertuko nizuke laburtze hori –eten zidan bisitariak.

Eskatua bete nion, apur bat gogoz kontra.

–Bezperako gauerdian Ertzaintzaren konpainia bi agertu ginen La Naval ontziolako kaietan. Hortzak estu eta iskiluak eskuetan estuago, gizonak ontzietatik gertu babestu ziren. Denak. Zortzi gizon izan ezik. Horien artean ni neu. Nire zeregina lehen tiroa jotzea zen. Jo beharra suertatuz gero, behintzat. Buru eta biok ziur ginen: indarra erabiltzearen premian izatera iritsiz gero, gure mutilei gaitz egingo zitzaiela bando berekoei tiro egiteko agindua betetzea.

Bisitariak nire orduko estura igarri zuen.

–Eta zertarako zihoan tenientea, ba? –galde egin zidan, militar-hierarkietan sinesten duenaren fedeaz.

–Tenientea ere ez zen ausartuko. Horrelaxe esana zidan Buruk, nire zeregina azaldu zidanean. Zorionez, ez zen tirorik jo behar izan. Ertzaintzaren konpainiei ontzi banaren inguruan zelatan ondo babesturik utzita, tenienteak eta zazpiok *Císcar*reko eskalan gora egin genuen. Guardiako marinela gaztetxo bizargorri bat zen. Lo seko zegoen.

–Edanda? –erantzuna igarriz bota zuen bisitariak.

Azken batean *Císcar*ren sartzean tenienteak egin zidan galdera berbera zen bisitariarena. «Edanda?», galdetu zidan tenienteak; baietz erantzun nion, nire Astra kutuna atzera gerrikoan sartzeko keinu batez.

–Ez zuen susto makala hartu marinel hark, horrela iratzartu zenutenean –umoretsu eten zidan bisitariak.

–Artean erdi lotan, gizon bik nasara eroan zuten marinel hura. Eta gu barrura –gogoratzeak min eragiten zidala oharturik jarraitu nuen–. Eta

behin *Císcar*reko barrunbeetan zeruak eta lurrak madarikatu nituen. Lehorretik etorritako erreforzuekin marinelak iratzartu, armak kendu eta horiek lehorrerako bidean sartu ahala ontziaren gaitasunez ohartuz joan nintzen. Hilabete lehenago Bermeo aurretik alde egin izan ez balu!

Ardoari xurrut leun bat egin nion. Harea modukoa nuen ahoan. Ontzia utzi nuenean legez.

–Ontzia utzi nuenean harea modukoa nuen ahoan –jarraitu nuen–. Kamioietan sartuta, hantxe ziren haiek, gureak ala etsaiarenak, zer ziren ez genekien gizonak. Edo bestela koldar hutsak ote ziren? Jainko laztana. Beharbada denetik zegoen. Etoiak, infiltratuak, fedea galdutakoak eta zintzoak. Gauaren babespean Deustura abiatu ginen. Iluntasunean hegazkinik ez eta, lehen itzalekin batera hasten zen Bilbo itzartzen –beste eten bat egin nuen.

Ez nion esan nahi izan Bilbon giroa non zen jakiteko Goi Agintaritza Militarreko batzuei galdetu baino ez zegoela. Edo Sinbadi bestela. Baina Sinbadena diferentea zen. Gero gerokoak, Sinbadek ez zion guda-oinetan izateari muzin egiten. Baina honetaz ez nion deus esan Bururi,

ez eta bisitariari ere. Nire gogoetak ziren. Deabruaren gogoetak, loa eragotzi behar zidatenak.

–Behin Deustura iritsita, denak giltzapean sartu genituen. Zorionez, gure Zerbitzuak egina zuen bere lana: *Císcar* eta *J.L. Díez* ontzietako buru, buruorde eta burugabekoen artean fidelak eta susmagarriak bereiztekoa. Ustez salbagarri zirenei atzera kamioietan sartzeko agindua eman zitzaien.

–Garbiketa ederra –eten zidan bisitariak.

«Bai zera!», esateko gogoa egin zitzaidan; horrela egin beharrean hurrengo orduetakoak azaltzeari ekin nion.

Goizaldeko laurak ziren kamioiak atzera Navaleko nasara abiatu zirenean. Ontzi bakoitzeko hirurogeita hamar gizon euren postuetara itzuli ziren. Gainerakoek lehorrean geratu beharko zuten. Horien hutsuneak betetzeko bolandresen arteko beste ehun eta bosna gizon sartu genituen *Císcar* eta *J.L. Díez* haietan.

–Hala, amaituak ziren marinelen komiteak, soldaduen batzarrak eta erreboluzioaren zerak –bisitariak bere oniritzia eman behar balu moduan esan zuen.

–Onerako ala txarrerako, ez naiz ni nor hori esateko –esan nuen, bisitaria ezker muturrekoa ala kontrakoa zen igarri ezinik–. Ontzietan betiko hierarkia zaharra ezarri zen, hau da, komandantea komandante, marinelak marinel eta tartekoak tarteko. Eta agur lagunok!

–Eta? Pozik? Edo lasai behintzat? –galde egin zidan bisitariak, kasik hirurogei urte lehenago Buruk egin zuen bezala.

Zer erantzun beharko nion gure Buru hari? Lehen ez nintzela ontzietako ofizialez fio, eta harrezkero askoz gutxiago fidatzen nintzela? Neure larruari eusten nahikoa lana nuen. Eta bisitariari, zer esan behar nion ba?

–Gero etorri zirenak ezagunak dira –bota nion bisitariari–. Zuk zeuk erabaki pozik egotekoa zen, ala zer.

Bururi berriz beste modu batez erantzun nion.

–Paperetan dago dena –gogoan dut esan niona–. Baina bada beste gai bat ere ardura handikoa.

–Esan! –erantzun zidan, ordura arte hitz egindakoa baino ardura handiagoko gairik ez balego tonuan.

–Ahaztu! –esan nion.

Ez nion ofizial haien kontra ezer esan. Denborak egingo zidan arrazoia eman edo kendu. Buruk bereari ekin zion.

–Aditu dituk Gerrikotik datozen berriak?

–Ofizialak? –ziria sartzeko gogoak gainez egin zidan.

Zerbitzuburuak ez zion nire ziriari jaramonik egin. Begi keinu batez dena esanda zegoela eta alde egiteko adierazi zidan. Eta ospa egin nuen, Torrontegira, Elena gogoan.

Hotelean hantxe nuen ohar bat. Atezaintzako gure mutilak lotsaz luzatu zidan. Elenarena zen.

Presaka idatzia, metrailaren euria baino zaurigarriagoa zen. Senarra Lemoako Haitzeko batailan desagertua zela zioen Elenak. Eta elkartuko ginela beste egunen batean, hartarako astia hartuz gero.

«Ama zakurraren gerra hau!», irten zitzaidan.

Lemoakoa maiatzaren azkenetan izan zen. Albistea Elena berriro ikusiko ote nuen burua

hausten ibili ostean zetorkidan eta, hara. Kolpearen gogorra begietan igarri behar zitzaidan. Ziur.

Atezaintzako gure mutilak ez zuen deus esan. Seguru asko ohar hura Elenak bere aurrean idatzi eta eskura eman zion. Emakumearen keinuetan igarriko zuen oharrak zioena ez zela gozoa izango.

«Gerraren legea», pentsatu nuen nire artean, apur bat bareturik.

Baina gerraren legeetan legerik gogorrena zein da-eta norbait desagertua dela jakitea da, desagertu hitz horrek zehatz zer esan nahi duen jakin gabe. Hilik? Preso? Ihes egina? Denborak argituko zuen hori ere. Artean, Elena ez zegoen niretzako.

Elenak eta biok elkarrekin egoteko modua izan genuenean ekaina bere erdia egitekotan zen, Bilbo galtzekotan ginen eta hondamenera bidean gindoazen. Haurrak eta gazteak erbesteratzen amaiturik, nagusien ihesaren tenorea zen. Horren lekuko, portuan bildurik zegoen jendetza. *Habana* eta *Goizeko Izarra* ontzietan lekurik ba ote zegoen, zain. Elena etorri zitzaidan go-

gora. Aspaldi amaituak behar zituen haurrekin egin beharreko txango haiek.

Eta non ote zen jakiteko modurik izango ez nuela etsiturik nengoelarik, iheserako bidea bilatzen zuen jendetza haren erdian ikusi nuen.

–18–

Jende aldra haren artean nahastezina egin zitzaidan Elenaren ekilibrista gorputza. Hango anabasan sekula baino ekilibristago, inoiz baino duinago. Eta nire begietara inoiz baino gorputzago.

–Elena! Elena! –aldarri egin nion.

Elenak bere izenaz dei egiten zionaren bila ekin zion, begietan itxaropen izpi bat pizturik zuela. Itxaropen hori ez zen nire ikustea espero zuelako. Behin ikusi ninduen, eta ez ninduen ezagutu, begiekin bilatzen segitu baitzuen. Gero beste segundo bat behar izan zuen, begirada atzera egin eta dei egiten ziona nor zen ohartzeko.

–Senarra han ikustea espero zuen, agian –bota zidan bisitariak.

Halaxe zen. Dei egiten ziona neu nintzela ohartu zenean geldi lotu zen. Elbarriturik bezala. Eta gero negarrari eman zion.

Jendearen artean nire uniformeari esker leku eginez hurbildu nintzaion.

–Elena, Elena maitea! –besarkatu egin nuen.

Orduan berak malkoak eteteko ahalegina egin zuen.

–Ez da agertu –esan zuen–. Ez da agertu!

–Zer egin behar duzu? –galde egin nion–. Elkarrekin geratuko gara, neuk zainduko zaitut, neuk bilatuko dizut senarra.

–Ez da beharrezkoa –esan zidan, amorruz.

Nire aurrean negar egin izanak eragindakoa zen amorrua. Eta negar egin izanak eragiten duen amorruak, gero beste amorru biziago bat ekarri izaten duenez, zakar bota zidan hurrengoa.

–Zuk hura bilatzeko modua duzun legez nik ere nire modua badut.

Ez nion zer esan nahi zuen ulertu. Eta nire ingurura begiratu nuen, Elenaren senarra portuko zokondoren batean balego moduan, haren hitzek sorgindurik.

Mundu bat zegoen han. Gudarosteko agintariak, funtzionarioak, alderdietako buruak, aberats jendeak, kazetariak, marinelak, milizianoak, gudariak, emakume eta gizon arrunten artean galdurik bezala. Baina gehienak ez zebiltzan gal-

durik. Ihes egiteko modua bilaturik zuten. Eta aukeraren zain ziren.

–Zer egin behar duzu orain? –galde egin nion–. Carltonera ez zara itzuliko, ezta?

Burutik eginda banengo legez begiratu zidan. Eta begirada hura amaitu baino lehen besoetan nuen. Ez berari gogoak horretara eman ziolako. Jendeak bultza egin eta behera jaustekotan izan zelako baino.

Eskuek haren gerri-atzeko zokondora egin zidaten, eta ezpainak haren lepo hezurreko malda beheran joan zitzaizkidan.

Handik aurrerakoa zoramena izan zen.

Jendea artean leku eginez, beste aldera eroango gintuen txalupatxoren baten bila ekin genion. Eta hantxe ikusi genuen Sinbad.

–Arranoa, Uriarte! Elena! –esan zuen Sinbadek, arduraturik– Zuek ere hemen.

–Gaua non eman bilatzen dugu –esan nion.

Sinbadek lehenengo niri eta gero Elenari begira geratu zen.

–Hemen denek utzi nahi dute habia. Eta hainbat arinen. Egizue berdin!

Une batez lepoa bihurtu eta alde egingo zuelakoan egon nintzen. Horrela egin beharrean biraoka hasi zen.

–Kagoen zotz, Uriarte! Kagoen zotz!

Gero nasara begiratu zuen.

–Goazen –esan zigun.

Elenak besotik eutsi zidan, eta halaxe joan ginen biok Sinbaden atzetik, aztoramen eta ernegu hutsa zen jendetzaren artean leku eginez. Bizkor.

Ez nekien nora gindoazen. Berdin zidan. Errioan moilaturik ziren gudontziei begiratu nien. Denen artean *Císcar* eta *José Luis Díez* haiek gailentzen ziren. Bazebilen mugimendua haietan. Eta makinak pizturik zituztela igartzen zen. Tximinietan gora egiten zuen ketan.

Nasara iritsi ginen.

Hantxe ziren beste hainbat ontzi, gerrakoak baino askoz txikiagoak. Baina egoera hartan besteak bezain baliagarriak. Ihes egitekoak baitziren, etsaiari aurre egiteko barik. Horrelaxe ulertu nuen haietan zebilen jendearen aztoramena. Arrantzaleek itsasora sekula eroaten ez zituzten apaijoak biltzen ari ziren. Maletak eta.

–Igo! –agindu zigun Sinbadek, ontzitxo bat seinalatuz.

Ontzitxoan sartu ginen hirurok. Isilik.

Sinbadek makinatxoa abiarazi zuen eta nik artean ontzitxoaren sokak askatu nituen. Segundo batzuen buruan ibaia zeharkatzen ari ginen. Nora?

–Hor ez zagok inor! –Sinbadek Itsasoko Poliziaren patruila-ontzi bat seinalatuz esan zidan.

Haraxe gindoazen.

–Burutik gaude –esan zidan orduan Elenak.

–Bai –esan nion.

Gaua bizkor zetorren eta, patruila-ontzira iritsi ginenerako ilun zegoen.

–Goizaldean bila etorriko zaizue –esan zigun Sinbadek.

Makina abian baina txalupa geldi, esku biekin patruila-ontziko karelari ahal moduan eusten ari zen.

–Hi heu etorriko haiz? –galde egin nion, Elenari beste ontzian sartzen laguntzen niola.

–Ez arduratu –esan zuen–. Ni ez banaiz besteren bat etorriko zaizue bila.

Eta halaxe izan zen. Beste bat etorri zitzaigun bila. Goizaldean. Herrira egin nuen joan-etorrian txofer izan nuen gaztea; Badiola hain zuzen.

Baina tartean Elenak eta biok ordu batzuk izan genituen han, faxisten hegazkinek gerrarako ez-gai utzitako ontzi ilunean. Negarrerako, damurako, madarikaziorako, larrutarako orduak izan ziren. Etsiturik, grinatsu, malkotan, infernura kondenaturikoen larrua izan zen gau hartan jo genuena. Gudontzien makinen hotsak inguraturik.

Eta ez ginen ohartu. Ez mutila hantxe zain noiztik izan genuen, ez eta *Císcar* eta *J.L. Díez* ontziak alde eginak zirenik ere. Bigarren horretaz ontzitxoan sartu ginenean ohartu nintzen.

–Eta gudontzi nagusi biak? –aztoraturik galdetu nion gaztetxoari.

Eguna argitzen hasia zen.

–Traidore zerrikume horiek? Alde eginak! –esan zuen gazteak.

Damu jasanezina egin zitzaidan. Eta ez nion galdetu nondik nora etorri zen bera gure bila, Sinbad barik. Ez nuen erantzuna jakin nahi. Bat-

batean kaioen txilioen kontzientzia etorri zitzaidan. Hasia zen eguna.

Nasara iritsi ginenean, orduantxe ohartu nintzen gazteak uniformean zeraman ikurraz. Alderdi Komunistarena. Eta banekien partidu komunistakoa zena baina, zotz!, egoera hartan ikustea itxaroten nuen azkena zen.

–Kamarada! –ukabilaz egin zuen agurra.

Agur mutu bat egin nion.

–Goazen! –esan zion mutilak Elenari, niri deabruari legez begiratuz.

Sinbadek behin baino gehiagotan esandakoaz gogoratu nintzen.

–Kontuz Elenarekin! –esaten zidan.

Eta hara zergatik.

–Komunista zelako? –bisitariari jakin gura piztu zitzaion.

–Carlton Hotelean, barkatu – nire burua zuzendu nuen–, Lehendakaritzan infiltraturik zegoelako ustea nuelako. Senarra, Salsamendi batailoikoa, komunista zuen eta, gure Zerbitzuek beti izan zuten emakumeak Errepublikaren Zerbitzu Zentralarentzat lan egiten ote zuen susmoa.

Hitzok esan ostean leihora urreratu nintzen. Donibaneko portua han aurrean nuelarik, Santurtzikoa etorri zitzaidan gogora. Bisitariari ez nion orduan sentitu nuena aitortuko. Ez nion esango bat-batean Elena nirekin elkartu izanaren arrazoiaz hausnartu behar izan nuenik. Hura ez zitzaidan bat ere gogoko egin.

Gure Zerbitzuaren berri jakitearren izanak ote ziren gure gauak? Dibortzio bat neraman lepo gainean, mingarria guztiz. Eta hara!

Halaxe ikusi nuen Elena burkide harekin joaten. Tarte baterako joana zela begitandu zitzaidan. Eta orduan barruak esan zidan ez nintzela gerra hartan hilko. Elenarekin hitz egin beharrekoa nuenak blindatu egingo ninduela erabaki nuen. Eta halaxe izan zen.

–Eta Zerbitzu Zentral harentzat lan egiten zuen? –bisitariak nire gogoetatik atera ninduen.

–Bai –esan nion.

Halako moduan esan nuen bai hori, bisitaria isilik lotu baitzen. Ni berriz, nire gogoetan zulora itzuli nintzen.

Zoritxarreko egun hartan ekainak 14 zituen, eta nire zeregina gerra hartan egokituko zitzai-

dan zikinena zen. *Císcar* eta *José Luis Díez* gudontzi madarikatuak alde eginak ziren, eta hartan gure agintarietako batzuk. Alde egindakoak nortzuk ziren eta zer zeramaten galdatu behar genuen.

Sinbad zintzoa! Etorriko ziren egunen eta etortzekoak ziren negozioen berri jakin ote zuen, eta alde egiteko erabakia horrexegatik hartu ote zuen, halaxe geratu nintzen berria jakin nuenean. Tarte bat beharko nuen galdera zuzen-zuzenean Sinbadi berari egin ahal izan aurretik. Baina artean, ekainaren 13ko hartan, ez nekien Sinbad bera ere ihesa prestatzen ari zenik.

–Ihesaren ordua zen –nire gogoetetatik irtenda esan nion bisitariari–. Denontzat.

Isilik begiratu zidan. Itxuraz, ezaguna zuen ihesarena. Eta gerrako azken egunetako dena ere. Nire gomutetara itzuli nintzen. Zorigaiztoko ekain hartan, 1937koan, itsasoa ihesbide bilakatu zen.

Ahal izan zutenek diru eta guzti egin zuten alde. *Císcar*ren joan zirenek, esate baterako. Nire zeregina, esan moduan, haien izenak ahalik eta azkarren jakitea eta gobernuari jakinaraztea

zen. Zeregin gogorra izan zen. Joandakoen artean Bruno Mendiguren zegoen. Hark bai, jota utzi ninduen.

Akordua kazetariengana joan zitzaidan. Joanak ziren Robert Capa eta David Seymour 'Chim' argazkilari haiengana, joanak ziren Noel Monks eta Jay Allen kazetariengana, eta hantxe segitzen zuen George Steerrengana.

Beraz, Bruno Mendiguren alde egina zen. Eta gure Zerbitzuko buruetako batzuek ere bai. Ezin sinetsi nuen. Hantxe bertan Elenaren atzetik joan eta harekin noranahi joateko gogoa egin zitzaidan. Baita Madrilera ere, hango lubaki edo barrikadaren batean elkarren alboan hiltzera. Beranduegi. *Císcar*ren eta *José Luis Díez*en joandakoen zerrendak osatu genituenerako gaua zen.

–Gero Gobernuak Kantabriara egin zuen –bisitariak gogoeta eten zidan.

–Eta Mallonak herrira! –sututa esan nion.

–Oraindino mingarri zaizu? –nire suak ikaraturik.

Esan ahal nion baietz, mingarri zitzaidala. Baina besteena zitzaidan mingarriago. Handik

denbora batera Euzko Gudarosteak Santoñan bere burua entregatu izana, esate baterako. Beharbada hura bidean zetorrela jakin zuen Mallonak, nork daki. Eta faxistak hain krudelak, hain gupidagabeak eta hain bihotz gogorrekoak ez zirela pentsatuko zuen. Eta herrira egin zuen, errugabearen kontzientzia garbiaz.

–Katolikoa zen Mallona –esan nuen–. Beste ezeren gainetik, katolikoa!

Disko-jogailuan aspaldi amaitu zen Rubén Gonzálezen diskoa, kanpoan eguerdia zen eta zerbait jateko ordua ere bazela erabaki nuen. Finean, kanpora irten beharra nuen. Gonbidapena luzatu nion bisitariari.

–Autoa gidatzeko gai bazara bazkaltzen gonbidatzen zaitut.

Buruan txapela eta aldean jaka arin bat jantzi, besapean nire karpetarik bereziena hartu eta poltsikoan visa sartu ostean kanpora egin genuen.

–19–

Europan izan naizen artean Citroën etxeko autoei fidel izan natzaie. Gerrako haiexen akordua, beharbada. Eta Europa esaten dudanean kontinentea esan nahi dut. Britainia Handian eta Irlandan izaten nintzenetan besterik izaten baitzen autoen kontua. Eta beste kontu batzuk ere diferente izaten ziren haietan. Baina hariari!

Bisitariak gogoz hartu zuen gonbidapena, eta are gogotsuago onartu zidan autoa gidatzeko eskaintza. Egia esan, oraindino hortxe garajean daukadan Citroën hori gidatzea gozamena da.

Autoa harturik Ziburu aldera jo genuen. Telesforo Monzon bizi izan zeneko etxearen inguruan oroimenak hobeto lan egingo zidalakoan.

Lapurdira gerrako azken egunetan etorri nintzenetik hara, ingurua polito aldatua zegoen. Etxeetako koloreek irauten dute. Eta itsasargiaren dorreak. Harexeri begira jesarri nintzen.

–Mallonak hona etorri ahal izango zuen, Sinbad eta besteek bezala; baina begira zer egin

zuen –esan nuen, ia-ia nire buruarentzat, karpeta mahaiaren gainena utzita.

–Hona etorri zen Sinbad? –bisitariak, karpetari begira.

Erantzuteko astirik izan orduko zerbitzaria etorri zitzaigun, zer hartuko genuen galdetzera. Ardo zuria agindu genion. Eta Baionako urdaiazpikoa. Eta gogoan ez dudan beste zerbait ere bai.

–Ez zait komeni urdaiazpikoa. Nire adinean, badakizu –esan nion–. Sinbad eta itsaso poliziako beste batzuk Baionara etorri ziren. Bai.

Isilik geratu ginen. Ardoaren eta urdaiazpikoaren zain bezala. Baina ez zen hori gure isiltasunaren arrazoia. Airean zegoen Sinbaden ihesa traizioa izan ote zen. Baina berak ez zidan galdetu, eta nik ez nion tiratu.

«Ez, Sinbad eta ihes egindako besteak ez ziren traidoreak izan. Edo Sinbad ez, behinik behin. Hurrengo urteetan egingo zituen zerbitzuak ziren testigu», pentsatu nuen nire artean.

Ez nion esan. Eta hantxe segitu genuen, isilik, jatekoari eta ardoari ekinez. Mallonaren azken egunak gogoratzeak min ematen zigun. Bioi.

Niri, arraioa!, oraindino min ematen didalako. Berari, ez dakit zergatik. Baina susmoa nuen laster jakingo nuela.

–Mallonaren kalbarioa noiz hasi zen, ez dakit –kalbario hitza beren-beregi hautatu nuen–. Donibane egunean, beharbada.

–Ez dago argi herrira noiz itzuli zen?

–Ez –biribil esan nion–. Baina beste batzuekin jazo zena gogoan hartuz gero, esan liteke Donibane egunaren bueltan atxilotu zutela. Hala uste izateko beste arrazoi bat ere badago, ostera.

Karpeta hartu nuen.

–Ekainaren 27an bilera ederra egin zuten herrian –karpeta ireki eta batera esan nion.

Zerbitzariaren etorrerak eten zidan egiteko nintzena. Ekainaren 27ko bilera haren berri zekarren papera erakutsi nahi nion. Zerbitzariak alde egin arte itxaron nuen. Hori ez zen behingoan izan. Hantxe utzi zituen basoak eta urdaiazpikoa, eta gogoan ez dudan bestea ere. Eta horiekin batera, kontua. Bisitariak dirua ateratzeko zirkina egin zuen. Ez nion ordaintzen utzi. Visa utzi nuen.

–Hona hemen bilera hartan berba egin zenaren akta –papera luzatu nion.

Orri bakarra zen, alde bietan idatzia. Esaten zuena laburtzea erraza da. Edo gaitza, nondik eta zelan begiratzen zitzaion. Hori bisitariak esan beharko zuen. Irakurritakoan. Nik ostera buruz nekien. Hamaikatxo aldiz irakurria nuen.

Lehenik eta behin orriak udaletxean bildu direnen izenak ematen ditu: alkate berria eta zinegotzi berriak. Lau denetara. Gero horiekin bildu direnen izenak ematen ditu. Zortzi izen dira.

–Ezagunak egiten zaizkizu izenak? –bisitariak ardoari zurrutadatxo bat jotzeko burua altxatu zuela aprobetxatuz bota nion.

–Bai –esan zuen, negarguraz kasik–. Gaur herrian bizirik diren batzuk direla esan liteke, izen eta abizen berberekin.

Karpeta hartu nuen.

–Begira –esan nion, karpeta barrutik Bizkaiko telefono-aurkitegia ateraz–. Hortxe daude izenak.

Ez zuen liburukotea hartzeko keinurik egin.

–Baina ezinezkoa da egungoak eta ordukoak berberak izatea. Denbora luzeegia joan da tartean –esan zuen.

–Orduko haien semeak dira gaurko horiek –erantzun nion–. Eta beharbada zure abizena ere hor dago.

–Hor ez –esan zidan, eta negargura menderatzeko ahaleginean zela igarri nion.

–Besteen artean orduan? –bota nion.

Ez zidan erantzun.

Besteak ekainaren 27ko hartan herrian bildu zirenek aipatu zituztenak ziren. Zenbat izen! Denak gizonezkoak. Tartean abadeak, medikuak, maisuak, marinelak eta kapitainak, lanbide zehatzik aipatzen ez zitzaien beste askorekin batera. Bisitaria astia hartuz ari zen papera irakurtzen.

–Akusazioak ez dira makalak, ezta? –zinismo puntu batez esan nion, urdaiazpikoari ekinez.

–Erridikuloak dira, barregarriak, huskeriak! –haserrez esan zuen.

–Jo tragotxo bat, jan zeozer –aholkatu nion.

Begira geratu zitzaidan, mutu.

Akusazio haiek denak buruz nekizkien nik.

–Espainia Berriaren ikuspuntuak gogoan harturik –errezoan legez ekin nion– izen-abizenez aipaturik datozen hurrengo pertsonen afiliazio politikoa eta horiek duten arriskua azaltzen da, arrisku horren kausak adierazita.

Akta hartako sarrera berbak ziren, bildutakoen izenen azpian zetozen burokrata-berbak. Harriturik begiratu ninduen.

–Salatarietako batzuek euskaraz hobeto zekiten espainolez baino –esan nuen–. Euskaraz idatzi izan balute, behintzat. Ikusi duzu batzuei buruz esaten dena? Euskarazko eskola publikoak ematen zituztela. Mallona gixajoa! Ez zekien Espainia Berriaren berri.

Bisitariak burua makurtu zuen. Irakurtzeari berriz ekiteko. Orduan plateretik beste urdaiazpiko xerratxo bat ostu nuen. Buruz nekizkien salaketa haietako lehena eta nagusia separatista zen. Gero erreskadan zetozen beste akusazio batzuk.

–Agitadore edo nahaslea –gogoratzen ari nintzen–, finantzaria, herriko batzordeko partaidea, asaldaria, armadaren izen onaren zikintzailea,

milizianoa, salataria, medikua frontean, propaganda zabaltzaile zorrotza eta zinikoa...

–Hau egundokoa da –ozen eta bat-batean bota zuen bisitariak.

–Zer?

–Begira zein akusazio; Euzkadikoa izan zen Gobernuak... –esaten hasi zen.

–...misio sekretuak egiteko agindu ziona –eten egin nion–. Esan dizut buruz dakit horkoa. Baina zerk harritu zaitu? Ni harrapatu izan banindituten akusazio hori berori leporatuko zidatela? Ez egidazu barregurari eragin, arren. Hor duzu beste hori, arrantzaleen artean propaganda egiten zuela leporatzen zaiona. Baina ez da hori inportanteena.

Azken hori lehian sarrarazi nahiz bota nion. Ez zidan erantzun.

–Bakoitzari leporatzen zaion akusazioaren ostean zera diote: Espainia Berrira egokitu ezinekoak. Horra Mallonaren fusilamenduaren arrazoia. Egokitu ezinekoa zen.

Ziburuko portuko kirol-ontziei begiratu nien. Horren ostean arrantzuntzien aldera begiratu nuen. Izan ere, 1937ko ekain hartako irudiak

portukoekin nahastu zitzaizkidan. Nik ere arrantzuntzi batean ihes egin behar izan nuen. Baina Sinbadek-eta baino nahikotxo geroago.

–Ohartuko zara izkribuaren azken aldera dakarrena; banan-banan aipatu diren denak dira guztiz arriskutsuak –berriro errezo moduan hasi nintzen– eta Espainia Berrira egokitu ezinekoak, erabat.

–Fusilagarriak! –bisitariak, haria harrapaturik.

–Horren ostean –nire errezo modukoarekin segituz ekin nion– afiliazioa nazionalista edo ezkertiarra izanik ere, euren jarreren zabaltzaile hain sutsuak ez diren batzuen izenak datoz, Espainia Berrira egokitu ahal zirenen izenak dira. Begiratu ondo!

Eta bai, ondo begiratu zuen.

–Ene! –harritu zen–. Hona hemen herriko elizatik urrezko ontziak eta forma sakratuak desagertu zirela salatu zuen abadearen izena.

–Hortxe da, bai. Zerrendako azkena. Abertzale moderatua, abadea eta mugimendu nazionalari sinpatia diona dela dio.

Uste dut bisitariak orduantxe ulertu zuela herriko elizatik desagertu ei ziren ontzien nondik

norakoa. Abade hark halakoak salatu beharra zuen, larrua gorputzari atxikirik gordeko bazuen. Bere abertzaletasuna ukatzearen truk, eta gudariek ateoen modura ostiak desagerrarazi zituztela aitortzen ordainetan, herrian geratu zen.

–Abade honek –izena aipatuz esan zuen bisitariak– bazekien elizan Iriondo jauparia egona zela, eta hark ostiak edo berak hartu edo gudarien artean banatu zituela.

–Bai –esan nuen–. Baina orain, esan, zenbat izen dira zerrenda horretan?

Erantzuna banekien arren zain geratu nintzen. Bisitariak atzamar batez lerroak errepasatuz zenbatzeari ekin zion.

–Hirurogeita sei? –esan zuen, begiak nire begietan.

–Eman dezagun hirurogeita sei zirela, bat gora bat behera. Bada horien artean zure etxekorik? –zuzenean galdetu nion.

–Ez –esan zuen.

Erantzunaren motzak ez ninduen harritu. Harrezkero ziur jakin nuen. Izena laster esango zidan. Hain zuzen ere, esateko gogoak erretzen

zegoen. Zerbitzariari deitu zion, zigarro pakete bat eskatzeko.

–Kostatu egiten da, ezta? –esan nion, zigarrotxo bat isiotzen zuen artean.

–Mallona bat bada zerrendan, baina ez da gure Mallona.

–Ez zara haren etxekoa izango? –esan nion.

–Norena naizen esaten badizut ez duzu aurrera egin nahi izango –esan zuen, kea sendo kanporatuz–. Beharbada.

–Beharbada –ironiaz esan nion, nire kontaera eteteko asmorik ez nuela ulertzeko moduan–. Ba, ez. Alejandro Mallona Izaren izena ez dago zerrenda horretan.

–Ordurako kartzelan zegoelako –esan zuen; eta arnasa hartzeko astirik kasik barik bere izena bota zidan–. Bernardo dut izena.

–Hara! –esan nion–. Bernardo! Izen polita, literarioa, tradizio handikoa herrian. Bai ba, bai.

Gogoan Mundakako Bernardo Garro ‘Otxolua’ idazlea eta itzultzailea nuen hori esatean. Ipuin polita idatzi zuen Donibane egun bati buruz. Baina ba ote zekien hori beste Bernardo gazte hark?

–Ekainaren 27ko batzarra egin zenerako kartzelan zegoen? –berak lehenago ziur esandakoa galdera modura bota zidan.

–Nor? –haria galtzen ari nintzela uste dut.

–Mallona –esan zuen.

–Mallona bat ez; bi, hiru, lau baino –esan nion–. Emaztea, Presentacion, eta bien alabak, Presentacion eta Teresa, kartzelara eroan zituzten.

Horrela bota nion, eta oker ez banago malko batek ezkerreko begi ertzean kanpora ihes egin zion. Edo eguzkiak engainatu ninduen, beharbada. Beste nonbaitera begiratu nuen. Eta halaxe ohartu nintzen zerbitzariak aspaldi zuela visa txartela mahai gainean utzia. Ordainketaren agiria sinatu eta zutitu egin nintzen.

–Osteratxo bat ez zaizu txarto etorriko –esan nion, karpeta hartu eta batera

Eta oinez ekin genion. Izango genuen Citroëna hartzeko astia. Edo nork zekien neuk bakarrik etorri beharko nuen haren bila, haserretu egingo zitzaidalako. Karpetaren barruan nituen azken paperen berri jakitean. Ze harrezkero ziur nen-

goen. Haietan zegoen zerbait jakin guran etorria zen niregana Bernardo hura.

«Bernardo, eta zer gehiago?», nioen nire artean.

Esango zidan. Gogoak ematen zionean, baina esango zidan.

–20–

Zaharraren pausoa gazteagoaren pausoari egokitzea neke izaten da. Edo bestela, gaztearen pausoa zaharraren pausoari egokitzea bezain gaitz. Bisitariak –izena benetan Bernardo ote zuen duda egin nuen– polito moldatu zuen berea. Eta tarte batean elkarren parean joan ginen, ezer esan barik.

–Mallonaren epaiketa uztailaren 21ean izan zen. Madalen egunaren bezperan –ekin nion, halako batean.

Egunaren akordua argi egin zitzaidan, hobe ez. Bisitaria eta biok Lohizuneko Portura iritsiak baikinen, eta hantxe baitzeuden gure arrantzuntziak. Gerrako denbora haietakoak, oraingoen aldean apur bat ezberdinak ziren, baina taxu berekoak. 1937ko ekainean sekula Madalen egun batean legez abiatu ziren. Santaren eguna baino hilabetetxo lehenago.

Beraz, Mallonaren epaiketaren egunaren akordua argi nuen. Nahiz eta haren berri Bilboko

La Gaceta del Norte eta *El Correo Español*ek haiek ekarri ez.

Paper ziztrin haiek lehengo jabe eskuindarren eskuetara itzuli ziren, eta haiek Falangeren ildoan sarrarazi. Eta faxisten gezur-dantzarako musika jotzen zuten. Egunean eguneko epaiketen berri ematen zuten, edo bestela aurrean izandakoena. Bigarrenen kasuan fiskalek eskaturiko zigorren berri ematen zuten. Gero, sekula ez zigor eskariak berretsi egin ote zituzten, edo bertan behera utzi, edo aldatu. Berba erdirik ere ez.

Eta zer esan gauzatzen ziharduten heriotza-zigorren gainean. Ez eta aipatu ere.

Beraz, Mallona epaitua izan eta guk jakin genuenerako denboratxoa igaro zen. Zelan? Beste aldetik ihes egindako norbaitek ekarri zuen berria. Faxistak sarraski polita bideratzen ari ziren, eskubiderik gabeko epaiketa haiek gezurrez ondo edertu ostean hainbat eta hainbat fusilatuz.

Ni ordurako Santanderren nengoen, gure agintariekin alde egina, gerraren *ez bai ez ez* hartan. Santoñakoa baino lehen, esan nahi dut, ze ni ez nintzen hara entregatu, Bordelera ihes

egin baino. Baina hori geroago izango zen. Artean Santanderrera egina nintzen, Elena han ikusiko ote nuen, harexen minak hara eroanda. Bestela, batek daki zer egingo nukeen. Baina ez nuen Elena ikusi. Madrilera alde egina ote zen esan zidaten.

Ez zen berri txar bakarra. Ekainaren azkenetan jakin nuen Lauaxeta fusilatu egin zutela. Hilaren 25ean poetaren betaurrekoak betiko hautsi ziren, Gasteizko apaiztegi zaharreko hormaren kontra. Faxisten mendeku gosearen neurria ikasten ari ginen. Lauaxeta eta Mallona bezalako katolikoek jai zuten. Haatik, alkateak ez bide zekien poetaren akaberarena.

Faxistek Gerra Kontseilu Egonkorra ezarri zuten Bilbon. Eta lanean gogotsu ziharduen, egunean-egunean dozenaka lagun epaitzen. Halaxe iritsi zitzaigun Mallonaren epaiketarena, beste epaiketa askoren artean.

Bilboko Gerra Kontseilu Egonkorra ez zen Herioaren gerra-fronte bakarra. Alkatearena jakin nuen egun berean etorri zitzaigun Gerda Taroren albistea. Hil hartantxe, uztailean hila zen. 28an. Teruelgo frontean. Plentziako Kasinoan Noel

Monksekin izandako elkarrizketa hura etorri zitzaidan gogora.

–Faxismoa geldiaraziko dugu. Madrilen diren mundu zabaleko idazleek –beste izen batzuen artean Ernest Hemingway aipatu zidan, gero Kuban ezagutuko nuen umea lako fanfarroia–, kazetariek, argazkilariek –Robert Capa aipatu zidan!–, munduari egia erakutsiko diote.

Elkarrizketa haren ingurukoekin akordatzean, artean egunak ederrak zirela begitandu zitzaidan. Baina 1937ko Madalen egunaren bezpera, zein egun samina Mallonarentzat.

–1937ko uda haren ostean Madalen egunak amaituak ziren niretzat. Urteetarako –esan nuen–. Baina Mallonaren epaiketa duk orain kontua. Fiskal militarrak heriotza zigorra eskatu zuen.

–Karguak? –Bernardo hark epaiketa legezkoa izan balitz moduan galdetu zuen.

–Zein kargu eta zein karguondo! Erabakia aldez aurretik hartua zen –haserretu egin nintzaion, baina baretzea lortu nuen–. Akusazioa lerro parea da: jendeak erreklutatu izana, armak bildu izana, ondasunen bahiturak eta Mugimen-

duarentzat arriskugarria izatea; dena Herriko Defentsa Batzordeko Buru zen aldetik.

–Baina Mallonak ez zuen inoiz kargu hori izan! Lehengoan, dimititu egin zuela esan zenidan

–Eta? –une batez isilik geratu ginen–. Abokatuak sei hilabete eta egun bateko kartzela zigorra eskatu zuen. Eta hantxe jarraitu zuen Mallonaren kalbarioak. Burgosera dei egin behar zela, eta hau eta bestea. Begira.

Karteratik paperak ateratzen ahalegindu nintzen. Baina ezin. Orduan Bernardo hark itsas begiko horma batean jesartzeko keinua egin zidan.

Halaxe egin genuen.

Eta halaxe atera ahal izan nion Mallonaren kasuko nire dokumentuen arteko lehena.

–Eutsi –esan nion.

Eskuz idatzitako ohar luze bat zen. Alejandro Mallona Izaren alaba Teresak –kartzelan zegoena bera– bere semeari idatzia. Hortxe zioen heriotza zigorrarena. Eta Burgosera jo behar zela. Eta zeruak eta lurrak jotzeko, baina aitaitaren bizia salbatzeko zerbait egiteko. Papera itzuli zidan.

–Ez naiz grafologoa –esan zidan–, baina bistan da; ezker-eskuin eta beherantz letra gero eta handiagoetan jaisten den idazkera hori! Hori idatzi zuena erabat aztoraturik zegoen.

«Hara bestea!», pentsatu nuen. «Azeria ez baduk, gero! Aztoraturik zegoela!»

Eskutitza itzuli zidan, eta orduan nik hurrengo dokumentua erakutsi nion. Bisitariak hura ikustean beste zigarro bat isiotu zuen. Arnasa hartzeko, paradoxa bada ere. Gero dokumentua hartu zuen. Telegrama zen. Ziria sar niezaiokeen, euskara jatorrean telegrama zelan esan behar den eta hori dena. Ez zen momentua.

–Ez da posible, ezin da! –hasperen batean esan zuen.

Baina posible zen. Alejandro Mallonaren semeak idatzia zen telegrama. Eta telegramak argi zioen: ezinezkoa horra etortzea arrazoia militar betebeharrak idatzi berri zehatzak ezinegonez itxaroten dut.

Telegrama 1937ko uztailaren 25ekoa zen. Alejandro Mallona Izaren seme Pedro, faxistekin zerbitzu militarrean zegoen. *Pedro I* itsasontzian.

Mallorcan. Eta ez zioten etxerako baimena eman.

Hurrengo dokumentua mingarriagoa zen. Goian Viva España dakarren eskutitza, Larrinagako kartzelan 1937ko uztailaren 26an Alejandrok –horrelaxe, Alejandro– sinatua eta Kandido bere ilobari zuzendua.

–Tenple itzeleko gizona zen –esan zuen bisitariak hura ikustean–. Orrialde bakarrean idatzia, seguru asko luzeago egiteko zerarik eman ez ziotelako, ezkerreko ertza hor ere lerro parea idazteko aprobetxatu du, letra beti berdin-berdin mantenduz. Goiari eusten zion.

–Esperantza hari mehe batekin –esan nion–. Ohartu haiz –ez dakit, baina orduan uste dut hasi nintzaiola hika esaten– zelan diotson ilobari? Zigorra leuntzeko egin ahalak egiteko, nora jo behar den, jotzeko, kosta ahala kosta aurrera egin behar dutela.

–Horregatik eskutitzak dakarren «Viva España» hori –bota zidan.

Segundo batez gure elkarrizketa hantxe amaituko zelakoan egon nintzen. Bernardo hark ez zuen ezer ulertu. Jagiteko zirkina egin nuen.

–Kokolo halakoa! –irten zitzaidan.

–Tira –esan zuen–. Zer esan dut, ba?

–Ez haiz konturatu eskutitzak kartzelatik legez atera ahal izateko modu bakarra Viva España eta Viva Franco ipintzea zena?

Begiradaz barkamena eskatzen ari zitzaidan arren, gogor ekin behar nion. Bera ez zen beste askoren kontrako mendeku modura.

–Dokumentu hauek argitaratu barik egon badira, egon diren moduan, horrexegatik egon dituk horrela –berak beste zigarro bat isiotzen zuela bota nion–. Horrelako zerak okerretara ulertuko ote ziren beldurrez. Eta hara!, hi ere horretan. Mallonak, etxekoek, norengana jo zutela uste duk hik?

Isilik, lotsaz, zigarroari gogor ekin zion. Hurrengo dokumentu bat aterako nion ez ote nion aterako egon zen, nik uste. Atera egin nion, ostera.

Herriko Falangeko buruak sinatua zen. Hori azkenean. Hasieran, goian, Viva España, Saludo a Franco, Arriba España dakar –presentean diot, hortxe baitaukat oraindino gorderik–. Agurraren

eta sinaduraren tartean, ezezkoa. Ezin diola ezertan lagundu.

–Berorren eskutitza hartu dudalarik –ekin nion, buruz, faxista solemneen tonuaz, euskaraz, eskutitzak erdaraz dioena errepikatuz edo–, eta berori egoera pixka bat delikatuan dagoela ulerturik, erantzun behar diot nik neuk gustura egingo nukeela nire esku legokeena, goitik datozkidan aginduek diotenagatik ez balitz; inoren alde ezer egiteko edozein pauso eman aurretik Goitik eskatu behar baitidate pauso hori ematea.

–Nondik atera duzu ahots hori? Euskaratua duzu eskutitz hau ere? –irri batek eskapatu zion.

–Ahotsak imitatzearena, esan diat lehenago ere, erabat galdu ez dudan zera duk. Euskararena denbora-pasa legez egiten diat –katarsian sartzen ari ginela uste dut–. Nafar karlistek Francok euskara errespetatzea lortu izan balute, eta hori dena, badakik, orduan zelan idatziko zuten hori dena? Eta batez ere hurrengo paragrafoa, Falangeri buruzkoa dena?

–Eskutitz hori iraingarria da –esan zuen bisitariak.

–Halaxe duk, bai. Baina zer nahi duk? –barrea bareturik esan nion–. Hortxe daukak, eskutitzean, Falangearen definizioa –eta solemne jarraitu nuen–. Falange, abnegazio handiz eta sentimendu onen aldekoa zen gazteriaz beterik jaio zen partidua da; baina era berean Falange justizia hotz eta motz egiteko ere sortu zen; hala bada, ni orain ordezkari nauten Juezen aldetik, berori zigortu edo errugabe aitortu behar duten Juezen aldetik, inongo bidegabekeriarik izango denik ez du zertan uste izan behar berorrek.

Etenaldia egin nuen. Eztulka.

–Aterpea bilatu beharko genuke, beharbada –ikaraturik esan zuen.

–Ez, hemen ondo nagok –gezurra esan nion.

Gezurra zen, bai. Falangista zerrikume haren eskutitzak zioena gogoratzen nengoelarik Portuan yatch dotore horietako bat ikusi nuen sartzen. Izenari erreparatu nion. *Hélène III* zen. Eta Elenaren akordua jasanezin egin zitzaidan. Baina ez nion ezer esan.

–Nire aldetik –eskutitza buruz esaten jarraitu nuen– eta ofizialtasunez eskatzen badidate, berorren jarrera ezin hobea izan dela eta nire alde-

tik begirune osoa duela berorrek, halaxe esango dut; hori bai, politikoki egiari atxiki beharko natzaio –hemen duda egin nuen– gorrotorik eta haserrerik gabe, zeren eta ez Falangeren baitan eta ez nigan gorrotoak ez baitu habiarik egin. Berorren barkamena erregutuz eta nire egoera zein delikatua den ulertaraz diezaion Jainkoari eskatuz, agur esaten dio...

Sinatzailearen izena esan nion.

–Ezagutu nuen nik hori –bota zidan–. Herrian eta Madrilen bizi zen, tarteka. Inork kasurik egiten ez ziolako, gehienetan etxean sartuta.

–Baina batzuek mesederen bat eskatuko zioten? Ala ez? Zeukan influentziarekin! –mingosturik nengoen.

–Ez dakit –esan zuen, aztoraturik–. Azken urteetan herriko paisaiak pintatzen ibiltzen zen.

–Ezagutzen ditiat paisaiok –ironiak gehiago egin behar zidala oharturik nintzen–. Eta hik, hain grafologo ona haizenez gero arte-kritikoa ere izango haiz eta, zer ikusten duk koadro horietan?

–Estiloaren bilakaerarik ez dago –atezutik ihes egitearren esan zuela uste dut.

–Hi haiz hi kritikoa! Koadroetan pertsonarik ez dagoela, horixe huen faxista haren ezaugarri nagusia! Herria hutsik marrazten zian. Eta ondo egina, arranoa! Herria kasik jenderik barik utzi zutenez gero, berak, bere Falangek eta bere Mugimenduak!

Ez dut esango ni neu arte kritiko zorrotza naizenik. Haatik, faxista haren azken urteetako koadroan zegoena argi zegoen.

–Beste faxista ziztrin harroputz bat huen –esan nion–. Baina baskoa. Herritxo basko bat pintatzen zian, beste idazle faxista haiek, Gaztelakoak deskribatzen zituzten moduan. Kastizismoaren bila. Baina herritarrik gabeko pasaietan. Damutuaren jatorkeriak! Zein izen jartzen zuen koadroetan?

–B. Arriaga –esan zuen bisitariak.

–Bigarren abizena huen hori. Mallonari egindako gutunean bere izen biak eta Bilbao abizena jarri zian, Arriaga barik. Damua?

–Baskotu egin zen, akaso.

–Jatorkeria! Baina oraindino ez duk dena aditu.

Eztulak berriro eman zidan. Eta ez zen Elenaren akorduagatik izan. Akordatzen ari nintzen arren. Sinbadez eta besteez akordatzen nintzen moduan. Gehiegi berba egiten ari nintzen. Eta beroegi.

–Gaurkoz berton utziko dugu kontu hau, halaxe nahi baduzu –esan zidan.

–Ez –esan nion–. Gaur etorri haiz, eta gaur amaituko diagu kontu hau.

Esan nahi niona ulertu zuelakoan nago. Hurrengo batean ez ninduen beharbada bizirik harrapatuko. Nork zekien. Beste dokumentu sorta bat atera nion.

–Hiretzat –esan nion–. Fotokopiak dituk.

Mallonak idatzitako azken gutunak ziren.

–Ez itzak orain irakurri. Neuk laburtuko ditiat.

Abuztuaren 5ean, eta 6an, eta 7an, eta 8an, Alejandro Mallonak eskutitz beti antzekoak idatzi zituen. Beti goiari eutsiz, beti letra berbera mantenduz, beti agurrak eta ondo izatekoak eta denenganako desiorik hoberenak adieraziz. Eta beti heriotzaren itzala gerturatzen ari zitzaiola kontziente.

–Eta bitartean emaztea eta alabak kartzelan! –esan zuen Bernardo bisitariak, eskutitzetako bat Teresa alabak sinatua dela ohartzean.

–Bai –esan nion–. Eskutitz hori abuztuaren 21ekoa duk. Baina lehenago hortxe dauzkak Alejandrok berak 12an, eta 13an, eta 15ean sinaturikoak. Azken hori Begoñako Amaren eguna dela aipatuz. Begiak zerura jarrita zitian ordurako.

–Azken ahalegin bat egingo zuen, ostera –esan zuen bisitariak, bere guraria adieraziz.

–Hemen daukak azken ahalegin hori.

Karteratik nire dokumenturik preziatuena atera nion.

–Kontuz honekin –ohartarazi nion–. Material delikatua duk. Hitz eman behar didak hemen aipatzen diren izenetako bakarra ere ez duala jendaurrean erabiliko. Nire seguritateagatik.

Hitz eman zidan. Nire seguritatearen kontua zertan zen galdetu barik. Hobe horrela. Bestela azaldu egin beharko nion. Franco hil ondoren batzuek egin zuten isiltasun-itunak gerrako kontuak ez aipatzeko zioela. Ni neu zaharregia naiz nire ala has daitezen, baina nork daki herrikoek

ituna hautsi izanaz zer pentsa lezaketen. Beraz, ixi!

–Eta hona isiltasun horren kumeak –pentsatu nuen nire artean–. Faxistarik faxistenak ere demokrata jator bihurturik! Etiketa hori geuk, antifaxistok emanda, gainera.

–Hau ere fotokopia da? –esan zidan.

–Ez, hori ez duk fotokopia, jatorrizkoa baino. Honen fotokopia agian gero emango diat. Bitartean horkoak neuk laburtuko ditiat, nahi baduk. Eta dena entzundakoan, hik, Bernardo edo nor haizen, benetan nor haizen esango didak. Eta orduan ikusiko diagu dokumentu honen kopia gordetzeko duin haizen.

Zin egin zidan baietz, esango zidala. Nolanahi ere, ordurako erabakita neukan. Dokumentua emango nion. Munduan haren beste kopia bat libre-edo ibil zedin.

–21–

Dokumentua karteran sartu nuen, ez bainuen begien aurrean izatearen premiarik zer zioen buruz esateko.

–Dokumentuak hamar puntu zauzkak –bota nion.

–Elizaren aginduak bezala –haria harrapatu zuen.

–Bere burua errugabeko aldarrikatzeko orduan hamar motibo, ez bederatzi ez hamaika, hamar motibo idatzi zitian.

–Beraz, Mallonaren helegitea da dokumentu hori.

Une batez dudatan geratu nintzen. Helegitea?

–Berba polita, helegitea. Ba horixe, helegitea –esan nion, helegitea, niretzat, aldarri egitea dela–. Iparra altxatu duk, eta igual komeni zaiguk apur batean oinez egitea.

Jagi eta kartera besapean hartuta ibiltzeari ekin genion.

–Hamar arrazoi horiek azaldu aurretik –eztulak eman zidan berriro–. Gerra Kontseilu Egonkorrean leporatu zitzaizkion akusazioak gezurra direla esanez ekin zion Mallonak bere zerari.

–Hasiera polita eman zion Mallonak helegiteari; Gerra Kontseilukoak gezurra zirela esanez hastea ere!

–Ez zaik hain harrigarri egingo, bere buruaren alde ematen duen lehenengo arrazoia zein den jakiten baduk.

Etenaldia egin nuen. Banekien eta haren jakinguraren soka tenkatzen ari nintzena. Eta zer arrano; lehenago negargura nabaritu izan banio, igarri nion moduan, zer izango ote zen harrezkero esango nizkionak entzutean.

–Eskumakoekin inteligentzian, dio lehengo puntuak, ordenako gizonen alde egin dut, begirune osoz.

–Ordenaren aldekoa zen, bai. Baina Euzkadiko Errepublikaren alde Gernikan egin zena, eta hura dena, hara zein ordena faxistentzat! –Bernardo hark gogoan zuen nik behiala esandakoa.

–Dudarik ez. Horrexegatik zehazten dik bigarren arrazoia ematean zein ordena aipatu nahi

duen –bota nion–. Bigarren arrazoi hori zera duk, behin herriko halako bati etxean lapurretan egin nahi izan ziotela, ordurako gerra hasita zegoan hain zuzen, eta berak defenditu egin zuela hura. Dena dela, ez huen faxista baten alde egin zuen aldi bakarra! Izen denak dokumentuan dauzkak.

Berriro ibiltzeari ekin genion.

–Ez didazu dokumentua eman –bota zidan handik tarte batera.

–Bo –esan nion–. Zer esan nahi duk? Gauzak ahazten zaizkidala? –zakar bota nion.

Izan ere halaxe zen orduan, eta halaxeago da orain, urtebete igaro denean. Edo ahaztu edo bestela nahastu egiten dut ia dena. Salbuespenekin. Badira burutik kendu ezin ditudan akordu batzuk. Mallonarenak, esate baterako.

Bisitariak ez zuen ezer esan. Nahita ere, ezin. Dokumentukoak buruz aipatze hura nire buru onaren frogatzako joko zuen. Izen bat bota nion. Hirugarren arrazoia ematean Mallonak aipatu zuen gizonaren izena, hain zuzen.

–Jesus (...). Badakik nor zen hori? –galde egin nion.

–Bai –irmo erantzun zuen.

Irmotasunaren haren atzean negargura igarri nion eta, nahikoa. Ez zidan besterik esan behar. Etxekoa ez bazuen, gertukoa behintzat bazuen Mallonak bere hirugarren arrazoian aipatua zuen gizona. Aspaldi hila izan behar zuena, baina herrian familia handia utzi zuena.

–Horrela bada hirugarren arrazoia azkenerako utziko diagu. Laugarren arrazoia duk beste faxista bat atxilotu zutela, eta Mallonak haren portaeraren erantzukizuna bere gain hartu zuela. Badakik. Herria faxisten habia huen. Baina, tira, beste izen hori ere dokumentuan zagok –etenaldia egin nuen–. Bosgarren arrazoia ipuin eder bat idazteko modukoa duk. Ezagun egiten zaik Ybarra izena?

–Eta nori ez –esan zuen–. *Cabo Quilates* eta *Altuna-Mendi* haietakoak kontatzean aipatu dizkidazu.

Egia zen. Haatik, kartzela ontziena noiz aipatu nion bisitariari, ordutik hara tartetxo bat igaroa zen.

–Egia. Ba, bosgarren arrazoian izen horixe ageri duk. Herrian izan nuen misioarekin zeriku-

si zuzena zeukan Mallonaren bosgarren arrazoi horrek.

–Faxistak ontzietan hantxe sartzen zirela, eta horien izenak jakin behar zenituztela, eta horixe zela zure misioa, halaxe esan zenidan.

–Eta halaxe huen. Mallonak bi hilabetez izan zitian herrian gordeta Ybarrako markesa eta haren semea Antonio, biak Sevillako auzokideak.

–Ezin izan zutelako Frantziarako ontziratu? –galdetu zidan.

–Horixe duk, horixe duk!

–Zure bisitaldiak fruitu izan zuen –zorionak emanez bezala esan zidan.

–Bo, nire bisitaldiak edo! –esan nuen, ez bainuen horretan fede handirik–. Beste batzuen zereginak ere izango zian horretan zerikusirik.

*Cabo Quilates*eko eta *Altuna-Mendi*ko jazoeren ostean Jaurlaritzak ahaleginak eta bost egin zituen, halakorik berriro jazo ez zedin. Eta horretan Mallona denei aurrea hartuta. Baina hau ez nion esan Bernardo bisitari hari. Nekatzen hasia nintzen.

–Beste batzuen zeregina? Zer esan nahi duzu?

Erantzun modura Mallonaren seigarren arrazoia eman nion.

–Komunistek, Ekintzakoek, Sozialistek, *Soli*koek –holaxe esaten genien ELAkoei orduan– eta Nazionalistek Herriko Defentsa Batzordea osatu zitean, eta horiexek agindu zitiztean herrian egin ziren atxiloketak, Mallonak bere seigarren arrazoian dioen legez. Mallonak berak, helegitean –berba hori esatean bisitariari begietara begiratu nion; ez zegoen ironiarako tartetik–, helegitean, diot, atxiloketa horien aurka egin zuela zioan. Baina hemen bada trikimailu bat –esan nion, nekaturik–. Jesarri gaitezen.

–Berton –esan zuen bisitariak, taberna-aurre bateko mahaiak seinalatuz.

Hantxe jesarri ginen.

–Begira –esan nion, kartera mahai gainean utzita.

Kartera zabaldu eta paperak ateratzeko ahaleginean nengoela zerbitzaria etorri zitzaigun. Kafe hutsa eskatu nuen nik, ea hark suspertzen ninduen. Gero eta traketsago bainenbilen. Bisitariak ur hutsa eskatu zuen.

–Hemen daukak Mallonaren eskuizkribua –erakutsi egin nion– eta hemen berriz eskuizkribuaren kopia makinaz egina. Biak egun berekoak dituk. Begoñako Andra Mariren egunekoak.

Paperak luzatu nizkion, dena buruz kontatzeko ezindurik sentitzen nintzelako.

Nire ezintasuna antzemanik edo, bisitariak tarte bat isilik eman zuen, eskuizkribua eta makina-izkribua elkarri alderatzen.

–Ene! –irten zitzaion–. Ez dira elkarren berdinak. Batetik bestera badira aldaketa txiki baina interesgarri batzuk.

–Interesgarriak? Argigarriak, esango nikek nik. Zazpigarren arrazoian, adibidez. Mallonak dioena sinplea duk. Bat, ebakuazioaren momentuan parrokiako elizatik hiru eki-saindu eta balio handiko beste gauza batzuk eroan zituztela; bi, horren berri eman ziola aipatu dugun abadeak –begira geratu nintzaion, ea izenak ez aipatzearena gogoan ote zuen–; hiru, ontzi haiek itzultzeko Mallonak berak egin zituela egin beharrekoak.

–Baina makinazkoan hori dena beste modu batera dio! –haserretzen hasia zen mutila, hara!–. Hemen lehenik dioena da abadeek, plu-

ralean, jakinarazi ziotela Mallonari ontziena; Mallonak gestioak egin zituelakoa, horren ostean dio; eta azkenean dio, ba, lortu zuen bakarra –*bakarra* horretan indar eginez esan zuen– zera izan zela, kalizak Bilboko Banco del Comercion uztea!

–Mallonak ez zian hori idatzi. Berak Bilboko portu frankoan utzi zituela idatzi zian. *Euzkadi* egunkarian argitaratu zen moduan.

–Eta zergatik aldaketa hori? Halako itxikeriarik! –berotzen segitzen zuen.

–Ez zagok halakorik. Mallonak zer esango zuen jakin aurretik kalizen kontu harekin nahikoa zarata eginda zeudean. Ez zitzaiean komeni eki-saindu haien kontua lar astintzea. Kaliza denak ez hituen agertu. Noren eskuetara joan ziren agertu ez zirenak? Ez duk sekula jakingo.

Etsiturik ari nintzen. Hainbeste urteren buruan hura dena gogora ekarri beharrak min ematen zidan. Baina aukeran huraxe zen argitu ahal nuena argitzeko azken oportunitatea.

–Etsigarria –esan zuen, nire baitan irakurri izan balu moduan–. Zein paperi egin beharko

nioke kasu, ez dago dudarik. Mallonaren paperari.

–Bai, jakina. Baina argigarria duk aldaketa ziztrin horiena ere. Bestela –arnasa hartzeko kafeari ekin nion– hurrengo arrazoiak crescendo moduan zoazak. Zortzigarren arrazoia begia atera ziotenekoa duk.

–Tiro haren ondorioz berrogeita bost egunez hil-haginean egon zela dio eskuizkribuan –irakurtzen ari zena ozen esan zuen–. Baina ez dio nork jo zion tiroa.

–Makinazkoan bai –zuzendu nion–. Izquierda Republicanakoek. Baina makinazkoan ostera ez dik esaten heriotzaren ertzean eman zuen denbora horrena.

–Ez dut ulertzen zergatik. Garrantzia kentzeko, akaso? –jakinguratsu esan zuen.

–Akaso bai. Baina begira bederatzigarren arrazoia. Hori ere dokumentu batean eta bestean modu ezberdinean agertzen duk. Adi horri!

Adi, bai, hantxe baitzegoen nire misioaren parte bat ezkutaturik. Faxistek harrapatu izan banindute eskerrak eman behar nizkiokeen Mallonari. Bere bederatzigarren arrazoian esan zue-

nez, poliziak bitan joan zitzaizkion. Etxera. Mehatxuka. Eskuindarrak babesten segituz gero atxilotu egingo zutela esanez. Eta herriko komunista baten izena ere eman zuen eskuizkribuan Mallonak. Ni joan nintzaionik, ez zuen aipatu.

–Hara, hara, hara! –irakurtzen ari zenaz bisitaria zur eta lur zegoen.

Zer irakurtzen ari zen igarri nion.

–Ustekabeko galanta, ezta? –bota nion–. Eskuizkribuko hamar arrazoiak hamabi bihurtu dituk makinazkoan. Baina funtsean berdin dik horrek. Makinazkoan bederatzigarrena bitan zatitu ditek; bera eskuindarra zela, eta polizia komunistak bitan etxera joan zitzaizkiola. Eta horra hamaika arrazoi! Eskuizkribuan amaierako arrazoia, hamargarrena, horixe duk indartsuena.

Irakurtzen utzi nion.

Banekien hamargarren arrazoi hura gogoratzea gogor egingo zitzaidana. Eman zezakeen hamargarren hartan Mallonak katixima zuela gogoan. «Hamar agindu hauek bitan laburtzen dira; maita ezazu Jainkoa edozeren gainetik, eta maita itzazu besteak zure burua maite duzun legez».

Beste aldean, faxisten artean, fede oneko katolikoak bazirelako aipatu ote zuen Mallonak hamargarrenik eta azkenik aipatu zuen hura? Queipo de Llano faxistatzarrarena, alegia?

Queipo de Llano hark, irratiz, Mundakako alkatea aipatua zuela zioen Mallonak. Radio Sevilla hartako emisio batean. Zorionak emanez. Eta adibidetzako jarrita.

Ez nuen uste Bernardo hari Queipo de Llanoren irrati-saioek zuten garrantziaz azalpenik egin behar nionik. Etxean egon banintz Jacques Preverten *Paroles* liburuko pasartetxo bat irakurriko nion. Beraz, izkribura itzuli ginen.

–Makinazko eskuizkribuak dioenez –esan nion–, Sevillara iritsiak ziren pertsona batzuek Queipo de Llano odoltzaleari faxisten aldeko Mallonaren eginahalak aipatu zizkioten.

–Berak etxean gordeta eta babespean izan zituen ybarratarrek –esan zuen.

–Haietako batek –esan nion.

Begira geratu zitzaidan, azalpen eske.

–Amak. Ze semeak, Antoniok, askatu eta gerrara egin zian. Behingoan. Faxista sutsua izana

huen gerra aurrean, Getxon. Baina ezetz jakin non sartu zen?

–Gezi Beltzetan? –esan zuen.

–Bero –esan nion, jolasaz gozatuz–. Herrian horiek eta nor beste sartu zen?

–Mairuak? Karlistak? –zur eginda zegoen.

–Antonio Ybarra Lasso de la Vega 1938ko abuztuan hil huen. 22an. Alfereza zela; Erregularren alfereza, Alhucemako 8.eko Taborrean. Askatu eta, hara!, herrian sartu ziren mairuekin joan huen.

–Faxista konbentzitua, beraz.

–Horixe esan diat.

–Ybarratarrak faxisten altxamendua sendo eta gogotsu finantzatu zutenen artekoak ziren –Bernardo hark zerbait bazekien–. Eta haien testigantzarekin Queipo de Llano hark, irrati saio sutsu haietako batean, Mallona aipatu zuen.

–Bai. Baina heuk irakurri!

Mallona katoliko fede-muturrekoa! Bere defentsaren azken buruan huraxe jarri zuen. Queipo de Llanok bere ontasuna goraipatu bazuen, egin ere egin zuen moduan, ez ote zioten epai-

leek beste gaizki eginak, politikoak, barkatuko? Eta zein gaizki-egin, gainera?

Ez nuen Mallona kartzelan imajinatu gura. Gerra hartan katolikoek katolikoen legean ari zirela pentsatu nahian. Epaile faxistei fede katolikoak aldarrikatzen duen barkamen gaitasuna gogorarazteko.

–Ondo al zaude? –bisitariak nire samina antzeman zuen.

–Amaitu duk hamargarrena irakurtzen? –erantzun nion, ondo nengoela adieraztearren.

–Amaitu dut, bai –esan zuen, ni ondo nengoen sinesten ez zuela agerian zuela.

–Eta?

–Mallonak etxean gordetako faxista haiek, ybarratarrek eta, ezin izan zioten zigorra kenarazi? –harriturik zen bisitaria.

–Bernardo –esan nion–, ze Bernardo haiz, ezta? –buruaz baietz egin zidan–. Oraintxe irakurri behar duk hirugarren arrazoia, ea horretan zein misterio dagoen. Eta gero hor aipatzen den beste Jesus (...) faxista hori nondik nora ezagutzen duan esango didak. Bai?

Buruaz baiezkoa egin zuen. Eta mundu honetan «*bizirik bizi edo bestela hobe hil*» jokatu behar denez, kafearen ostean zerbait edateko ordua iritsia zela begitandu zitzaidan, eta koñak pitin bat eskatu nuen. Ea behintzat bizirik hiltzen nintzen. Ez nintzen hil, bistan da. Haatik koñakak suspertu egin ninduen. Zorionez.

Zorionez, diot, bisitaria, Bernardo ei zen hura, negar egitekotan baitzen. Hirugarren arrazoiko zerbaitek min eman zion. Zerk? Horixe galdetu behar nion. Baina nahiago izan nuen berak esatea esateko zuena.

–Hemen aipatzen den industria-gizona, Mallonak balizko heriotza batetik salbatu zuen beste faxista bat zena, etxekoa dut. Aitaitaren aldetik. Nire izena Jesus Bernardo (...) da –esan zuen, abizena ere aipatuz–. Ikusten duzunez, bataio harrian haren izena ere eman zidaten, Bernardorekin batera, eta familia izenez harexen izena daroat Jesus Bernardo horien atzean.

–Eta? –esan nion.

–Ez ote zuen Jesus hark ezer egin Mallonaren alde? –esan zidan.

–Horregatik etorri haiz niregana? Hori jakitearren? –ulertzen hasia nintzen.

Ez ertzaina, ez abokatua, ez historialaria. Bisitaria, Jesus Bernardo (...)!, beste Jesus (...) faxista haren habekoa zen. Etxera itzultzeko ordua zen. Eta halaxe esan nion.

–Goazen autoaren bila.

–22–

Jesus Bernardoren habeko Jesus (...) hura Bilbo inguruko lantegi ezagun bateko gerentea zen eta, halako batean langile batzuk herrira agertu zitzaizkion. Kontu eske. Eta heriotza emateko prest. Mallona tartean sartu zen, eta horrexeri eskerrak. Bestela hantxe akabatuko zuten.

Buruan horixe nuela hurreratu ginen autoa utzitako lekura. Isilik. Hura dena uste baino mingarriago egiten ari zitzaidan. Bisitariak igarri egin zidalakoan nago. Behin auto barruan ekin zion hizketari.

–Citroën dira oraingo Ertzaintzaren autoak –hariz aldatu nahi izan zuen, gerrako Citroënak gogoan.

–Hara! –esan nion, autoena, eta Ertzaintzaren beste asko ere, ez baneki.

Ez ziren autoak hark hizpidera ekarri nahi zuena, ostera. Dokumentuak emango nizkion ez ote nizkion emango zegoen. Baina ez zen ausartzen. Eta aztoraturik zegoen.

–Ondo manejatzen duk –esan nion.

–Gidatu esan nahi duzu? –esan zuen, gure lehen bisitaldiko ziriak gogoratuz.

–Horixe –esan nuen, ergelkerietan eta huskerietan genbiltzala jakinda–, Ameriketan egindako urteen eragina, badakik.

Ez zuen ezer esan. Eta berriro isilik, halaxe joan ginen, harik eta Donibane Lohizuneko kaleak atzean utzi arte. Orduan neuk ekin nion berriro.

–Emango ditiat dokumentuak. Horiek eta gehiago ere bai. Badakik zer dioen makina izkribuko hamabigarren arrazoiak?

–Buruz dakizu?

Buruaz baietz esan nion. Baina ez nion beste azalpenik eman. Eta nire lekuan erdi lo geratu nintzelakoan nago. Koñakaren eragina. Edo nekea.

–Ailegatu gara –esanez ekarri ninduen nire onera.

Ingurura begiratu nuen. Ailegatuak ginen, bai. Gero bisitariari begiratu nion. Atea zabaltzekotan zen.

–Nora hoa? –bota nion.

Begiekin bere autoa utzia zuen lekua erakutsi zidan. Ez dut gogoan zein markatakoa zen. Citroën etxekoa ez behintzat. Horiek denak buruz ezagutzen ditut. Besteak ahaztuta ditut gehienak.

–Egon! –esan nion.

Garajeko atea autotik zelan zabaldu erakutsi nion. Bertan sartzeko agindutzako hartu zuen, eta halaxe egin zuen.

–Igo –esan nion, autoa garajean geldiarazi zuenean.

Begira geratu zitzaidan.

–Hire etxeko Jesus (...) hark ez zian Mallona salbatzearren ezer egin –bat-batean bota nion.

Autotik irten nintzen. Eta bera nire atzetik.

Garaje barruko eskaileretan gora etxeraino egin genuen.

–Ezer hartu nahi duk? –eskaintza egin nion.

–Ura –esan zuen.

Ur baso bi atera nituen.

–Zuk ere ura? –esan zidan.

–Pilula hau hartzeko –esan nion.

Mahaiaren gainean nituen botika multzoko ontzitxo batetik pilula bat hartu nuen. Bihotzarentzakoa.

–Badakik Mallonak gibeleko gaitza zuena? –esan nion.

–Ez –esan zuen–. Nola izan zen nire aitaitaren anaiak Mallona salbatzearren ezer egin ez izana?

–Hire pariente hari herriko bat joan zitzaion berba egitera; gauzak larri zaudek, esan ei zion. Eta faxista hark, barkatu, hire zerak, Mallonari egingo zitzaiona ondo egina izango zela erantzun zion –begira geratu nintzaion, ea hura zelan hartzen zuen.

Ura dzanga edan, horra egin zuen bakarra.

–Goazen salara –esan nion.

Salako arasatik kopa bat atera nuen, ezer nahi zuenetz galdetu gabe.

–Whiskia? Koñaka? –galde egin nion.

–Whiskia –esan zuen–. Harririk gabe.

Halaxe atera nion. Gero liburuen apalategira egin nuen. Leihotik iluntzearen pauso sendoa igarri ahal zen. Donibane Lohizuneko marran eguzkia ostentzen zihoan.

–Dokumentu denak emango ditiat. Baina kondizio batekin. Nork esan dik niregana etortzeko? –galde egin nion, liburuen artetik gutunazal handi bat atera eta batera.

Erantzuna susmatzen nuen.

–Zuregana etortzeko nork esan zidan? Mallonaren ondorengoetako batek –esan zuen, eta hemen idatzi nahi ez dudan izena aipatu zuen–. Hark beti esaten zidan; eman behar ditiat paperak, eman behar ditiat paperak, baina ez zizkidan sekula ematen. Gero beti esaten zidan berak kopiak zituela, eta jatorrizkoak hemen utzi zituela. Badaezpada ere. Ba, alkatearen ondorengo hori oraintsu hil da-eta, honezkero ezin dit ezein paperik eman.

–Hala da ze, alkate fusilatuaren iloba eta haren fusilamenduaren erruduneta ko bat, elkarrekin, eta biak ezkertiar eta abertzale joerekin-edo? Horra gerraren osteko mende erdiaren erresumena.

Ezkertiar eta abertzale joerena nire kautatik atera nuen. Baina parean jo nuela uste dut. Ez zuen ezetzik esan.

–Txikiteoan biltzen ginen –esan zuen.

–Ikusten diat, ikusten diat. Gibela gizenduz eta politikaz berba eginez ibiltzen zineten. Bestea nahikoa gazterik hil duk, ba –bota nion, normaltasun itxura eginez, baina samindurik.

Gogoan nuen Franco hil ondoren bisitan etorri izaten zitzaidan gazte hura, beti Alejandro Mallonaren kontuekin gora eta behera. Jatorrizko paperak ematean opari ederra egin zidan. Beraz, nondik nora ukatu behar nizkion haien kopiak Jesus Bernardo (...) hari, besteak emango zizkiola agindu bazion? Ezin.

Gutunazala luzatu nion, eta galdutako ekisaindu haietako bat eman banio baino benerazio handiagoz hartu zuen altzoan.

–Badakik zein izan zen Mallonaren hamabigarren arrazoia? –berriz atera nion gaia.

Whiskiari tragotxoa jo zion. Orduan lehenengo aldiz haren adina kalkulatzen ahalegindu nintzen. Berrogei urte? Berrogeita bost? Gazteegia, Mallonaren hamabigarren arrazoia ulertzeko. Edo beharbada ez.

–Hamabigarren arrazoia! –ekin nion, Mallonaren ahotsaz–. Nire eskuzabaltasunaren frogatzat eta Zona Nazionalera lehenik Frantziara joz alde

egin nahi zutenei laguntzearen adibidetzat, aipatu ahal dut abuztua eta azaroa bitartean Mundakan hainbat lagun ontziratu zirela, gudontzi alemaniarretan, ingelesetan eta abarretan. Gehienak dokumentaziorik gabeko pertsonak ziren, eta asko eta asko ziren artelanak eta balio handiko beste objektu batzuk eroan zituztenak. Nire zabaltasunaren beste froga bat erakusteko esan behar dut Mundaka zela Zona Nazionalera irteteko hautaturiko lekua, izatez itsasertz mundakarra halako operazioak egiteko leku arriskutsua zen arren, azken batean han edozein arriskuri aurpegi eman ahal zitzaiolako ni alkate ninduen herriak eskaintzen zuen ziurtasunari esker.

–Zure misioaren zioa erabat zuzena zela frogatzen du horrek –esan zuen.

–Hainbat urteren buruan –erantzun nion.

Eta hurrengo esan nahi niona esan ez esan geratu nintzen.

Esatea erabaki nuen. Ez dakit zergatik. Adinaren gorabeherak, beharbada.

–Eta hamabigarren arrazoi horrek, besteak ahaztu barik, Mallonak Errepublikarekiko izan zuen jarrera ere argitzen dik –bota eta damutu

egin nintzen–. Baina ez gaituk hori epaitzen sartuko. Mallonak kartzelan bere burua berak epaitzeko astia izan zian, eta nahikoa. Zigorraren konmutazioa itxaroten zuen artean. Idatzi eta idatzi egiten zuen artean.

–Nori idazten zion?

–Dokumentuetan ikusiko duk. Hortxe dauzkak hire grafologo sena lantzeko ingudea eta mailua.

Zirikada hura jaurti eta behingoan ohartu nintzen. Lekuz kanpo zegoen.

–Semeari batez ere. Baina ez horri bakarrik –ekin nion–. Denei, fedea Jainkoarengan izateko eskatzen zien. Ze, abuztuaren 15aren osteko egunak arte, Larrinagako kartzelan zirenak indultua etorriko ote zitzaien esperantzan bizi izan ziren. Mallona bera, emaztea, alaba biak eta beste batzuk.

–Zigortuak ziren emaztea eta alabak ere?

–Epaiketa abuztuaren 11n egin zitzaiean. Hogeita hamarna urteko kartzela zigorra ezarri zietean. Hortxe ikusiko duk, dokumentuen artean, Teresa Mallonak bere senarrari egiten dion gutunean.

Gutun hartan bitxikeria eder bat bazegoela esan niezaiokeen. Alegia, erdaraz idatzia zen arren Teresa hari euskarak ihes egin ziola, eta halaxe idatzi zuela «yo me quedé neure maite muerta al oir los 30 años». Eta horretan pentsatzean George Steer lagunaren *Gernikako Arbola* liburuaren amaiera etorri zitzaidan gogora.

Kartzelan sartu zuten herriko emakume zahar-zahar eta gaixo harena. Haren delitua? Steerrek idatzi zuen legez, semeetako bat Agirreren gobernuko enplegatua izana zela. Eta Steerrek berak idatzi zuen legez, emakume hura, bizi guztiko katolikoa eta herrian karitate ekintzak zuzentzen zituena, bihotzeko sakon-sakonean nahikotxoa erreakzionarioa zen.

Jaiotzatiko katolikoak ziren Mallonaren emaztea eta alabak ere. Baina bost horrek faxistei. Abertzaleak ere baziren eta. Hariari ekitea erabaki nuen.

–Hogeita hamar urteko kartzela zigorra ezarri zietean. Pentsa! Ama gaixotu egin huen. Eta Mallonak alaba biak hantxe ikusten zitian, kartzelako patioan, paseo orduetan. Eta emaztea ez zian ikusten, eta arduratu egiten huen, eta ez huen

bere baitan bizi, eta alabek esku-keinuz ama ondo zegoela jakinarazten ziotean –kostatu egiten zitzaidan hura dena azaltzen segitzea–. Epaiketa Begoñako Andra Mari eguna baino lehenago egin zitzaienak egun seinalatu hartan indultua etorriko zitzaielakoan izan hituen, bizi ezinik. Eta horretan, Mallona bere buruari galdetzen, zer egin? Ea ba sententziaren errebisioa eskatzea komeni zen ez zen komeni, ze errebisioa eskatu ostean indultua etorriz gero, zer orduan? Egunetan eta egunetan horrela, bere buruarekin korapilo itzela eginda. Eta sufrituz. Ze errebisioa eskaturiko batzuei zigorra leundu beharrean gogortu egin zieten.

–Zergatik?

–Militarrei potroetan hazka egiten ez zutela ibili behar erakusteko. Eta indultuari esker bizia salbatzen zuenak betiereko fideltasuna izango zielakoan. Umiliaraztearren, barkamen eske ikustearren, beste batzuk salaraztearren. Eta mesede eske hasiko zirelakoan.

Etenaldia egin nuen. Barrua sutan, ez nekien aurrera egiteko gai izango nintzen. Baina Jesus Bernardo (...) haren jakingura pizturik neukan.

–Eta azkenean hamar arrazoiak hamabi bilakatzearena? –galde egin zuen.

–Mallonaren beraren kontua izan huen. Zona Nazionalera ihes egin nahi zutenen hori dena berak idatzi zian, eskuz, beldur itzelaz, lehenengo hamar arrazoiak idatzi zituenetik egun batzuetara, hain zuzen. Gero eskuzko hori makinazkora kopiatu zitean, baina dokumentua sinatu zeneko eguna bere hartan utzita.

–Begoñako Andra Mariren egunarena bere horretan utzita.

–Bai. Militar ustez katoliko haiei horrek zirrara eragingo zielakoan.

–Baina horrek denbora galtzen ari zirela esan nahi du. Helegitea, zenbat egunez atzeratu zen horrela?

–Ez zakiat. Heuk igarriko duk, beharbada. Izkribuetako idazkeren artean alde ikaragarria zagok, ohartuko haizen moduan. Zona Nazionalera ihes egitearen zera hori idatzi zuenerako gizona aldaketa alarmagarria jota zegoan. Ohar hori idatzi zuena. Ez huen tenple handiko lehengo hura. Letraren ezaugarrietan fedea galdu duela igartzen duk.

–Haren alde egiteko nire parienteari eskatu zioten moduan, beste batzuei ere eskatu zieten?

–Halaxe egin zitean –kemena ateraz esan nion–. Herriko alkate faxistari arren egiteko eskatu zitzaioan. Haren ezezkoa borobila izan huen. Emango diat dokumentua. Gero frankisten artean bazen Mallonaren lagun bat, edo ezagun bat, Salamancako Goi Estatu Militarrean zegoena, eta harengana ere zuzendu hituen, Francori hitz egin ziezaion. Abadeak ahaztu barik. Horiengana ere zuzendu zituan. Alferrik. Kaguen zotz abadeak!

Nire samina bistakoa zen. Amaitu beharra nuen. Eta zorionez Jesus Bernardo hark halaxe ulertu zuen

–Noiz fusilatu zuten? –nire saminaz jabeturik.

–Eguna ez dakik, ala?

Buruaz ezezkoa egin zuen.

–Irailaren 4an, Derioko kanposantuan. Dokumentuen artean daukak horren berri ematen duena.

Ez nuen dokumentua gogoratu nahi. Baina gogoratzen ari nintzen, zer arraio!

Azken gutun hura Jesus de Basozabal abade batek sinatua zen. Eta betiko moduan hasten zen. Viva España nardagarri batekin. Zorionez ez zekarren ohiko Saludo A Franco nardagarriago hura. Gero eguna eta lekua zekarren; Larrinaga, 4-IX-1937. Eta hartzailea; Sr. Don Antonio Garro. Hots, Mallonaren suhia.

Eta behin gutunaren gorabehera haiek gogoratzen hasita edukia berbaz berba bota beharra sortu zitzaidan.

–Ene lagun agurgarria: Gaur goizean, 05:15ean gure On Alejandro maitea zerura bidean abiatu da –ozen ari nintzela ohartu barik ekin nion–. Bare eta Jaunaren borondatearekin ados eman du agurra, gaurko Arrosariorako gure otoitzak eskatuz eta denei barkatuz; santutasunez, kristautasunez.

–Beste trago bat behar dut –eten zidan.

–Badakik botila non dagoen –esan nion.

Arasara hurreratu, botila hartu eta kopa ertzeraino bete zuen.

–Zerura bidean abiatu da! –kopari trago bat joz bota zuen.

–Hori arima –bota nion, minduraz–. Gorpua hantxe lurperatu zitean, berarekin fusilatu zituzten beste laurekin batera. Derioko kanposantuan. Fusilatu zuten hormatik hur ala urrun, batek zakik hori.

–Ez dago hilobirik? Hori okerra!

–Okerrena ez duk hori. Gutunak beste sei lerro ditik. Bat, gutuna heriotzaren berri emateko dela esateko; beste bat eta erdi, fusilatuaren azken borondatea betez biharamunerako mezak agintzea dela esateko; eta beste bat eta erdi, haren semeari berria jakinarazi diotela, baina ez ostera emazteari eta alabei, horixe esateko.

–Lerro bi falta dira –esan zuen bisitariak.

–Heuk irakurri gero, orain negar egingo huke eta.

Gezurra. Lerro haiek ezin nizkion esan. Ez behintzat niri bihotzekoak emateko arriskurik barik. Baina ezin eutsi izan nuen.

–Haren emazteari eta alabei –zioen gutunak azkenean– ez diegu oraindino abisatu eta uste dugu zu zeu zinatekeela lehenengo berriak emateko egokiena. Damu handiz (zuekin) bat egiten dugu horren dolore handian.

Uste izan nuenaren kontra, niri ez zidan bihotzekoak eman, eta berak ez zuen negarrik egin. Ostera, eta gure artekoa hantxe amaitutzat eman nahi nuela uste izanik, Jesus Bernardo (...)k kopa hustu zuen, zutitzeko keinarekin batera.

–Egon apur batean –agindu nion.

Men egin zidan.

–Zergatik etorri haiz? Hire etxeko hura zein putakumea zen jakitearren? Haren eginak hire eginak balira moduan hartzen ditualako? Esan nian, hona etorri hintzen lehenengo egunean; antiklerikala nauk; edukazioaren aldetik, ostera, katolikoa nauk eta, hamaikatxo sermoi entzunda nagok. Ebanjelioaren pasarte bat ez zaik txarto etorriko.

Eta halaxe bota nion pasarte hura. Kristo gurutzerako bidean doala haren atzetik negar batean diren emakumeei esaten diena, Lukasen Ebanjelioaren arabera.

–«Jerusalemgo alabak, ene gainean negarrik ez egin, baina zuen buruen eta zuen umeen gainean negar egin» –esan nuen, ahotsean Iriondo jaupari haren itxurak eginez–. Ez egik hire pa-

riente faxista haren portaeragatik negar egin, egik negar oraingo faxisten mehatxuagatik. Eta egik negar horiei bide ematen dietenengatik. Ez egik Mallonagatik negar egin, halako batean sortu ahal diren Mallona berriengatik baizik. Egik negar higatik eta hire erkideengatik. Hire herriagatik ere, nahi baduk, baina ez egik negar egin joanak direnengatik. Ez dik merezi.

–Eta zuregatik?

Malko batek ihes egiten ziola nabaritu nion. Norengatik? Ez nion galdetu.

–Ez, nigatik ezta ere. Nire denbora joana duk. Ni neuk ez diat honezkero negarrik egiten. Inorengatik ere ez.

–Ezta Elenagatik ere?

Une batez duda egin nuen.

–Ez –erantzun nion.

Baina ez nuen Elena gogora ekarri nahi.

–Hilda ala bizirik zegoen haren senarra?

–Preso –motz erantzun nion.

Esan niezaiokeen Santurtziko portuko hura ez zela elkar ikusi genuen azkena izan, elkartze eta banantze askoren hastapenekoa baino. Sinbadi egin azken agur hura azkena izan ez zen

moduan. Eta esan niezaiokeen harrezkerokoak ia denak idatzirik ditudala. Eta goiko ganbaran gordeta.

Orduan ideia zoro batek harrapatu zidan burua. Bisitariari nire dokumentu bitxietako batzuk ematea. Merezi ote zuen, ostera?

–23–

Ez dakit Jesús Bernardo (...) hark Mallonarenak denak berriro irakurtzean negar egin ote zuen, nik Lukasen Ebanjelioko hitz haiek esan nizkionean egin zuen moduan. Ordukoan malko bi isuri zituen. Lodia lehena, lodiagoa bigarrena, eta horien ostean bat ere ez. Bere buruari negar egiteko eskubidea ukatuz.

–Gidatzeko moduan hago? –galdetu behar izan nion.

Buruaz baietz erantzun zidan.

–Oraindino ez didazu kontatu *Nabarra* boutik nola alde egin zenuen –zerbait esatearren bota zidala uste dut.

Barre egin nuen. Eta berak ere bai. Katarsiaren seinale.

–Beste norbaiti kontatu nion. Aspaldi. Eta hark gero nire izena aipatu barik argitaratu. Hor nonbaiten ibiliko duk liburua –destaina itxurak eginez esan nion.

–Ez daukazu, ala?

–Bo, agian bai. Baina hobe heuk bilatzea. Kontaeraren izena «*Nabarra* bouaren azken orduak» dela uste diat.

–Eta liburuaren izena? –galde egin zidan.

–Bilatuko duk hori ere.

Kontziente nago; lehenik kontaera eta liburua gero bilatzea posible balitz moduan erantzun nion. Liburua kontaeraren barruan balego moduan, alderantziz barik.

Zer egingo zaio. «*Nabarra* bouaren azken orduak» kontaera harena, ez zen hura nire gustuko kontua. Bati kontatu eta hark, hara!, idatzi eta euskarazko argitaletxe espainol mendeko baten eskutik eroan zuen plazara. Damutu ahalko zaio hala egin izana.

Beraz, kemena izan banu neuk kontuko nizkion bisitariari, bai *Nabarra* boukoak, eta bai beste batzuk ere. Baina akiturik nintzen. Ez nuen uste ez eta hurrengo goizeko argia ikusiko nuenik ere.

–Bilatzen ahaleginduko naiz –esan zidan.

–Kostatuko zaik.

Eta zahartzea zer ote den, hori esatean burura berriro lehengo ateraldi zoroak harrapatu

zidan. Nire dokumentu bitxietako batzuk Jesús Bernardo (...) hari lagatzea otu zitzaidan. Harrezkero bera aterako bidean zela.

–Egon –esan nion–. Etxea txukuntzera etortzen dena beti ibiltzen zaidak ziria sartzen, hainbeste paper zahar zertarako, eta ematekoak direnak oraintxe emateko, zer auskalo gero nora joango diren. Halaxe esaten zidak, *gero* horrek zer esan nahi duen esaten ausartu barik, jakina. Ni hildakoan. Eta hori oraintxe bertan izan litekek.

Ateraldi hark halako estura bat eragin zion.

–Erdu! –agindu nion.

Ganbarara egin genuen. Sabaiko argi zuloan gora begiratuz ilargiaren adar bat ikusten zen.

–Ederrak Donibane Lohizuneko gauak! –esan nion.

Ez nuen argia pizteko gogorik izan. Buruz nekien nire dokumentu haien kaxa non zegoen.

–Gazteago banengo neuk lagunduko nikek, baina! –esan nion, hura hartzeko keinu batez.

Kaxa harturik behera egin genuen.

Atera lagundu nion.

Bostekoa luzatu nahi izan zidan. Ezin kaxa harekin. Eta hobeto. Atea zabaldu nion. Eta haratik hara kilkerren hotsak belarrietan zizt egin zidan. Bistarekin autoraino jarraitu nion.

Kaxa preziatu hura atzeko aldean sarturik, aurreko atea ireki zuen.

–Kontuz mugan. Eta kontuz kontrolekin –kaxa seinalatuz esan nion.

–Honezkero ez dago mugarik –erantzun zidan.

Kontrolei buruz, deus ez.

Autoa martxan paratu zuen. Gero argiak piztu zituen. Eta astiro-astiro gauaren baitara egin zuen.

Ez nion esan gero askotan aditua nuena. Mallonari fusilamenduaren ostean indultua etorri ei zitzaion. Egia? Gezurra? Salamancako artxiboetan legoke erantzuna. Lekutan, beraz. Hobe hura ahaztea. Baina bisitariari esan beharko nion, itzultzen bazen behintzat, ea haietan miatzeko aukerarik ote zegoen.

Artean gau aro ederra zegoen, ilargiaren adar biak elkar ukitu nahirik bezala ikusten ahal ziren, eta hantxe lotu nintzen. Luzaz. Kilkerrei

adi. 1937ko maiatzean Sollube mendian aditu beharko ziratekeenak, urte bereko ekainean Gasteizko apaiztegian edo irailean Derioko kanposantuan legez, haiexek zirelako. Kilkerren hotsak.

Mundaka, 2003ko uztailaren 18a

Nobelako jendeak

Allen, Jay

Faxistek gerra gauzatzen ziharduten sarraskien adibidea eman zion munduari, *The Chicago Tribune* egunkarian «Slaughter of 4,000 at Badajoz» (4.000ren sarraskia Badajozen) artikulua argitaratuz. Artikulua Portugalgo Elvas delakoan sinatua da, 1936ko abuztuaren 25ean. Bestalde, Franco elkarrizketatu zuen, eta haren alderdi odoltzaleena erakutsi zuen. Bizkaian ere izan zen, 1937ko maiatzean. *Death in the Making* liburuari paratu zion hitzaurreak erakusten duenez, Bizkaia ez ezik Euskal Herriko beste bazterrak ere askoz lehenagotik ezagutzen zituen.

Batailoiak

Eman diren batailoien izenak, eta horiek non eta noiz egon zirenak –egilearen okerren bat tarteko ez bada behintzat– denak egiazkoak dira. Haatik, Salsamendiko gazteena benetako pertsonetan oinarrituz asmatua da.

Bilbao, Alejo

Bermeon jaio zen, 1903ko uztailaren 17an. Komandantea bouetan. Lehenik *Bizkaia* bouan (1936-XII-6) –honekin Matxitxakoko batailan parte hartu zuen– eta ondoren (1937ko abuztuan) Gasteiz izenekoan. *Císcar* gudontziko komisario politikoa ere izan zen, tarte batez. Santoñan atxilotua, heriotza zigorra ezarri zioten, gero hori konmutatu eta, azkenean, kartzela pairatu behar izan zuen, 1943an aske utzi zuten arte. Kartzelan zelarik *Gerrako apunteak* idatzi zituen. Bermeon hil zen, 1973ko irailaren 10ean.

Capa, Robert
(sortzez: Endre Friedmann)

Hungariako Budapesten jaio zen, 1913ko urriaren 22an. XX. mendeko argazkilari ezaguneneta-koa da Capa, *Death in the Making* liburuko argazkietako batzuen egilea. Bizkaian izan zen 1937ko maiatzean. Sollubeko batailakoak eta Bilboko zibilen egoerak erretratatu zituen. Magnum agentziaren sortzailea izan zen 1947an, Henri Cartier-Bresson eta Chim Seymourrekin

batera. Gerra frontean hil zen, Ibai Gorriko Deltan (Vietnam), 1954ko maiatzaren 25ean.

Elena

Pertsonaia asmatua da. Gerran eta Gerraondoan emakumezkoek bateko eta besteko Zerbitzu Sekretuetan parte hartu zuten.

Ezezaguna

Benetakoa da. Haren heriotzaren agiria liburura hitzez hitz aldaturik dago. Jatorrizko agiria gazteleraz idatzia da:

Registro Civil de Mundaca
Número 45 Distrito de Guernica
Nombre y apellidos: Desconocido

En Mundaca, Provincia de Vizcaya, a las once horas y ——————— minutos del día 7 de mayo de mil novecientos treinta y siete, ante D. Jose Goyenechea, Juez Municipal provisional, y D. Juan Victoriano Fradua Secretario provisional, se procede a inscribir la defunción de D. Desconocido de unos 40 años, natural de ————————- provincia de, hijo de D. y de D.ª domiciliado en, de número, piso, de profesión y de esto (1) Este cadáver se encontró en el puente de Chorrocopunta, tenía dos heridas bala una en la región parietal izquierda y otra en la región pectoral izquierda, vestía pantalón azul marino y chaqueta gris, zapatos bajos negros, no

se le encontró más que pañuelo blanco en el bolsillo, a las ———————— y ————————- minutos, a consecuencia ————————- según resulta de ———————— y reconocimiento practicado, y su cadáver habrá de recibir sepultura en el cementerio de ———————— (tachadura) enterrado en la Atalaya al lado del anterior y por las mismas causas y se practica esta inscripción en esta forma por no existir juez debido a la evacuación.

Habiéndola presenciado como testigos
D. Manuel Cruconegui y D. Pedro Díez
mayores de edad y vecinos de este pueblo.

Gure Gizona

Asmatua. Uriarteri buruzkoan aipatutakoak honentzat ere balio du.

Iriondo Aranburu, Manuel

Gipuzkoako Beizaman 1884an jaioa, Donostian hil zen 1964ko abuztuaren 28an. Saseta Gudatalde edo Batailoiko jauparia. Elizako aldarean utzi zituen dokumentuak 1996an agertu ziren, han egin ziren lanen ondorioz.

Lauaxeta

(izatez: Estepan Urkiaga)

Bizkaiko Laukizen jaio zen 1905ean, eta faxistek fusilaturik hil zen Gasteizen 1937ko ekainaren 25ean. Hiztegi entziklopedikoetan esaten denaz landa, Gerra Zibilean teniente gradua iritsi zuen. Kazetariekin ibili ohi zen, propaganda zereginetan.

Mallona Iza, Alejandro

Bizkaiko Mundakan jaio zen. Ikasketez itsas kapitaina, bere itsasontzi konpainia sortu zuen (Mundaka izenekoa). 1931ko hauteskundeen ostean Mundakako alkate hautatua, Espainiako Bigarren Errepublikaren hastapenetan Euzkadiko Errepublika federatua sortzeko ahaleginetan parte hartu zuen. Errepublikako gobernuak horren ondorioz alkatetzatik kendua, 1936ko otsaileko hauteskundeen ostean itzuli zen alkatetzara. Derion fusilatu zuten 1937ko irailaren 4an. Nobelan aipatzen den dokumentazioa egiazkoa da.

Mendiguren, Bruno

Bizkaiko Mungian 1910ean jaioa. Ikasle garaian Euzko Ikasleak erakundeko kide, Jose Antonio

Agirre lehendakariarekin lan egin zuen, Kanpo Harremanei buruzko Idazkaritzan eta Prentsa Bulegoan. 1936ko ekainaren 14an *Císcar* gudontzian Lapurdira ihes egin zutenen artekoa. 1937an Argentinan zen, eta bertan hil zen 1950ean Mar del Platan, hegazkin istripuz, negozio-gizon legez bere bidetxoa egin ostean. George Steerrek bere *Gernikako Arbola* liburuan Bruno Mendigurenen erretratua egin zuen.

Monks, Noel

Kazetari australiarra. *Eyewitness* (*Lekukoa*) liburua idatzi zuen, besteak beste. Liburu horretako ataletako baten izenburua «Gernika eta ostekoa» da. Hiriaren bonbardaketaren egunean bertan izan zen, George Steerrekin batera. *Eyewitness* liburuan beste bi gerratako narrazioak bildu zituen, Bigarren Mundu Gerrakoak eta Koreako Gerrakoak.

Seymour, David

(sortzez: David Szymin; ezizenez: Chim)

Argazkilaria. Poloniako Varsovian jaioa. *Death in the Making* liburuan ageri diren argazkietako ba-

tzuen egilea, nahiz eta liburua sinatu ez, eta horrek gerora argazki jakin batzuen egiletasunaz eztabaidak sortu dituen. Hain zuzen ere, 1936-1937ko neguan Bizkaian izan zelarik, *Regards* aldizkarian zenbait erreportaje argitaratu zituen, J.E. Poutermarn baten testuez lagundurik. Robert Caparekin beti lagun, Magnum agentziaren sortzaileetakoa. Egiptoko Suezen hil zen 1956an.

Sinbad

(izatez: Juan Duñabeitia de la Mota)

Bilbon 1898an jaio eta Bilbon 1964an hila. Merkataritza ontzietako kapitaina, Deustuko Itsasketa Eskolako irakaslea, *Goizeko Izarra* ontziko eskifaiakoa. Gerra Zibilean nobelan aipatzen den kargua ukan zuen. Ameriketara erbesteratua, Ernest Hemingway idazlearen lagun min bilakatu zen. *Hemingway eta euskaldunak Zerbitzu Sekretuetan* liburuan gizon honen biografia garatuago ageri da, liburuko protagonista nagusietakoa baita.

Steer, George

The Tree of Gernika (Gernikako Arbola) liburuaren egilea. 1936-1937ko gerra tarteaz eta batez ere Bizkaian Gerra Zibilaren sorreraz, bilakaeraz, amaieraz eta ondorengo gertaerez idatzi den osoena. Gernikan izan zen, bonbardaketaren gau berean. Haren testigantzak erabateko garrantzia izan zuen, Gernika nork suntsitu zuen jakiteari buruz. Bigarren Mundu Gerra amaitzear zelarik hil zen Birmanian.

TARO, GERDA
(sortzez: GERDA POHORYLLES)

Alemaniako Stuttgarten jaio zen 1910eko abuztuaren lehenean. Nazien Alemaniatik Frantziara ihes egina, *Death in the Making* liburua sinatu zuen Robert Caparekin batera. Honekin haserre, Gerra Zibila bere kabuz erretratatzea erabaki zuen, *Ce Soir* delakoarentzat lan eginez. Horrexetan zelarik hil zen, Teruelgo frontean (Aragoi) 1937ko uztailaren 28an. Gerda Taro eta Robert Capa denbora batez (1935-1936) elkarrekin bizi izan ziren Parisen. Bere zereginean hildako lehen emakumezko gerra-argazkilaria da, beharbada.

Uriarte

Asmatua da. Haatik, Euzkadi'ko Jaurlaritzaren Itsasoko Ertzaintza eta Espioitza Zerbitzua historikoak dira.

Vincent

Vincent Sheean kazetari amerikarra (1899-1975). Honi buruzko pasartea Alex Kershawen *Blood and Champagne / The life and time of Robert Capa* liburutik hartua da.

Ybarra

Ybarraterrei buruzko denak historikoak dira.

Nobelako gudontziak

Císcar

Errepublikaren Gobernuaren agindupeko destruktorea. Ofizialen artean baziren faxisten askotxo. 1933an eraikia, 2.175 tona higiarazteko gai zen 36 korapiloko abiadan. 120ko 4 piezaz eta 76,6ko torpedo-jaurtitzaile batez hornitua. Eskifaia 175 lagunek osotua zen. Gudontzi honi buruz kontatzen direnak, denak historikoak dira.

Gipuzkoa Boua *(Mistral* ohia)

Lurrunezko eta burdinazko oskoldun PYSBEko bakailaontzia, Falmouth-en (Ingalaterra) Cox & Co. Ltd. Engineers Ltd. enpresak *Mistral* izenaz eraiki zuen. Bilbora joan zen Pasaiako ebakuazioan (1936-IX-13). BIAk (Bizkaiko Itsas Armada Errepublikarrak) artilatua izateko hautatu zuen eta Eusko Jaurlaritzak bereganatu zuen (1936-X-30). Urria erdian hasi zen lanean, eta geroago *Gipuzkoa* izena jarri zioten (1936-XII-09); horren ostean erabat sartu zen Euzkadiko Gudontzidian. Asko erabili zuten kanpainan zehar, eta matxu-

rak izan zituen Matxitxakoko gudatean (1937-III-05). Bilbo ebakuatzean Santoñara pasa zen; bertan desartilatu eta ondoren Bordelera (1937-VIII-28). Kortsario ontzi bihurtzea pentsatu zen; 101,6ko mm-ko bi pieza ezarri zitzaizkion berriro eta baita 47mm-ko beste bi ere, baina plana ezin izan zen gauzatu eta Frantzian izan zen gerra bitartean. Armadoreei 1939an itzuli eta 1966an zehatu zuten.

Juan Pardo San Gil
Euzkadiko Gudontzidia
(Untzi Museoa, Donostia, 1998)

Jaime I.

Errepublikaren Gobernuaren agindupeko korazatua, 1914an eraikia. 15.000 tona higiarazteko gai zen 16 korapiloko abiadan. 305ko 8 pieza eta 101ko 2 zituen, 854 lagunek osaturiko eskifaiak maneiatuak. Eskifaiako gehienak anarkistak ziren.

José Luis Díez

Errepublikaren Gobernuaren agindupeko destruktorea, 1928an eraikia. 2.087 tona higiarazte-

ko gai zen 36 korapiloko abiadan. 120ko 5 piezaz eta 76,6ko torpedo-jaurtitzaile batez hornitua. Eskifaia 175 lagunek osotua zen. Gudontzi honi buruz kontatzen direnak, denak historikoak dira.

Nabarra Boua *(Vendaval* ohia)

Lurrunezko eta burdinazko oskoldun PYSBEko bakailaontzia, Eskoziako Aberdeen-en Hall Russell & Co. Ltd. enpresak *Vendaval* izenaz eraiki zuen. Bilbora joan zen Pasaiako ebakuazioan (1936-IX-13). Bizkaiko Defentsa Batzarrak Bilbo-Baiona arteko itsas lotura gisara erabili zuen. BIAk (Bizkaiko Itsas Armada Errepublikarrak) artilatua izateko hautatu zuen eta Eusko Jaurlaritzak bereganatu zuen (1936-X-30). Urri bukaeran hasi zen lanean, eta geroago *Nabarra* izena jarri zioten (1936-XII-09); horren ostean erabat sartu zen Euzkadiko Gudontzidian. Asko erabili zuten kanpainan zehar, eta hondoratu egin zuen *Canarias* gurutzontzi frankistak Matxitxakoko gudatean (1937-III-05).

Juan Pardo San Gil
Euzkadiko Gudontzidia

Velasco

Errepublikaren aurka altxaturikoen agindupeko destruktorea, 1923an eraikia. 1.315 tona higiarazteko gai zen 34 korapiloko abiadan. 101,2ko 3 pieza eta 47,6ko 2 zituen, 86 lagunek osaturiko eskifaiak maneiatuak.